

JAI – IGANDEETAKO

IRAKURGAIAK

ABENDU - BAZKOA

A

JAI – IGANDEETAKO

IRAKURGAIK

ABENDU - BAZKOA

A

Jaunartze antifona

Begira, Birjina haurdun dago, eta semea izango du; eta Emmanuel ipiniko dio izen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Sendo gaitzazu, Jauna, egiazko fedean,
hartu dugun sakramentu honen bidez;
eta egizu, Ama Birjinaren Semea
egiazko Jainko eta gizon dela aitortzen dugunok
Kristo Biztuaren indarrak salba gaitzala
eta betiko zorionera eraman.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Baina Mariak orduan aingeruari:

- 'Baina nola daiteke hori? Nik ez bait dut ezagutzen gizonik'.

Eta aingeruak:

- "Espiritu Santua jaitsiko da zuregana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu.

Horregatik zuregandik jaioko den Santua, Jaungoikoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide Isabel ere, bere zaharrear, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabetean aurkitzen da; Jaungoikoarentzat ez bait da ezer ezinik".

Mariak orduan:

- 'Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit, zuk diozun bezala'.

Orduan aingeruak utzi zuen.

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, zure Elizaren eskaintza;
eta Elizak zure Seme bakarraren gizakundean
bere hasiera izan duela aitortzen duenez gero,
emaiozu Kristoren misterioak gaur pozik ospatzea.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
Gizonongatik eta gizonon artean
Espiritu Santuaren egitez sortzekoa zen Kristo
Maria Birjinak, aingeruari entzunik, fedez onartu zuen,
eta sabel garbian maitasunez ekarri.
Horrela bete ziren egiaz,
bai Jainkoak Israeli egindako agintzariak,
bai beste herrialde guztien itxaropenak.
Horregatik, zure haunditasuna aitortzen dute aingeruek,
beti pozez elkarturik zure aurrean.
Onar ezazu, Jauna,
haien gorespenekin bat egin ditzagula
guk ere geure kantu hotsak:

ABENDUKO I IGANDEA

Sarrerako antifona

Jauna, Zugana jasotzen dut bihotza; ene Jainko, Zugan dut uste on; ez nadila lotsa; etsaiak ez bitez nere lepotik poztu; Zugan uste on dutenak ez bait dira lotsatuko.

Kolekta otoitza

Jaungoiko ahalguztiduna,
emaiezu zure fededunei
beren egintza onekin Kristoren bidera ateratzeko gogoa,
egunen batez, Haren eskuin aldean jarririk,
zeruko erreinua iritsi dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Isaias profetaren liburutik 2,1-5

Isaiasek, Amosen semeak, Judari eta Jerusalem-i buruz izandako ikuskaria:

Azken egunetan, Jaunaren etxearen mendia
sendo izango da ezarria:

muino guztien gaindi, mendi guztien buru;
atzerri-jendeak hara joko du.

Herri asko joango dira, esanez:

'Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira,
Jakob-en Jainkoaren etxera:

Berak erakutsiko dizkigu bere bideak,
eta Haren bideziorretan ibiliko gara;

Siondik aterako baita legea,
eta Jerusalendik Jaunaren Hitza'-

Berak epaituko ditu atzerriak,
auzira ekarriko herriak eta herriak.

Golde bihurtuko dituzte ezpatak,
eta igitai, lantzak.

Ez du herrik herriren aurka ezpatarik jasoko,
ez dira gudurako berriz trebetuko.

Zatoz, Jakob-en etxe,
gabiltzan Jaunaren argitan.

ERANTZUN-SALMOA 121**ZURE ETXERA GOAZ, JAUNA,
HAUXE DA POZA DAUKAGUNA.**

Hau nere poza entzutean:
'Jaunarenera denok goazen!'
Hara non orain zure atean
hemen gaituzun, Jerusalem!

Uri bildua, uri argi,
gure bihotzen lotugarri.
Gure herritarrak lerroz lerro
Zugana datoz, bihotz bero.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 13,11-14

Senideok: Ezagutu ezazue bizi zareten garaia: ordua da, lotatik esnatzeko; sinesten hasi-berri hartan baino hurbilago dugu gaur gure salbamera. Badoa gaua; gainean dugu eguna; ken ditzagun, beraz, ilunbeetako egintzak eta jantzi argizko armak. Gabiltzan jator, egun-argiz bezala; ez jan-edankerietan eta hordikerietan; ez lohikerietan eta neurrigabekerietan; ez haserre eta elkarrentzako bekaizkerietan. Har ezazue Jesu Kristo Jauna soineko, eta zuen gorputza zaintzeak ez bitza biztu grina txarrak.

ALELUIA Jauna, zure onginahia erakus iezaiguzu;
zure salbamera emaguzu. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 24,37-44

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:
- "Gizonaren Semearen etorrera Noeren egunak bezala izango da. Uholde aurreko egunetan, jan-edanetan zebilen jendea, eta ezkontzen ziren gizon-emakumeak, Noe kutxan sartu zen eguneraino; eta ez ziren konturatu, uholdea etorri eta guztiak eramane zituen arte; horrela izango da Gizonaren Semearen etorrera ere. Orduan bi lagun izango dira soroan: bata hartua izango da, eta bestea utzia; bi emakume ariko dira errotarian: bata hartua izango da, eta bestea utzia.

Liburuan nitaz hau dago idatzia:
egin dezadala zure nahia.
Ene Jainko, gogozko zait hori,
eta bihotz-mamian daukat zure legea.

Ebertarrei egindako epistolatik 10,5-10

Senideok: Zezen eta akarren odolak ez ditzake bekatuak kendu: Horregatik Kristok, munduan sartzerakoan, hau dio:

"Oparirik eta eskaintzarik ez zenuen nahi izan, baina gorputza eman zenidan Niri; erre-oparirik eta bekatuentzakerik ez zitzaizun atsegin. Orduan esan nuen Nik, Niretaz Liburuan idatzia dagoena: Hona hemen Ni, Jainko, zure nahia egin dezadan".

Lehendabizi honela esaten du: *"Oparirik eta eskaintzarik, erre-oparirik eta bekatuentzakerik, ez zitzaizun atsegin izan"*, hauek legez eskaintzen badira ere. Gero honela dio: *"Hona hemen Ni, zure nahia egin dezadan"*.

Lehendabizikoa kendu eta bigarrena jartzen du. Nahi horren indarrez santu eginak gara, Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariarengatik.

ALELUIA Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua:
eta geurok ikusi dugu Haren aintza. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 1,26-38

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Dabiden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sartuta, honela esan zion:

- "Poztu zaitetz, graziaz bete hori: Jauna zurekin".

Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan:

- "Ez izan beldurrik, Maria; Jaungoikoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta Jesus ezarriko diozu izen.

Haundia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko dute; eta Jainko Jaunak Haren aita Dabiden errege-aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta Haren erregetzak ez du azkenik izango".

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA
(martxoak 25)

Sarrerako antifona

Jaunak, munduan sartzerakoan, hau dio: Hona hemen Ni, Jainko, zure nahia egin dezadan.

Kolekta otoitza

Jauna, zure Hitza
Maria Birjinaren sabelean gizon egitea nahi izan zenuen;
egizu, gure Salbatzailea
Jainko eta gizon dela aitortzen dugunok,
Haren antzeko izan gaitzezela jainkotasunean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin... AMEN.

Isaias profetaren liburutik 7,10-14

Egun haietan, Jaunak honela hitzegin zion Akaz-i:
- "Eska iezaiozu Jaunari, zure Jaungoikoari, ezaugarri bat zuretzat, nahiz lurraren barrenean, nahiz zeruen goienean".
Eta Akazek:
- 'Ez diot eskatuko, ez dut tentatuko Jauna'.
Orduan Isaiasek:
- "Entzun, Dabiden etxe: Gutxi derizkiozue gizonentzat aspergarri izateari? Jaungoikoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarri. Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izen, hau da: 'Jaungoikoa gurekin'".

ERANTZUN-SALMOA 39

**HEMEN NATOR NI, HEMEN, JAUNA,
EGIN DEZADAN ZUK ESANA.**

Opari eta eskaintzarik ez duzu nahi izan,
baina belarriak ireki dizkidazu;
erre-opari eta hoben-oparirik ez duzu eskatu,
eta orduan esan dut nik: 'Hemen nauzu'.

Zaudete erne, beraz, ez bait dakizue zuen Jauna zein egunetan etorriko den. Ba dakizue: etxe-nagusiak baleki, gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Zuek ere prest egon zaitzete, uste ez duzuen ordutan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea.

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohaiak;
iguzu, ogi-ardo hauekin orain eta hemen egiten duguna,
betiereko salbamenerako izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 5- edo 7 or.)

Jaunartzeko antifona

Jainkoak on dena emango du,
gure lurak bere uzta ekarriko du.

Jaunartze ondorengo otoitza

On egin diezaigula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentuak;
beronen bidez irakasten diguzu,
mundu honetako gauza iheskorren artean gabiltzanoi,
iraunkorrei jarraitzen eta zerukoak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

ABENDUKO II IGANDEA

Sarrerako antifona

Sion herri, hor dator Jauna, herri guztiak salbatzera; eta entzun eraziko du Jaunak bere ahotsaren ospea, zuen bihotzaren pozerako.

Kolekta otoitza

Jainko errukitsu ahalguztiduna,
lur honetako egintzek ez gaitzabela lotu
zure Semearen bidera goazenok,
eta jainko-jakinduriaren erakuspenek eraman gaitzabela
zure Semearekin bat egitera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Isaias profetaren liburutik 11,1-10

Egun hartan, kimu berri bat sortuko da
Jese-ren zuhaitz-ondotik,
muskil berri bat loratuko haren zainetik.
Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da:
jakinduri eta adimen-espirtua;
kontseju eta sendotasun-espirtua;
ezaguera eta Jaunaren beldur-espirtua.
Jaunaren beldur-espirtuak beteko du.
Ez du auzia itxuraz bakarrik erabakiko,
ezta epaituko ere entzuten duenaz,
Zuzen erabakiko du apalaren auzia,
eta zintzoro epaituko, herriko behartsuak.
Bere ahoko zigorraz joko ditu gogorak,
bere ezpainetako arnasaz hilko gaizkileak.
Zuzentasuna izango du gerrian uhal,
leialtasuna, giltza-gainetan gerriko.
Otsoa bildotsarekin biziko da,
eta lehoiabarra antxumearekin etzango;
txekorra eta lehoikumea elkarrekin larratuko dira;
eta haurtxo bat izango da haien artzain.
Behia eta hartza batean larratuko dira,
eta haien umeak elkarrekin etzango;

- “Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra, Espiritu Santuarengandik bait dator. Semea izango du, eta zuk ‘Jesus’ ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko bait du bere herria bekatuetatik”.

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Oparigaien otoitza

Jauna, Jose santua
Maria Birjinagandik jaiotako zure Semearen
serbitzari leial izan zen bezala,
egizu, guk ere bihotz garbiz
serbitza zaitzagula zure aldarean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa 43. or

Jaunartze antifona

Ederki, morroi zintzo eta leiala, sar zaitetz zure nagusiaren pozetara.

Jaunartze ondorengo otoitza

Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna, zure familia hau
Jose dohatsuaren jaia pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu gaitzazu beti zeure babespean,
eta gorde guban Zuk maitasun haundiz emandako dohaiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Elkargo egin dut nere autatuarekin,
Dabid nere morroiari nion zin egin:
“Betiko sendotu dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia”.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 4,13.16-18.22

Senideok: Lurraren jabe izango zirelako agintzaria ez zitzaien egin Abrahami eta haren ondorengoei Legea betetzeagatik; sinesmenaren zuzentasunagatik baizik. Dena sinesmenetik dator, eta dena dohain hutsa da; horrela agintzariak ondorengo guztientzat irauten du; ez Legetik diren ondorengoentzat bakarrik, baita Abrahamen sinesmenetik direnentzat ere; hau guztien aita bait da, idatzia dagoenez: “Herri askoren aita egin zaitut”. Abrahamek, hilak pizten dituen Jainkoa, eta ez direnak izatera deitzen dituen, aurkitu zuenean sinestu egin zion.

Itxaropenean oinarriturik, sinestu egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela, esan zitzaion bezala: “Hainbestekoa izango da zure ondorengoa”. Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

EBANJELIOA

Bai dohatsu, zure etxean bizi direnak,
beti Zu gorensten ari direnak!

Jesu Kristoren Ebanjelioa s Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariarengandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa bait zen, eta ez bait zuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilkiela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion:

lehoiak eta idiak batean jango dute lastoa.
Bularreko haurra suge-zulo ondoan jostatuko da,
eta bularra utzi-berriak bere eskua
suge-gorriaren zuloan sartuko du.
Nere mendi santu osoan
ez da, ez gaitzik, ez hondamenik, ikusiko;
Jaunaren ezagueraz beteko baita lurraldea;
itsasoa urez beterik dagoen bezala.
Egun hartan Jeseren zuztarreko muskil berria
herrien ikurrintzat jarria izango da;
herriak haren bila etorriko dira,
eta haren tokia ospetsua izango da.

ERANTZUN-SALMOA

71

JAUNA, ZURE ONGINAHIA ERAKUS IEZAIGUZU ZURE SALBAMENA EMAIGUZU.

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeri,
zure zuzentasuna errege-semeari.
Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
eta zure gizagaisoak zuzenbidez.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
bakea ugari ilargia itzali artean.
Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
l baitik lehor-mugaraino.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

15,4-9

Senideok: Lehengo Idazki guztiak gure erakusbiderako idatzi ziren, gure iraupenez eta Liburu Santuak ematen digun pozez, itxaropen izan dezagun. Iraupenaren eta pozaren Jaungoikoak eman diezaizuela, elkarrekin iritzi bereko izatea, kristauei dagokien bezala; bihotz batez eta aho batez gora dezazuen Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Horrela, bada, harrera on egiozue elkarri, Kristok zuei harrera on egin dizuen bezala, Jaungoikoaren aintzarako. Hau esan nahi dizuet: Judutarren serbitzari egin zela Jesu Kristo, arbasoei egindako agintzariak betetzen dituen Jaungoikoaren leialtasuna egiaztatzeko; eta beste aldetik, harrera on egiten diela jentilei, Jaungoikoari aintza eman diezaioten, Beraren errukiagatik. Honela baitio Liburu Santuak: ‘Ospatuko zaitut atzerrietan, Jauna, goretsiko dut zure izena’.

ALELUIA Urra ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bidexkak;
eta ikusiko dute guztiek Jaungoikoaren salbamera.
ALELUIA!

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 3,1-12

Egun haietan, Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan agertu zen, hotseginaz:

- 'Bihotz-berri zaitetzte, hurbil da-eta zeruetako erreinua'.

Honengatik esana zuen Isaiasek:

Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

'Urta ezazue bidea Jaunarentzat,

zuzendu Haren bidexkak!'

Joanek gamelu larruzkoa zuen jantzia; eta gerrian larruzko gerrikoa; eta basalangosta eta basaeztia zituen janari. Jerusalem, Judea osotik eta Jordan aldetik harengana joaten zen jende guztia; haiek aitortzen zituzten beren bekatuak, eta hark bataiatu egiten zituen Jordan-ibaian.

Baina Joanek farisear eta saduzear asko bere bataioa hartzera zetozkiola ikusirik, esan zien:

- 'Sugekumeok! Nork erakutsi dizue, gainean duzuen haserreari ihes egiten? Emaitzazue bihotz-berritzeari dagozkion fruituak. Eta ez esan zeuen baitan: 'Guk Abraham dugu aita'. Hara zer esaten dizuedan: Jainkoak harri horietatik ere sor diezaizkioke semeak Abrahami. Ezarri diote aizkora zuhaitzondoari; fruitu onik ematen ez duen zuhaitza, ondotik ebaki eta sutara botako dute.

Nik urez bataiatzen zaituztet, bihotz-berri zaitetzten; nere ondoren datorrena, ordea, ni baino ahaltsuago da, ni ez bait naiz inor Haren oinetakoak eramateko ere; Hark Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea; larraina garbituko du eta garia mandiora bilduko; lastoa, berriz, itzal ezin daitekeen sutan erreko du'.

Oparigaien otoitza

Bigundu zaitzatela, Jauna,
gure otoitz eta eskaintza apal hauek,
eta, gure merezimendurik ezin aitatu dugunez gero,
zure errukiak lagun diezaigula
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

SAN JOSE (martxoak 19)

Sarrerako antifona

Hona hemen etkezain zintzo eta zentzuduna, nagusiak bere serbitzarien buru ipini duena.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztiduna
gizadi berriaren hasieran,
Kristo Salbatzailearen zainzaile leial
egin zenuen Jose santua;
egizu, beronen otoitzez,
Elizak ere leial zaindu dezala
Jesu Kristoren salbamen-misterioa,
eta bere betera eraman.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Samuelen liburutik

2Sm 7,4-5a.12-14a.16

Egun haietan, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani:

- "Zoaz, eta esaiozu nere morroi Dabidi:

'Hau dio Jaunak: Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atsedean hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zure erraietatik aterea, eta sendotu egingo dut haren erreinua. Harek etxea eraikiko dio nire izenari, eta Nik sendotu egingo dut haren errege-aulkia betiko. Aita izango nau harek Ni, eta hura seme izango dut Nik.

Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nere aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti".

ERANTZUN-SALMOA

88

**JAUNA, ZURE MAITASUNA
ABESTUKO DUT BETIREN BETI.**

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.
Esan bait duzu: "Maitasuna betiko dut eraiki",
zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Maria Birjina dohatsua
jatorrizko bekatuaren kutsutik garbi gorde bait zenuen
eta graziaz betea egin,
zure Semeari Ama berdingabea emateko.

Berarengan erakusten zenuen Eliza,
Kristoren emaztea,
zimurrik eta errurik gabea
eta guztiz ederra.

Birjina garbi honek eman behar zigun Salbatzailea,
gure bekatuak garbitzen dituen Bildots garbia.
Andre guztien artean berau aukeratu zenuen,
zure herriarentzat laguntzaile izan dadin
eta santutasun betearen ispilu miragarri.

Horregatik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik kantatzen dugula:

Jaunartzeko antifona

Goragarriak esan dituzte zutaz, Maria, zugandik sortu bait da
zuzentasun-eguzkia, Jesu Kristo gure Jainkoa.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren Sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen,
grazia berezi baten bidez;
hartu dugun sakramentu honek
senda ditzala guran bekatu horren zauriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 5 edo 7 or.)

Jaunartzeko antifona

Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gainetara, eta ikus zure
Jaungoikoagandik datorkizun pozaldia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Arimaren janari honek aserik,
otoitzean gatozkizu, Jauna:
erakus iezaiguzu,
sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zerukoei jarraitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

ABENDUKO III IGANDEA**Sarrerako antifona**

Zaudete beti pozik Jaunarengan; berriro diotsuet, zaudete pozik.
Hurbil da Jauna.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, ikusten duzu zure herria,
zure Semearen jaioteguna zintzoki itxaroten;
iguzu, arren,
Eguberritako salbamen miragarriaren zorionera iritsi gaitetzela
eta pozik haundienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Isaias profetaren liburutik 35,1-6a.10

Honela mintzo da Jauna:
Poztuko dira basamortua eta lur agorra,
alaituko basa-lurrak, eta lilia bezala loratuko,
loratuko eta poztuko dira irrintziz jauzika.
Libano bezain zoragarri
eta Karmel eta Sarion bezain eder bihurtuko dira,
ikusiko dute Jaunaren aintza,
gure Jainkoaren edertasuna.
Indar itzazue esku ahulduak,
sendotu belaun kolokak;
esan bihotz-beldurtiei:
'Gora bihotzak! Ez izan beldurrik!
Badator Jaungoikoaren bendekua,
Jaungoikoren saria.
Bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte'.
Orduan itsuen begiak irekiko dira,
eta gorren belarriak zabalduko.
Orduan errenak basauntzak bezala jauzi egingo du,
eta mutuaren mingainak oihi egingo pozez.
Jaunak salbatuak itzuliko dira handik,
Siona itzuliko dira pozez kantari:
aurretik, betiereko poza;
atzetik, poza eta alaitasuna.
Kezka eta negarrek ihes egingo dute.

ALELUIA Poztu zaitetz, Maria, graziaz bete hori: Jauna zurekin;
bedeinkatua zu emakumeen artean. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 1,26-38

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak,
Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Dabiden
etxeko Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen birjina, eta Maria
zuen izena. Aingeruak, haren etxean sartuta, esan zion:

- "Poztu zaitetz, graziaz bete hori: Jauna zurekin".

Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri
zen, zer ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan:

- "Ez izan beldurrik, Maria; Jaungoikoaren ederra aurkitu
duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta Jesus
ezarriko diozu izen. Haundia izango da; Goi-goikoaren Seme
deituko dute; eta Jainko Jaunak Haren aita Dabiden errege-aulkia
emango dio; Jakobena etxean errege izango da beti, eta Haren
erregetzak ez du azkenik izango".

Baina Mariak orduan aingeruari:

- 'Baina nola daiteke hori? Nik ez bait dut ezagutzen gizonik'.

Eta aingeruak:

- "Espiritu Santua jaitsiko da zuregana, eta Goi-goikoaren
indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik zuregandik jaioko
den Santua, Jaungoikoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide
Isabel ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena
seigarren hilabetean aurkitzen da; Jaungoikoarentzat ez bait da
ezer ezinik".

Mariak orduan:

- 'Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun
bezala'.

Orduan aingeruak utzi zuen.

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, Maria Birjinaren Sortze garbia ospatzean
eskaintzen dizugun opari salbagarria; eta bera, zure graziaz,
erru guztietatik garbi egin zenuen bezala,
haren otoitzez, atera gaitzazu gu ere bekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**KANTA JAUNARI KANTU BERRI,
EGIN BAIT DITU HAINBAT HARRIGARRI.**

Kanta Jaunari kantu berri,
egin bait ditu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak.

Ikusi dute lur-muga denek
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eresi.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 1,3-6.11-12

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesukristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez,
zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena.

Harengan aukeratu bait gintuen,
mundua sortu baino lehen,
bere aurrean, maitasunez,

santu eta errugabe izan gaitezen.

Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko,

Jesu Kristoren bidez,

bere nahiaren onberatasunez;

bere Seme maitearengan

hain ugari eman digun graziaren aintzak

Bera gorespenez bete dezan.

Kristorengan oinordeko gertatu gara gu ere; horretara deituak
izan gara, gauza guztiak Berak nahi bezala egiten dituenaren
erabakiz. Eta Kristorengan uste on izan genuenok, Jainkoaren
aintzaren gorespen izango gara.

**SALBATZAILEA, ZATOZ LEHENBAITLEHEN!
ZURE ZAIN, JAUNA, GAUDE GU HEMEN.**

Leiala da betiren beti,
ematen die eskubidea zapaldueri,
ogia, gose direnei.

Atzilotuak Jaunak askatzen ditu,
itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.
Konkor daudenak Jaunak ditu zutierazten,
zintzoak Jaunak ditu maitatzen.

Santiago Apostoluaren epistolatik 5,7-10

Senideok: Izan ezazue iraupen Jaunaren etorrera arte.
Begira nola egoten den nekazaria, lurak dakarren uzta ederraren
zai, goizeuria eta beranteuria itxadoten dituela iraupenez. Izan
ezazue, beraz, zuek ere iraupen; egon sendo, Jaunaren etorrera
hurbil da-eta.

Senideok, ez izan elkarrentzat esparik eta kexarik, epaitu ez
zaitzaten. Begira, epailea ate ondoan dago. Senideok, neke eta
eramanpenetan, har itzazue ikasbide, Jaunaren izenean hitzegin
zuten Profetak.

ALELUIA Jaunaren Espiritua niregan dago,
behartsuei berri ona ematera bidali nau. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 11,2-11

Aldi hartan, Joanek gartzelan Kristoren egiteak entzunik,
bere bi ikasle bidali zizkion galdetzera:

- 'Zu al zara etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar
dugu?'

Jesusek erantzun zien:

- "Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuenak:
itsuek ikusten dute, eta elbarriak ba dabiltza; legenardunak garbi
gelditzen dira, eta gorrek entzuten dute; hildakoak bizten dira, eta
behartsuei berri ona hotsegiten zaie. Eta zorionekoak, Niregandik
erorbide hartzen ez duena".

Haiek aldegitean, Jesus Joanez mintzatzen hasi zitzaion
jendeari:

- “Zer ikustera atera zineten basamortura? Haizeak astintzen duen kainabera bat? Edo-ta zer ikustera atera zineten? Apain jantzitako gizonen bat? Apain jazten direnak, errege-jauregietan egoten dira. Zertara atera zineten, bada? Profetaren bat ikustera? Baietz diotsuet; eta profeta baino gehiago den bat. Horrentzat bait dago idatzirik:

*Begira, hor bidaltzen dut Nik nire mezularia
zure aurretik, zuri bidea prestatzera.*

Egi-egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik inor, Joan Bataiatzailea baino haundiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino haundiago da”.

Oparigaien otoitza

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure eskaintzak,
eta bete ezazu guregan, sakramentu honen bidez,
zure salbamen-egintza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 5-8 or.)

Jaunartzeko antifona

Bihotz-beldurtiok, gora bihotzak! Ez izan beldurrik! Gure Jainkoa etorriko da eta salbatuko gaitu.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure ohitura txarretatik,
eta datozkigun jaietarako presta gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA (abendua 8)

Sarrerako antifona

Pozez beterik nauka Jaunak, nere anima Jainkoarekin alai daukat; osasun-soinekoz jantzi nau, garaipen-estalkiz apaindu, edergailuz apaintzen den andregia bezala.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, Maria Birjinaren Sortze garbiaz,
egoitza egokia prestatu zenion zure Semeari,
eta Semearen heriotzatik zetorren graziari esker,
pekatu guztietatik garbi gorde zenuen Ama;
egizu, Andre Mariaren otoitzez,
gu Zugana garbi iritsi gaitzezela.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Genesis liburutik

3,9-15.20

Jaungoiko Jaunak, gizonari dei egin eta honela esan zion: “Nun zara?” Eta harek erantzun: ‘Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larru-gorri nengoelako, beldurrez, gorde egin naiz’. Jaunak orduan: “Eta nork esan dizu, larru-gorri zeundela? Jatea galerazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?” Gizonak erantzun: ‘Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan’. Orduan Jaungoiko Jaunak esan zion emakumeari. “Zer egin duzu?” Emakumeak erantzun: ‘Sugeak atzipetu nau, eta nik jan’.

Orduan Jaungoiko Jaunak sugeari esan zion:

“Hori egin duzulako,
madarikatua izango zara
abere guztien eta landako pizti guztien artean;
sabel-gainean ibiliko zara narraztaka;
zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu.
Haserrea sortuko dut
zure eta emakumearen artean,
zure jatorriaren eta harenaren artean;
honek buruan emango dizu,
zuk orpotik helduko diozunean”.

Gizonak emazteari ‘Eba’ ezarri zion izen, bizidun guztien ama delako.

Jaunartze antifona

Gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta berehala odola eta ura atera ziren.

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure maitasunaren sakramentu honek,
Jauna, maitasun garra eman diezaigula,
Kristorekin gero eta gehiago bat izan gaitezen
eta gure senideetan Bera ikusten ikas dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

ABENDUKO IV IGANDEA**Sarrerako antifona**

Ihantz egizue goitik, zeruok! Isur ezazue zuzenbidea; leher bedi lurra, eta eman beza Salbatzailea.

Kolekta otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zure grazia;
eta, aingeruak esanik,
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunoi,
iguzu, Haren nekaldi eta gurutzearen bidez,
iritsi gaitzela biztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Isaias profetaren liburutik 7,10-14

Egun haietan, Jaunak honela hitzegin zion Akaz-i:

- "Eska iezaiozu Jaunari, zure Jaungoikoari, ezaugarri bat zuretzat, nahiz lurraren barrenean, nahiz zeruen goienean".

Eta Akazek:

- 'Ez diot eskatuko, ez dut tentatuko Jauna'.

Orduan Isaiasek:

- "Entzun, Dabiden etxe: Gutxi derizkiozue gizonentzat aspergarri izateari? Jaungoikoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izen, hau da: 'Jaungoikoa gurekin'".

ERANTZUN-SALMOA 23**JAUNA, ZURE ONGINAHIA ERAKUS IEZAIGUZU,
ZURE SALBAMENA EMAIGUZU.**

Jaunaren mendira nor igoko?
Haren toki santuan nor egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituena,
huskerietara jotzen ez duena.

Holakoak hartuko du bedeinkapena Jaunagandik,
zuzentasuna, salbatzaile duen Jainkoagandik.
Hau da Haren bila dabilzanen taldea,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila dabilzanena.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 1,1-7

Paulo, Jesu Kristoren serbitzaria, apostolu izateko deitua, Jaungoikoaren Ebanjeliorako berezia; Ebanjelio hori Liburu Santuetan Profeten ahoz agindua zegoen, eta Jaungoikoaren Semeari dagokio, Jesu Kristo gure Jaunari: haragiz Dabidengandik jaoia, eta Espiritu Santuak Jaungoikoaren Seme ezarria; ahalmen guztiak hartu ditu Honek, hilen artetik biztu denez gero.

Harengandik hartu genuen guk grazia hau eta eginkizun hau: jentil guztiak sinemenera ekartzea, Haren izenaren aintzarako; haietakoak zarete zuek ere, Jesu Kristok deituak.

Grazia, beraz, eta bakea zuei, Jaungoiko gure Aitarengandik eta Jesu Kristo gure Jaunarengandik, Erroman zaudeten Jaungoikoaren maite guztioi, bere herri santuko izatera deitui.

ALELUIA Begira, Birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emmanuel ezarriko diote izen, hau da: 'Jainkoa-gurekin'.
ALELUIA!

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 1,18-24

Jesu Kristoren jaiotza honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa bait zen, eta ez bait zuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilkiela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion:

- "Dabiden seme, Jose: ez izan beldurrik, Maria, zure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra, Espiritu Santuarengandik bait dator. Semea izango du, eta zuk 'Jesus' ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko bait du bere herria bekatuetatik".

Guzti hau gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin: *Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta 'Emmanuel' ezarriko diote izen*, hau da: 'Jainkoa-gurekin'.

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 11,25-30

Aldi hartan, Jesusek honela esan zuen:

- "Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari erakutsi bait dizkiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu.

Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik.

Zatozte Niregana nekatuok, lanpetuok; eta Nik arinduko zaitzuet. Har ezazue nire uztarria eta ikas Niregandik: bihotzbera naiz eta apala; eta aurkituko duzue zuen arimentzat atsedan. Nire uztarria leuna bait da, eta nire zama arina".

Oparigaien otoitza

Begira, Jauna,
zeure Semearen Bihotzeko maitasunari,
gure eskaintza Zuretzat atsegingarri izan dadin
eta guretzat bekatuen ordaingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
Berak, maitasun harrigarriak eraginik,
gurutzera jaso zutenean,
bere burua guretzat eskaini bait zuen,
eta bere saihets irekitik odola eta ura isuri zituen,
handik sor zitezen Elizaren sakramentuak,
eta gizon-emakume guztiek,
Salbatzailearen Bihotz irekiarengana bildurik,
poza edan zezaten salbamenaren iturritik.
Horregatik, santu eta aingeru guztiekin
goresten zaitugu,
beti eta beti abesten dizugula:

ERANTZUN-SALMOA**102****JAUNAREN MAITASUNA BETIDANIK BETIDAINO
BELDUR DIOTENENTZAT.**

Ene arima, goretsazu Jauna,
ene barren osoak haren izen deuna.

Ene arima, goretsazu Jauna,
eta ez ahaztu Hark zuri egina.

Errukior da Jauna eta kupibera,
berant-haserre eta guztiz onbera.

Ez dihardu gurekin gure hobenen neurrira,
ez digu ordaintzen gure erruen harira.

San Joanen epistolatik**1 Jn. 4, 7-16**

Senide maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jaungoikoagandik bait dator, eta maite duen guztia Jaungoikoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jaungoikoa maitasuna bait da.

Jaungoikoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jaungoikoak bere Seme bakarria bidali zuela lurrera, gu Haren bidez bizi gaitezen. Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu: ez guk Jainkoa maite izan dugulako, baizik Harek gu maite izan gaituelako, eta bere Semea gure bekatuen bake-opari bidali zuelako.

Senide maiteok, Jaungoikoak gu hain maite izan bagaitu, guk ere elkar maitatu behar dugu. Jaungoikoa ez du inork inoiz ikusi. Elkar maite badugu, Jaungoikoa gurekin dago, eta Haren maitasuna bere betera iritsi da gure artean; honetan ikusten dugu Berarekin gaudela eta Bera gurekin: bere Espiritutik eman bait digu. Guk ikusi dugu eta aitortzen, Aitak bere Semea bidali zuela munduaren Salbatzaile. Norbaitek aitortzen badu Jesus Jaungoikoaren Semea dela, Jaungoikoa harekin dago, eta bera Jaungoikoarekin. Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jaungoikoak digun maitasuna. Jaungoikoa maitasuna da; maitasunean dagoena Jainkoarekin dago eta Jainkoa harekin.

ALELUIA Har ezazue nere uztarrria eta ikasi Nigandik,
Bihotzbera naiz eta apala. **ALELUIA!**

Oparigaien otoitza

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez bete zuen Espirituak
santu egin bitza
zure aldarean jarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 6 edo 8 or.)

Jaunartzeko antifona

Begira: Birjina haurdun dago, eta semea izango du; eta Emmanuel ipiniko dio izen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Betiereko erospenaren agiria harturik,
eskatzen dizugu, Jainko ahalguztiduna:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jai,
hainbat eta gartsuago presta gaitezela
zure Semearen jaioteguna ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

JAUNAREN JAIOTZA

Bezperako Eukaristia

Sarrerako antifona

Gaur jakingo duzue Jauna ba datorrela gu salbatzera, eta bihar ikusiko duzue Haren aintza.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, urtero pozten gaituzu
gure erospenaren itxaropenaz;
iguzu, salbatzaile bezala
pozik hartzen dugun zure Seme maitea,
beldurrik gabe ikus dezagula,
epaile bezala etorriko denean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi bait da
gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Isaias profetaren liburutik Is, 62,1-5

Sionen maitez ez naiz isilduko,
Jerusalenen maitez ez naiz geldi egongo;
Haren zuzentasuna ditzira bezala argituko den arte,
Haren salbamina zuzia bezala piztuko den arte.
Ikusiko dute herriek zure zuzentasuna,
erregeek zure ospea;
izen berria ezarriko zaizu,
Jaunaren ahoak emana.
Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan,
errege-burestun zure Jainkoaren eskuan.
Ez dizute berriz deituko 'Utzia',
ezta zure lurraldeari ere 'Hondamendia'.
"Nire atsegina" deituko dizute zuri,
eta "Senarduna" zure lurraldeari.
Atsegin izango baitu zuregan Jaunak,
eta senarduna izango da zure lurraldea.
Mutil gaztea neskatzarekin ezkontzen den bezala,
zure eraikilea zurekin ezkonduko da;
senarrak emaztearekin hartzen duen poza,
zurekin hartuko du zure Jainkoak.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA

(Gorputz ondorengo ostiralean)

Sarrerako antifona

Jaunaren bihotzeko asmoak ba diraute betieran, Haren fededunak heriotzatik aterako ditu eta gosetean aseko.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztiduna,
zure Seme maitearen Bihotza goستن dugula,
zure maitasunaren dohain miragarriak ospatzen ditugu;
iguzu, jainko-iturri horretatik har dezagula
gainezka darion grazia.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Deuteronomio liburutik 7,6-11

Egun haietan, Moisesek honela hitzegin zion herriari:
- 'Herri santu zara zu Jaunarentzat, zure Jainkoarentzat;
bere herri izan zaitezen aukeratu zaitu Berak, lurraren gainean
diren herri guztien artean.
Jaunak ez zaituzte maitatu eta aukeratu, beste herriak baino
haundiago zaretelako; izan ere, herri txikiena zarete. Bestela baizik:
maite zaituztelako, eta zuen gurasoei zin eginez emandako hitza
bete nahi izan duelako atera zaituzte Jaunak esku indartsuz, eta
askatu morrontza-etxetik, Ejiptoko errege Faraonen menpetik.
Jakin ezazu, beraz, Jauna, zure Jaungoikoa, dela egiazko
Jainkoa, Jainko leiala; bere elkargoari eta errukiari mila gizalditan
barrena eusten diona, Hura maite dutenentzat eta Haren aginduak
gordetzen dituztenentzat; baina, gorroto diotenentzat zigorra dauka,
haiek zigortzeko; horrelakoak hondatu egiten ditu, berandutu gabe,
eta beren bizkarrean zigortzen.
Gorde itzazu, beraz, aginduak, eta Nik gaur ematen
dizkizudan legeak eta arauak'.

Oparigaien otoitza

Emaizkiozu. Jauna, zure Elizari batasuna eta bakea,
 hori adierazten bait dute
 ekarri dizkizugun eskaintza hauek.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

(Prefazioa Eukaristiarena 37-38 or.)

Jaunartzeko antifona

Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, Nigan dago
 eta Ni harengan, -dio Jaunak.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jesu Jauna, zeruko mahaiaren agiria eman diguzu
 orain hartu ditugun zure gorputz-odoletan;
 eraman gaitzazu, arren,
 zure jainkotasuna bete-betean goatzera.
 Errege bizi bait zara gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

ERANTZUN-SALMOA

88

**JAUNA, ZURE MAITASUNA ABESTUKO DUT
BETIREN BETI**

Elkargo egin dut neure hautatuarekin
 Dabid neure morroiari egin nion zin:
 “Betiko sendotuko dut zure hazia,
 menderen mende eraikiko zure aulkia”.

Berak deituko nau: ‘Zu zaitut Aita,
 ene Jainko, nere salbamenaren Harkaitza’.
 Gordeko diot beti neure maitasuna,
 zintzo edukiko egin nion ituna.

Apostoluen Eginetatik Ap Eg 13,16-17.22-25

Egun haietan, Paulo Pisidiako Antiokiara iritsi zenean, hango
 sinagogan zutiturik eta isiltzeko keinu eginda, honela hitz egin zien:
 - ‘Israeldarrok eta Jainkoaren beldur zaretenok, entzun: Israel-
 herri honen Jainkoak gure aurrekoak aukeratu zituen, eta herria
 ugaritu zuen, Ejipton arrotz zirelarik, eta bere besoaren indar
 haundiaz atera zituen handik.

Hau kenduta, Dabid eman zien errege, harentzat aitormen hau
 eginez: “Aurkitu dut Dabid, Jeseren semea, nere gogoko gizona,
 nere agindu guztiak beteko dituena”.

Hitz emana zeukanez, honen hazitik atera zion Jainkoak
 Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joanek bihotz-
 berritzeko bataioa hots egin zion Israel-herri osoari. Eta bere bizia
 bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: ‘Ez naiz ni, zuek uste
 duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor Haren
 oinetakoak askatzeko ere”.

ALELUIA Bihar ezereztua izango da
 lurraren gaiztakeria. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 1,18-25

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa bait zen, eta ez bait zuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilkiela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion:

- "Dabiden seme, Jose: ez izan beldurrik, Maria, zure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra, Espiritu Santuarengandik bait dator. Semea izango du, eta zuk 'Jesus' ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko bait du bere herria bekatuetatik".

Guzti hau gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin:

Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du eta 'Emmanuel' ezarriko diote izen, hau da, 'Jaungoikoa gurekin'.

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea. Eta elkarrekin harremanik izan gabe, Mariak semea izan zuen. Eta Josek Jesus ezarri zion izen.

Oparigaien otoitza

Zure Semearen jaiotzan, Jauna,
gure salbamenaren hasiera eman diguzu;
iguzu, misterio santu hauek
maitasunik haundienaz ospa ditzagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Jaunaren aintza agertuko da, eta gizaki guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren salbamina.

Jaunartze ondorengo otoitza

Sakramentu honetan jan-edari santuak
eman dizkiguzu, Jauna;
zure Semearen jaiotza ospatuz,
indarberri gaitzezela.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Zure mugetan bakea ezarri bait du,
gari-mamiz ase zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere mintzoa,
eta Haren hitza bizkor eta arin dihoa.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

1 Ko 10,16-17

Senideok: Bedeinkatzen dugun esker onezko kalizak, ez al gaitu guztiok Kristoren odolean elkartzeko? Eta zatitzen dugun ogiak, ez al gaitu guztiok Kristoren gorputzean bat egiten? Ogia bat denez gero, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen bait dugu guztiok.

ALELUIA Ni naiz ogi bizia, zerutik jaitsia -dio Jaunak-;

Ogi honetatik jaten duena betirako biziko da. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik

6,51-58

Aldi hartan honela esan ziion Jesusek jende taldeari:

- "Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betirako biziko da; eta Nik emango dudana ogia nere haragia da munduaren bizirako".

Judutarrak eztabaidan ari ziren:

- 'Nola eman diezaiguke Honek jatera bere haragia?'

Eta Jesusek:

- "Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta Haren odola edaten, ez duzue bizirik zuengan. Nere haragia jaten duenak eta nere odola edaten, ba du betiko bizia, eta Nik biztuko dut hura azken egunean. Nere haragia egiazko janaria da; eta nere odola egiazko edaria. Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, Neregan dago eta Ni harengan. Bizi den Aitak bidali nau, eta Ni Aitarengandik bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, Neregandik biziko da. Hau da zerutik jaitsitako ogia; ez zuen gurasoena bezalakoa; jan eta hil egin bait ziren. Ogi honetatik jaten duena betirako biziko da".

KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

Sarrerako antifona

Gari-mamiz janaritu zituen Jaunak, eta harkaitzeko eztiz ase.

Kolekta otoitza

Jesu Kristo gure Jauna,
sakramentu harrigarri honetan
zeure nekaldiaren oroigarria utzi diguzu;
iguzu, arren, zure gorputz-odolen misterioa
begirune osoz gores dezagula,
zure erospenaren ondorenak gudan suma ditzagun beti.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean errege bizi bait
zara gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Deuteronomio liburutik 8,2-3.14b-16a

Moisesek honela hitzegin zion herriari:

- 'Gogora ezazu, basamortuan barrena berrogei urtez
Jaunak, zure Jaungoikoak, eginarazi dizun bidea. Zu apaltzeko eta
aztertzeko izan da, eta zure bihotz-ondoa ezagutzeko: Haren
aginduak betetzen ote dituzun ala ez.

Berak apaldu zintuen, eta goseak euki; eta gero, ez zuk, ez
zure gurasoek, ezagutu ez zuten mana eman zizun jateko; ikas
dezazun, gizona ez dela ogiz bakarrik bizi, Jaungoikoaren ahotik
ateratzen den hitz guztitik baizik.

Ez ahaztu, Ejiptoko lurretik, morrontza-etxetik, atera zintuen
Jauna, zure Jaungoikoa. Harek eraman zintuen, pozoidun sugez
eta arrobioz betetako basamortu beldurgarrian barrena; lur lehor eta
urik gabean, Hark atera zuen su-harrizko harkaitzetik ura zuretzat.
Hark eman zizun jateko basamortuan, zure gurasoek ezagutu ez
zuten mana'.

ERANTZUN-SALMOA 147

O JERUSALEN, ZURE JAUNARI KANTUZ EKIN.

Jerusalen, ospa ezazu Jauna,
Sion, goretsazu zeure Jainkoa.
Zure ateen sarrailak indartu bait ditu,
zure seme-alabak zure barnean bedeinkatu ditu.

JAUNAREN JAIOTZA

Gauerdiko Eukaristia

Sarrerako antifona

Poztu gaitezen guztiok Jaunagan, gure Salbatzailea jaio bait da
munduan. Gaur zerutik egiazko bakea jaitsi zaigu.

Kolekta otoitza

Egiazko argia den Kristoren jaiotzaz
argitzen duzu, Jauna, gau santu hau;
iguzu, lurrean argi honen ditzirak ezagutu ditugunok
zeruan Haren aintzaren ederra goza dezagula.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi bait da
gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Isaias Profetaren liburutik 9,2-4.6-7

Ilunpetan zebilen herriak
argi haundi bat ikusi zuen;
herio-itzalean bizi zirenak
diztira batek argitu zituen.
Gehitu zenuen poza
eta handitu atsegina;
pozetan dabilta zure aurrean,
igitai-aroan den pozez,
harrapakinak banatzerakoan izaten den atseginez.
Puskatu baituzu
haren uztarri astuna, haren bizkar-makila,
eta zapaltzailearen zigorra,
Madiango egun hartan bezala.
Haur bat jaio bait zaigu,
seme bat eman zaigu;
aginpidea sorbaldan darاما;
eta haren izena:
Kontsejatzaiile harrigarri, Jaungoiko indartsu,
betiko Aita, Bake-errege.
Bere erregetza zabal dezan,
amairik gabeko bakea ezarriz;
Dabiden aulkian eta bere herrian.
Sendotu eta indartu dezan,
zintzotasunez eta zuzentasunez,

gaurdanik eta betiraino.
Diren guztien Jaunaren maite-minak
egingo du hau.

ERANTZUN-SALMOA 95

SALBATZAILE BAT JAIO ZAIGU GAUR: MESIAS, JAUNA.

Kanta Jaunari kantu berri,
kanta, lur osoa, Jaunari.
kanta Jaunari, bedeinka Haren izena,
iragarri egunez egun Harengandiko salbamera.

Poztu bitez basoko zuhaitzak
Jaunaren aurrean, badatorrelako,
lurra epaitzera datorrelako.
Zuzenbidez epaituko du lurbira,
eta leialtasunez herriak.

San Paulo Apostoluak Titori 2,11-14

Agertu zaigu Jaungoikoaren grazia, gizon-emakume guztion salbamenerako. Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, zuzentasunez, eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen erakusten digula; zorioneko itxaropenari begira, Jesu Kristo gure Salbatzaile eta Jaungoiko haundiaren agertze ospetsua itxaroten dugula. Harek gugatik eman zuen bere burua, gu gaiztakeria guztietatik ateratzeko eta bere herri garbi eta egintza onen zale egiteko.

ALELUIA Poz handi baten berri ona dakarkizuet:
Salbatzaile bat jaio zaizue gaur:
Mesias, Jauna. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 2,1-14

Egun haietan, mundu guztiaren izenak hartzeko agindua atara zen Zesar Augustorengandik. Hau izan zen Kirino Sirian buruzagi zelarik egindako lehenengo izen-hartzea. Eta denak izen ematera zihoazen, bakoitza bere herrira. Jose ere, Dabiden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaretetik Judeara igo zen, Belen deritzan Dabiden herrira, han, bere emazte Maria haurdunarekin, izen ematera.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.
Zu, Aita,
zeure Seme bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin,
Jainko bakarra zara, Jaun bakarra;
ez pertsona bakarra,
baizik izate batean hiru pertsona.
Eta, Zuk erakutsirik,
zure aintzaz sinesten duguna bera,
ezeren alderik gabe, aitortzen dugu,
bai zure Semeaz, bai Espiritu Santuaz.
Honela, egiazko eta betiko Jaungoiko aitortzen zaitugula,
aldi berean hiru pertsona gurtzen ditugu,
hiruak izate berekoak
eta haunditasun berdina dutenak.
Zu zaituzte goersten aingeruek eta goi-aingeruek,
baita zeruko talde guztiek ere,
beti eta beti bihotz batez kantari:

Jaunartzeko antifona

Seme-alaba zaretelako, bere Semearen Espiritua bidali du
Jaungoikoak zuen bihotzetara, "Abba! Aita!" deika ari dena.

Jaunartze ondorengo otoiitza

Jaungoiko gure Jauna,
betiereko Hirutasun santua eta Haren batasun
hautsi-ezina aitortu ditugu;
iguzu, hartu dugun sakramentu honetan
aurki dezagula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei 2 Ko 13,11-13

Senideok: Poztu zaitzete; saia zaitzete onak izaten; gora zuen bihotzak; izan iritzi bereko, eta bizi bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jaungoikoa zuekin izango da.

Agur egiozue elkarri, musu santua emanaz. Kristau guztiek agurtzen zaituzte.

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jaungoikoaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuek guztiokin.

ALELUIA Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari;
Baden, bazen eta badatorren Jaungoikoari. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 3,16-18

Aldi hartan honela esan zion Jesusek Nikodemori:

- "Hain maite izan bait du Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra eman dio; Hari sinesten dionik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan.

Jaungoikoak ez bait du bere Semea, mundua galtzera bidali; baizik Haren bitartez mundua salba dadin. Hari sinesten dionak, ez du auzirik izango; sinesten ez dionarentzat, berriz, erabakia dago auzia, Jaungoikoaren seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako".

Oparigaien otoitza

Zure izen santuari dei egiten diogu, Jauna;
santu egizu gure eskaintza hau,
eta gu ere egin gaitzazu Zuretzat
betiko opari eder.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Han zeudelarik, haurra izateko egunak bete zitzaizkion Mariari. Eta bere lehen semea izan zuen eta, oihaletan bildurik, ganbela batetan etzan zuen; ez bait zen ostatuan haienzako lekurik.

Ba ziren inguru hartan artzain batzuk, mendian gaua igaroz, beren artaldeak txandaka zaintzen zituztenak. Honetan, Jaungoikoaren aingeru bat agertu zitzaien; Jaungoikoaren aintzak argiz inguratu zituen, eta beldurak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien:

- "Ez izan beldurrik; begira, poz haundi baten berri ona dakarkizuet, herri guztiarentzat izango dena: salbatzaile bat jaio zaizue gaur Dabiden herrian: Mesias, Jauna. Honetan ezagutuko duzue: oihaletan bildurik eta ganbelan etzanik aurkituko duzue haurra".

Eta bat-batean aingeruari zerutar talde bat bildu zitzaion, Jaungoikoa goresten zutela, esanez:

- "Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Haren gogoko gizonei".

Oparigaien otoitza

Atsegin bekizkizu, Jauna,
gau santu honetako gure dohain hauek;
eta ospakizun honetan izango ditugun hartuemanen bidez,
zure Semearen antzeko egin gaitzazu,
Bera gure antzeko egin den bezala.
Errege bizi bait da... AMEN.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Hitza aragi egin zen, eta geuk ikusi dugu Haren aintza.

Jaunartze ondorengo otoitza

Pozez gainezka ospatzen dugu, Jauna,
Kristo gure Salbatzailearen jaiotza;
emaiguzu, orain santuki bizitzea,
eta egunen batean Kristorekin bat egitea.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan AMEN.

JAUNAREN JAIOTZA
Goizeko Eukaristia

Sarrerako antifona

Gaur argi batek ditziratuko du gure gainean, Jauna jaio bait zaigu; eta Haren izena: Harrigarri, Jainko, Bake-errege, eta betiko Aita; eta Haren erregetzak ez du azkenik izango.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztiduna,
gizon egin den zure Hitzaren argi berriak
betetzen gaitu;
iguzu, gure bihotzetan argi egiten duen fede honek,
gure egintzetan ere ditzira egin dezala.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Isaias Profetaren liburutik 62,11-12

Horra, Jaunak azken-mugetaraino adierazi duena:
"Esan Siongo hiriari: Badatorkizu zure Salbatzailea;
Berekin dakar bere saria;
eta bere aurretik, irabazia.
'Herri santu' deituko diete,
'Jaunak askatuak; eta zuri, 'Herri maitagarri',
'Herri ez utzia' deituko dizute".

ERANTZUN-SALMOA 96

**ARGI BATEK ARGITUKO GAITU GAUR,
JAUNA JAI O BAIT ZAIGU.**

Errege da Jauna, alai bedi lurbira!
Poztu bitez uharte guztiak!
Adierazten du ortziak haren zuzentasuna,
herri guztiak dakuste haren edertasuna.

Argia sortu zaio zintzoari,
alaitasuna bihotz-zuzenari.
Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunarengan,
ospa ezazue haren izen santua.

HIRUTASUN SANTUA

Sarrerako antifona

Bedeinkatua izan bedi Jaungoiko Aita, eta Haren Seme bakarra, eta Espiritu Santua; haundia izan bait da guretzat bere errukia.

Kolekta otoitza

Jainko Aita,
egiaren Hitz eta santutasunaren Espiritua mundura bidaliz,
zure misterio miragarria agertu zenigun gizon-emakumeoi;
emaiguzu, egiazko sinesmena aitortzen dugunoi,
betiereko Hirutasunaren aintza ezagutzea
eta Haren batasun ahalguztiduna gurtzea.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Exodo liburutik 34,4b-6.8-9

Egun haietan, Moises, goizean goiz, Sinai-mendira igo zen,
Jaunak agindu zion bezala, bi harlosa eskuetan zeramazkiela.

Jaitsi zen hodeian Jauna, eta han gelditu zen harekin, eta
Moisesek Jaunaren izenari dei egin zion. Eta Jaunak, aurretik
igarotzean, honela oihu egin zuen:

- "Jauna, Jauna, Jaungoiko errukitsu eta bihotz-bera,
haserrerako nagi, errukian aberats eta leial".

Moisesek, berehala lurreraino makurturik, ahuspez gurtu
zuen, esanez:

- 'Jauna, zure begietan ederra aurkitu baldin badut, ibil
zaitez gure artean, herri hau lepa-gogorra bada ere; barka gure
gaiztakeriak eta bekatuak, eta har gaitzazu Zeuretzat'.

ERANTZUN-SALMOA Dn 3,52-56

AIN TZA ETA GORESPEN ZURI GIZALDIETAN!

Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa. **R/**
Bedeinkatua Zure izen santu eta aintzagarria: **R/**
Bedeinkatua Zu jauretze santu eta aintzagarria: **R/**
Bedeinkatua Zu zure erreinuko aulkian: **R/**
Bedeinkatua Zu, kerubin gainean eseriz
leizeak ikusten dituzuna: **R/**
Bedeinkatua Zu zeru-sapaian. **R/**

Oparigaien otoitza

Jainko Jauna,
 Espiritu Santuak argiago ager dezaigula
 opari honen misterioa,
 zure Semeak agindu zigun bezala;
 eta eraman gaitzala
 Hark erakutsitako egia bete-beteaz ezagutzera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
 nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.
 Pazko-misterioa bere betera eraman nahirik,
 Espiritu Santua bidali zenuen gaurko egunez
 Kristorengan zure seme-alaba egindakoen gainera;
 Espiritu hori izan zuen Elizak bere arima sortze-egunetik;
 Espiritu horrek ekarri zituen herri guztiak Jainkoa ezagutzera;
 Espiritu berak elkartu zituen, fede beraren aitormenean,
 bekatuak hizkuntza ezberdinetan banatutakoak.
 Horregatik, pazko-pozez gainezka daude
 gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
 Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
 horregatik dute beti
 zure aintzaren gorespina kantatzen:

Jaunartzeko antifona

Guztiak Espiritu Santuaz bete ziren, eta Jaungoikoaren
 mirariak adierazten zituzten. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko Jauna,
 Zuk ematen dizkiozu Elizari zeruko dohainak;
 zaindu ezazu berarengan Zeuk eman diozun grazia;
 Espiritu Santuak indar gaitzala beti,
 eta hartu dugun Eukaristiak eraman gaitzala
 salbamenaren betera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

San Paulo Apostoluak Titori 3,4-7

Jaungoiko gure Salbatzailearen bihotz ona eta gizonenganako
 onginahia agertu zaigunean, salbatu egin gaitu, ez guk egindako
 zuzenbidezko egintzengatik, baizik bere errukiagatik; Espiritu
 Santua dohain ematen duen jaiotza berriaren garbaldiz eta zahar-
 berritzez; Espiritu hori oparo eman baitigu Jaungoikoak, Jesu Kristo
 gure Salbatzailearen bitartez. Horrela, onginahia hutsez Jainkoak
 zuzen egiten gaituelarik, itxaropenez betiko bizitzaren oinordeko
 egin gara.

ALELUIA Aintza zeruetan Jaungoikoari
 eta bakea lurrean Haren gogoko gizoni. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 2,15-20

Aingeruak joan zirenean, artzainek honela zioten elkarri:
 - 'Goazen Belena, eta ikus dezagun Jaunak jakin erazi digun
 gertakari hau'.

Lasterka joan ziren, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose,
 eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakin erazi zuten, haur
 hartaz esan zitzaizena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren,
 artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen
 zituen gauza guzti hauek, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak
 Jaungoikoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi
 zutenarengatik.

Oparigaien otoitza

Gure eskaintzak, Jauna, izan bitez
 Eguberriko misterioaren neurrikoak;
 zure Semeak, gizon eginik,
 Jainko ikustezinaren berri eman digun bezala,
 lurreko gure dohain hauek
 jainkozko ondasunak eman diezaizkigula.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Poztu zaitetz, Siongo alaba; kanta ezazu, Jerusalemgo alaba: hor datorkizu zure erregea, santua eta salbatzailea.

Jaunartze ondorengo otoitza

Poz haundiz ospatzen dugu, Jauna, zure Semearen jaiotza; emaguzu, misterio honen bihotza fede santuz ezagutzea eta gero eta maitasun haundiagoz maitatzea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

SEKUENTZIA

- | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Zatoz, bai, Gogo Guren, eta bidal zerutik zure argi izpia. Zatoz, gaisoen aita, zatoz, dohain emaile zatoz, bihotzen argi.</p> <p>3. Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure laguntza gabe ez du gizonak ezer, ez du ezer on denik.</p> | <p>2. Poz-emaile bikaina etxelagun atsegin, sargorian haize pin. Lan artean atseden, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.</p> <p>4. Garbi, zikin dagoena, busti, lehor dagoena, zauriak oro senda. Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
- 5.** Zugaron uste on duten zintzoeri isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo-saria eman, osasun hil artean, poza betierean. Amen. Aleluia.

ALELUIA Zatoz, Espiritu Santu!
Bete itzazu zure fededunen bihotzak,
eta biztu haiengan zure maitesua. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 20,19-23

Astearen lehenengo eguneko ilunabarrean, etxe batetan bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, judutarren beldurrez. Sartu zen Jesus eta, haien erdian zutik, esan zien:

- "Bakea zuekin".

Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Eta ikasleak pozez beterik gelditu ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro:

- "Bakea zuekin. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik ere bidaltzen zaituztet zuek".

Eta hori esanez, haizeman zuen haien gainera, eta esan zien:

- "Har ezazue Espiritu Santua: zuek barkatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatuak gelditzen zaizkie; eta lotzen dizkiezuenei, lotuak gelditzen zaizkie".

ERANTZUN-SALMOA 103**ZURE ARNESA BIDAL GUGANA,
TA LUR-AZALA BERRITU, JAUNA.**

Ene arima, goretsazu Jauna!
Gutziz haundi zaitut, Jauna, ene Jainkoa!
Bai ugari direla, Jauna, Zuk eginak,
zuhurtasunez eginak zeharo,
lurra zure sorkariz betea dago!

Aurpegia gordetzen baduzu, ikara dira,
arnasa kentzen badiezu, hiltzen,
beren hautsetara bihurtzen.
Zure arnasa bidaltzen baduzu,
izatea ematen diezu;
lur-azala berriarazten duzu.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Ko 12,3-7;12-13

Senideok: Ezin dezake inork esan: 'Jauna da Jesus!' Espiritu Santuak eraginez izan ezik.

Era askotakoak dira dohainak, baina bat-bera Espiritua; era askotakoak serbitzuak, baina bat-bera Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat-bera guztiengan dena egiten duen Jaungoikoa. Bakoitzari guztien onerako ematen zaio Espirituaren agerpena.

Gorputza bat izanik ere, atal asko dituen bezala, eta gorputzeko atal guztiak, asko izanik ere, gorputz bat diren bezala, berdin Kristo ere. Gu guztiok –judutar nahiz greziar, menpeko nahiz askatu– Espiritu berberarengan bataiatuak izan gara, gorputz bat bakarra izateko. Eta guztiok Espiritu bakarretik edan dugu.

JAUNAREN JAIOTZA

Eguneko Eukaristia

Sarrerako antifona

Haur bat jaio zaigu, seme bat eman zaigu; aginpidea sorbaldan darama; eta honen izena: Kontsejatzaille miragarri.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, miragarriak egin dituzu,
gizona zeure antzeko eginez,
eta miragarriagoak,
Kristoren bidez hura goi mailara goratuz;
iguzu, gizatasunean gurekin bat egin den zure Semeak,
bat egin gaitzala Berarekin jainkotasunean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi bait da
gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Isaias profetaren liburutik 52,7-10

Bai ederrak direla mendi gainetan,
bakea hots egiten duen mezulariaren oinak!
Berri ona zabaltzen
eta salbamena iragartzen dabilenarenak!
Sioni 'gure Jainkoa errege da'
esaten dionarenak!
Entzun: zure zaintzaileak oihuka ari dira,
irrintzika, guztiak batera;
aurrez aurre ikusten bait dute Jauna,
berriro Siona datorrela.
Ekin kantari, guztiok batera,
Jerusalengo horma zahar eroriok;
poztu bait du Jaunak bere herria;
eta berrerosi du Jerusalem.
Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak
bere beso santuaren indarra;
eta lurberaren bazter guztiek ikusiko dute
gure Jaungoikoaren salbamena.

**IKUSI DUTE LUR MUGA DENEK
GURE JAINKOAGANDIKO GARAIPENA.**

Kanta Jaunari kantu berri,
egin bait ditu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak.

Ezaguterazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
On eta leial izan dela gogoratu du,
Israel etxeari buruz.

Hebertarrei egindako epistolatik 1,1-6

Askotan eta era askotara hitz egin zien Jaungoikoak Profeten bidez aspalditik gure arbasoei; eta azkenak diren egun hauetan, Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko; eta Beraren bidez egin zuen mundua ere.

Bera da, Aitaren aintzaren argi dizdiratsu eta Haren izatearen irudi. Berak eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuz. Eta bekatuaren garbikuntza egin ondoren, goienean Guztiz Haundiaren eskuin-aldean jarririk dago; zenbat eta aingeruek baino goragoko izena jaso duen, hainbat eta haiek baino gorago jarria.

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz: *"Nere Seme zara Zu; Nik zaitut gaur Zu sortu?"* eta beste behin: *"Aita izango nau Harek Ni, eta Hura Seme izango dut Nik?"*

Eta beste behin, bere Semea munduan sartzerakoan, honela dio: *"Gur bezate Jaungoikoaren aingeru guztiek"*.

ALELUIA Egun santu bat zabaldu zaigu:
zatozte, herriak; gurtu ezazue Jauna;
argi haundi bat jaitsi da gaur lurrera. **ALELUIA!**

Sarrerako antifona

Jaunaren Espirituak beterik dauka lurra; eta guztia batean daukanak ba du mintzo guztien berri. Aleluia.

Kolekta otoitza

Pentekoste-misterioaren bidez, Jauna,
herri eta jendalde guztietan santutzen duzu zeure Eliza;
isur itzazu Espiritu Santuaren dohainak
mundu zabalaren gainera,
eta berri ezazu orain fededunen bihotzetan,
Ebanjelio-zabaltzearen hasieran
errukiz egin zenituen mirariak.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetarik 2,1-11

Iritsi zen Pentekostes eguna, eta ikasle guztiak elkarrekin leku berean bildurik zeuden; bat-batean, zerutik hots bat etorri zen, haize-bolada indartsu batena bezalakoa, eta haiek zeuden etxe dena bete zuen. Suzkoak bezalako mihi batzuk agertu zitzaizkien; banatu ziren hauek eta bakoitzaren gainean gelditu. Guztiak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzetan mintzatzen hasi, bakoitzari Espirituak ematen zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemene judutar jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Hots hura entzun zenean, jendetza haundia bildu zen eta harriturik gelditu, norberaren hizkuntzan mintzo zirela entzunda. Harri eta zur eginik, honela zioten:

- 'Ez al dira, bada, galilearrak, hizketan ari diren guzti horiek? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badaude partiarak, mediarak, elamdarrak; badaude Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton, Asian, Frigian, Panfilian, Ejipton eta Zirene ondoko Libian bizi direnak; badaude erromatarrak, judutarrak eta proselitoak, greziarrak eta arabiarak; eta denok gure hizkuntzan entzuten diegu Jaungoikoaren mirariak adierazten'.

Oparaigaien otoitza

Isur ezazu, Jauna,
zure Espirituaren bedeinkapena
gure eskaintzen gainera;
zure Eliza zeure maitasunez bete dadin
eta mundu guztiarentzat
salbamen-sakramentu izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.
Pazko-misterioa bere betera eraman nahirik,
Espiritu Santua bidali zenuen gaurko egunez
Kristorengan zure seme-alaba egindakoen gainera;
Espiritu hori izan zuen Elizak bere arima sortze-egunetik;
Espiritu horrek ekarri zituen herri guztiak Jainkoa ezagutzera;
Espiritu berak elkartu zituen, fede beraren aitormenean,
bekatuak hizkuntza ezberdinetan banatutakoak.
Horregatik, pazko-pozez gainezka daude
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiek ere
horregatik dute beti
zure aintzaren gorespina kantatzen:

Jaunartzeko antifona

Jaietako azken egunean, Jesusek zutik honela oihu egin zuen:
Egarri dena, betor Nigana eta edan beza. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jaunartze honek eman diezaigula, Jauna,
Espiritu Santuaren maitesua:
zure Semearen apostoluak
harrigarriro bete zituen maitesu bera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 1,1-18

Hasieran ba zen Hitza;
eta Hitza Jaungoikoarekin zen;
eta Jaungoiko zen Hitza.
Hitz hau hasieran Jaungoikoarekin zen.
dena Hitzaren bidez egina da;
eta egindakoetan ez da ezer Hura gabe eginik.
Harengan zen bizia.
Eta bizia gizonen argia zen.
Argiak ilunbetan argi egiten du;
baina ilunak Hura ez zuen onartu.

[Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.]

Hitza zen, mundura etorritako gizon oro
argitzen duen egiazko argia.

Munduan zegoen;
eta mundua Haren bidez egina da;
baina munduak ez zuen ezagutu.

Bereetara etorri zen,
eta bereek ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, berriz,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien,
Haren izenean sinesten badute.

Hauek ez dira odoletik sortu,
ez haragiaren nahieratik,
ezta gizonaren nahieratik ere;
Jaungoikoarengandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua;
eta geuk ikusi dugu Haren aintza,
Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza,
graziaz eta egiaz betea.

[Joanek Hartaz egiten zuen aitormen, oihuka esanez:
- 'Hau zen, nik esan nizuen Hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria
izan da, ni baino lehenagokoa bait zen'.

Eta Haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok.
Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez
etorri dira. Jaungoikoa ez du inork ikusi; Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak eman
digu Haren berri.]

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, Eguberri jai hauetan,
Zurekin baketzen gaituen oparia,
hau bait da Zuri gizonak
eskain diezaizukeren gorespen betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Ikusi dute lur muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jaunartze ondorengoa

Jainko guztiz errukitsua,
munduaren Salbatzaileak, gaur jaioz,
Jainkoaren seme-alaba sortarazten gaituen bezala,
hilezko ere egin gaitzala.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,22-27

Senideok: Badakigu izadi osoa orain arte, erdimenez eta intzirika dagoela. Eta ez hura bakarrik; baita gu ere, Espiritua lehen dohain bezala daukagunok intziriz gaude geure barruan, noiz Jaungoikoaren seme-alaba izango, noiz gure gorputza salbatuko! Salbatuak gaude; itxaropenean, ordea. Baina ikusten den itxaropena, ez da itxaropena. Izan ere, ikusten dena nola itxaron? Eta ikusten ez duguna itxaroten dugularik, iraupenez itxaroten dugu.

Baina, gainera, Espiritua datorkigu gure ahuleriaren lagun, guk ez bait dakigu zer eta nola eskatu; Espirituak berak eskatzen du, ordea, gure alde, esan ezin-halako intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituenak, ezagutzen du zer den Espirituaren gogoia, eta Espirituak Jaungoikoaren asmoen erara eskatzen duela, zintzoen alde.

(sekuentzia 147 or.)

ALELUIA Zatoz, Espiritu Santu!
Bete itzazu zure fededunen bihotzak,
eta piztu haiengan zure maitesua. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 7,37-39

Azkeneko egunean, jaietako egunik haundienean, Jesusek zutik honela oihu egin zuen:

- "Egarri dena betor Nigana; Nigan sinisten duenak edan beza; Liburu Santuak dioen bezala: 'Haren sabeletik ur bizizko ibaiak jarioko dira'".

Berarengan sinismen dutenek hartuko zuten Espirituagatik esan zuen hori. Espiritua ez zen oraindik emana izan, Jesus ez bait zen oraindik goretsia izan.

ERANTZUN-SALMOA 103**BIDAL EZAZU, JAUNA, ZURE ARNASA,
ETA BERRIERAZI LUR-AZALA.**

Ene arima, goretsazu Jauna!
Gutziz haundi zaitut, Jauna, ene Jainkoa!
Haundi eta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia.

Bai ugari direla, Jauna, Zuk eginak,
zuhurtasunez eginak zeharo,
lurra zure sorkariz betea dago!
Ene arima, goretsazu Jauna!

Otoitza

Bete ezazu guregan, Jainko Jauna, Zerorrek hitzemaana:
isur ezazu zeure Espiritu Santua,
munduaren aurrean
Jesu Kristoren Ebanjelioaren testigu gartsu egin gaitzan.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

AINZA**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,
pazko-misterioa berrogeita hamar egunez
ospatzea nahi izan duzu;
egizu, zure Espirituak bil ditzala
bekatuak eta gorrotoak sakabanatutako herriak,
eta hizkuntza ezberdinetakoak
bat eginak gerta daitezela zure izenaren aitormenean.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Eguberri ondorengo igandea (edo abenduak 30)

FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA eta JOSE**Sarrerako antifona**

Artzainak laisterka joan ziren, eta han aurkitu zituzten
Maria eta Jose, eta haurra askan etzana.

Kolekta otoitza

Jainko gure Aita,
Familia santua eman diguzu jarraibide eder;
egizu, gure familietan ere famili bizitza zintzoan
eta elkarren maitasunean Hari jarraituz,
betiereko zoriona izan dezagula zeruetako etxean.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Siraken liburutik 3,3-7.14-17a

Goresgarriago egiten du Jainkoak aita, seme-alabak baino;
eta amari eskubidea ematen dio bere umeen gainean.
Aita goresten duenak bere bekatuak ordaintzen ditu;
eta ama goresten duenak ondasunak pilatzen.
Aita goresten duenak poz izango du bere seme-alabetan;
eta otoitz egunean entzun egingo zaio.
Aita goresten duena luzaro biziko da;
eta Jaunak entzuten dio, amari atsegin ematen dionari.
Ene seme, iraun zure aita goresten, eta ez utzi bizidaino.
Burua galtzen badu ere, izan zakizkio bihotz haundiko
eta ez gutxietsi bizi zeraino;
aitari emandako laguntza ez da ahaztuko,
bekatuen ordain izango duzu;
zoritxar egunean, gogoan hartuko dizu Jaunak.

ERANTZUN-SALMOA 127**DOHATSU, JAUNAREN BELDUR DENA,
HAREN BIDEETAN DABILENA!**

Dohatsu, Jaunaren beldur dena,
Haren bideetan dabilena!
Zure eskuen lana bait duzu jango,
zoriontsu izango zara eta ongi zaizu joango.

Zure emaztea mahasti emankorraren antzean,
zure etxe barnean;
zure semeak badirudite olio-kimuak,
zure mahai inguruan.

San Paulo Apostoluak Kolosarrei 3,12-21

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, egokitasunez, eraman-onez, Jaungoikoaren herri aukeratu, santu eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inorentzat ezer baleuka. Jaunak barkatu dizuen bezala, barka zuek ere.

Guzti hoiien gaineratik, ordea, izan ezazue maitasun; hori bait da lokarrik bikainena. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan, bake hortara deituak zaretenez gero gorputz batean; eta izan esker onekoak. Oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza: Jakinduriarik osoenean elkar argituz eta berotuz; salmoak, goratarreak, eta goi-arnasezko abestiak Jaungoikoari bihotzez eta esker onez kantari. Edozer esaten edo egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, Beraren bidez Jaungoiko Aitari eskerrak emanez.

Emazteok, zaudete zeuron senarren menpean, Jaunarengan egoki den bezala. Senarrok, maita itzazue zeuron emazteak, eta ez izan gogorrak haiekin. Seme-alabok, egin zuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi du-eta Jaunak. Gurasuok, ez samindu zuen seme-alabak, gogoa gal ez dezaten.

ALELUIA Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan;
oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza. ALELUIA!

Jesu Kristoren Ebanjelioa s. Mateoren liburutik 2,13-15.19-23

Magoek aldegitian, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Joseri, esanez:

- "Jaiki zaitez; hartu haurra eta ama, eta zoaz ihes Ejiptora; eta egon han, nik esan arte; Herodes, haurra hil-nahian ibiliko da-eta".

Deiadar egin zioten larrialdi hartan Jaunari,
eta atera zituen beren nahigabetik.
Haize leunez baretu zuen ekaitza,
itsas-uhinketa isildu baitzen.

Otoitza

Poztu bedi, Jainko Jauna, zure herria
bere burua Espirituak nola berritu
eta gaztetu duen ikusiz,
eta berriro zeure seme-alabak egin gaituzulako pozturik,
aintzatsu pizteko itxaropena ere sendo dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

4. Joel profetaren liburutik 3,1-5

Honela mintzo da Jauna:
"Gizaki guztien gainera nere espiritua isuriko dut;
zuen seme-alabek profeta-hitza hotsegingo dute,
zuen gazteek ikuskariak ikusiko dituzte,
eta zuen zaharrek ametsak egingo.
Nere morroi eta mirabeen gainera ere
isuriko dut nere espiritua, egun haietan.
Harrigarriak egingo ditut zero-lurretan:
odola, sua eta ke mordoak.
Eguzkia ilundu egingo da,
eta ilargia odol bihurtuko,
Jaunaren egun haundi eta ikaragarria
etorri baino lehen.
Eta Jaunaren izenari dei egiten dioten guztiak
onik aterako dira.
Izango bait da Sion mendian eta Jerusalemen,
bizirik gelditutako hondar bat,
-hala hitzeman du Jaunak-;
eta bizirik gelditutako hondarretik
deituko ditu Jaunak bere aukeratuak".

Orduan Harek: “Hotsegin hezur hauei profeta-hitza, eta esan: ‘Hezur iharrak, entzun Jaunaren hitza. Hara zer esaten dien Jaunak hezur ihar hauei. Nik sarreraziko dut espiritua zuengan, eta biziko zarete. Ezarriko ditut zuengan zainak, sortaraziko dut zuengan haragia, zabalduko larruazala, emango dizuet espiritua eta biziko zarete. Eta ezagutuko duzue Ni naizela Jauna”.

Agindu zitzaidan bezala, hotsegin nuen nik profeta-hitza; eta nik profeta-hitza hotsegitearekin batera, zaratotsa haundi bat izan zen. Eta dardar batean, hezurak elkartu egin ziren. Begiratu nuen eta, horra, zainak hezurrei gainean ezartzen ari zitzaizkien, haragia sortzen, eta larruazala gainean zabaltzen; baina han ez zen espiriturik.

Harek orduan esan zidan: “Hotsegin iezaiozu profeta-hitza espirituari, hotsegin profeta-hitza, Adanen seme. Hau esango diozu spirituari: ‘Horra zer dioen Jaunak: Zatoz lau haizeetatik, spiritu, eta haizeman hildako hauei, bizi daitezen”.

Hotsegin nuen nik profeta-hitza, agindu zitzaidan bezala, eta sartu zen haietan espiritua; eta biziberritu ziren eta beren hanka gainean zutitu, egundainoko gizatalde izugarria. Orduan esan zidan: “Adanen seme, hezur hoiak Israel-etxe osoa dira. Hor bait dabilta esaten. ‘Ihartu dira gure hezurak, galdu da gure itxaropena; gureak egin du’.

Hotsegin, beraz, profeta-hitza; hau esango diezu: ‘Horra zer dioen Jaunak: Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zuen hilobietatik eta eramango zaituztet berriro Israelgo lurrera. Eta Nik zuen hilobiak irekitzean, eta zuen hobietatik ateratzean, ene herri, orduan ezagutuko duzue, Ni naizela Jauna, Nere espiritua emango dizuet Nik, eta zuek biziberrituko zarete; eta zeuron lurrean ezarriko zaituztet, eta ezagutuko duzue, Nik Jaun honek, esan eta egin egiten dudala” -dio Jaunak-.

ERANTZUN-SALMOA

106

ESKERRAK JAUNARI, HAREN MAITASUNA BETIKOA BAITA.

Haren hitzera jaiki zen ekaitz haizea,
uhinak harrotuz oso gora;
zeruraino igotzen ziren, hondarreraino jaisten,
haien barrena larritasunez ari zen urtzen.

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez, eta Ejiptora joan zen eta han egon, Herodes hil zen arte; horrela bete zen Profetaren ahoz Jaunak esandakoa: *Ejiptotik dei egin nion nire semeari*.

Herodes hil zenean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri Ejipton, esanez:

- “Jaiki zaitez, hartu haurra eta ama, eta zoaz Israelgo lurraldera, hilak dira-eta haurrari bizia kendu-nahirik zebiltzanak”.

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama, eta Israelgo lurraldera itzuli zen.

Baina, Herodesen ondoren, Judean haren seme Arkelao zegoela errege jakinik, beldur izan zen hara joateko. Eta ametsetan albiste harturik, Galileara jo zuen. Hara iritsi zenean, Nazaret deritzan herrian gelditu zen bizitzen, profetek esan zutena bete zedin: *Nazaretarra deituko diote*.

Oparigaien otoitza

Bakezko opari hau eskaintzean, Jauna,
apal-apal eskatzen dizugu:
Jaungoikoaren Ama Maria Birjinaren
eta Jose dohatsuaren otoitzez,
gure familiak zure adiskidetasunean eta bakean
sendo ezar ditzazula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Gure Jaungoikoa lurrean agertu zen, eta gizonen artean
bizi izan zen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Aita guztiz ona,
sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunok
Familia Santuaren antzera bizi gaitzezela,
lur honetako estualdien ondoren
Berarekin batean betiko zoriona iritsi dezagun.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

JAINKOAREN AMA MARIA

Urtarrilak 1

Sarrerako antifona

Agur, Ama deuna!, gizaldien gizaldietan zeru-lurren Errege denaren Ama!

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, Maria Birjina ama eginez,
betiko salbamera eman diozu gizonari;
iguzu, biziaren iturria den
Jesu Kristo zure Semea ekarri diguna,
laguntzaile ere izan dezagula zure aurrean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin... AMEN.

Zenbakien liburutik 6,22-27

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi:
- "Hitz egiozu Aaroni eta haren semeei, eta esan: Honela
bedeinkatuko dituzue israeldarrak:
'Bedeinka zaitzala Jaunak, eta zaindu.
Ager diezaizula Jaunak bere aurpegi argia,
eta erruki dadila zutaz.
Ager diezaizula Jaunak bere aurpegia,
eta eman bere bakea'.
Honela aipatuko dute nere izena israeldarren gainean, eta Nik
bedeinkatuko ditut".

ERANTZUN-SALMOA 66**AGERTU ZURE BIHOTZ ONA;
EMAN ZUK, JAUNA, OSASUNA.**

Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala,
ager diezaigula aurpegi alai;
ezagutu dezaten lurrean zure bidea,
herri guztietan Zugandiko salbamera.

Moisesek herria oihal txaboletatik aterarazi zuen,
Jaungoikoaren bidera; eta mendiaren oinean gelditu ziren.

Sinai mendia ketan zegoen guztia, Jauna suartean jaitsia
bait zen mendi gainera. Eta kea, labeko kea bezala igotzen zen, eta
mendi guztia dardara bizian zegoen. Turutotsa gero ta haundiagoa
zen. Moisesek hitzegiten zuen, eta Jaunak trumoi hotsez
erantzuten. Sinai mendira jaitsi zen Jauna, mendi tontorrera, eta
Moisesi mendi gailurrera dei egin zion.

ERANTZUN-SALMOA Dn 3

Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa:
R/ AINTZA ETA GORESPEN ZURI GIZALDIETAN.
Bedeinkatua zure izen santu eta aintzagarria: **R/**
Bedeinkatua Zu jauretxe santu eta aintzagarrian: **R/**
Bedeinkatua Zu zeure erreinuko aulkian: **R/**
Bedeinkatua Zu, kerubin gainean eseriz,
leizeak ikusten dituzuna: **R/**
Bedeinkatua Zu zeru sapaian: **R/**

Otoitza

Jainko Jauna, Zuk, su dizdiratsuan agertuz,
lege zaharra eman zenion Moisesi Sinai mendian,
eta gaurko egunez, Espiritu Santuaren sutan,
Itun berria agertu zenuen;
egizu, Apostoluei era miresgarrian isuri zenien
Espiritu hark sutu ditzala gure bihotzak,
eta, herri guztietatik bildua duzun Israel berriak
har dezala pozkarioz Zuk
betidanik emandako maitasun agindua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

3. Ezekiel profetaren liburutik 37,1-14

Egun haietan, Jaunaren eskua nere gainean jarri zitzaidan,
eta bere espirituz atara ninduen eta hezurrez beteta zegoen zelai
baten erdira eraman. Haien ingurumari guztian igaro erazi ninduen.
Hezurra erruz zegoen zelai gainean, eta hezurak zeharo ihartuak
zeuden.

Eta honela esan zidan: "Adanen seme, biziberritu ote
daitezke hezur hoiek?" Nik, berriz: 'Jauna, Zuk dakizu hori'.

ERANTZUN-SALMOA 32**JAUNAREN GRAZIAZ
BETERIK DAGO LURRA.**

Bai dohatsu Jauna Jainko duen jendea,
bere oinorde hautatu duen herria.

Begira dago Jauna zerutik,
ikusten du gizaseme guzti.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
lagun eta babes Bera baitugu.
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu geure usteona.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, zure Eliza beti familia santua izan dadila,
Aitarekin, Semearekin eta Espirituarekin
batasuna eginez bildua; ager diezaiola munduari
zure batasun eta santutasunaren misterioa,
eta gida dezala zure maitasunaren betera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

2. Irteera liburutik 19,3-8a. 16-20b

Egun haietan, Moises Jaungoikoagana igo zen. Eta Jaunak menditik dei egin, eta esan zion: "Honela hitzegingo diozu Jakoberen etxeari, eta hau hotsegingo israeldarrei: 'Ikusi duzue egiptoarrei egin diedana, eta zuek arrano-hegaletan eraman zaituztedala eta Nigana erakarri. Orain, beraz, benetan entzuten baduzue nere hitza, eta nere elkargoa gordetzen, zuek izango zarete nere ondasun berezi, herri guztien artean, nerea bait da lur osoa; zuek, berriz, apaiz-herri eta herri santu izango zarete Neretzat!' Hau da Israelgo semei esan behar diezuna".

Joan zen Moises; bildu zituen herriko zaharrak, eta Jaunak agindu zion guztia esan zion. Herri guztiak aho batez erantzun zuten: 'Egingo ditugu Jaunak esandako guztiak'.

Hirugarren egunean, egun sentian, trumoiak eta tximistak izan ziren, eta hodei lodia mendi gainean, eta turutots handia; eta oihal txaboletan zegoen herri guztia dardara batean jarri zen.

Poztu bitez kantari atzerriak,
zuzenbidez baitaramazu izadia;
zintzo baitituzu gidatzen herriak,
eta zaintzen lurrean atzerriak.

San Paulo Apostoluak Galaziarrei 4,4-7

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa, Legepeko egina, Legepean zaudenak erostera, guk seme-ordetza har genezan. Eta seme zaretelako, bere Semearen Espiritua bidali du Jaungoikoak zuen bihotzetara, 'Abba!, Aita!' deika ari dena. Beraz, gehiago ez zara morroi, seme baizik; eta seme bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

ALELUIA Askotan eta era askotara
hitzezin zien Jaungoikoak Profeten bidez
aspalditik gure arbasoei;
eta azkenak diren egun hauetan,
Semearen bidez hitzezin digu. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 2,16-21

Aldi hartan, laisterka joan ziren artzainak, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakin erazi zuten, haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren, artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza guzti hauek, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jaungoikoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik.

Haurra erdaintzeko zortziurrena bete zenean, Jesus ezarri zioten izen, sabelean sortu baino lehenago aingeruak esan zuen izen bera.

Oparigaien otoitza

On guztien hasiera eta betetzailerak zaren Jauna,
Jainkoaren Ama dohatsuaren
jai honetan eskatzen dizugu,
gaur salbamenaren hasierak pozten gaituenok
egunen batean salbamen horren bete iritsi dezagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa Andre Mariarena 39 or.)

Jaunartzeko antifona

Jesu Kristo berbera da atzo eta gaur; berbera gizaldi eta
gizaldietan ere.

Jaunartze ondorengo otoitza

Pozik hartu ditugu, Jauna, zeruko sakramentuak;
balia bekizkigu betiko bizitzarako,
Maria Birjina
Jaungoikoaren eta Elizaren Ama
aitortzen dugunoi.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

PENTEKOSTE-IGANDEA

Gaubeilako Eukaristia

Sarrerako antifona

Jaungoikoaren maitasuna gure bihotzetara isuria dago, eman
zaigun Espiritu Santuaren bitartez. Aleluia.

Otoitza

Berri ezazu, Jauna,
Pentekoste-eguneko gertaera harrigarria;
eta egizu, zure argia den Kristok
indar ditzala, Espiritu Santuaren egitez,
bizi berrira jaio direnak.
Zurekin eta Espirituarekin... AMEN.

*Senide maitetok, hasi dugu Pentekosteko Gaubeila. Apostoluak eta
ikasleak, Jesusen ama Mariarekin otoitzean ari izan ziren, Jaunak
hitzemandako Espirituaren zain. Guk ere, otoitz-giroan, Jainkoaren hitza
entzungo dugu orain arretaz. Gogora ditzagun, Pazko Gauean bezala,
Jainkoak bere herriaren alde eginiko egintza miresgarriak. Eta eska
dezagun, Aitak sinesdunei lehen-dohain bidali zien Espiritu Santuak eraman
dezala salbamen-egintza hori bere betera.*

1. Genesis liburutik**11,1-9**

Lur osoak hizkuntza bakarra zuen eta hitz berak. Sortaldetik
aterata zetoze, ibar bat aurkitu zuten gizonek Senaarko
lurraldean; eta hantxe gelditu ziren. Orduan honela esan zuten:
'Egin ditzagun arrilu gordinak, eta sutan erre'. Eta horrela arrilua
izaten zuten harri, eta pikea ore.

Gero esan zuten: 'Egin dezagun herri bat eta dorre bat
zerurainokoa; izen haundiko egin gaitezen, eta munduan zehar ez
sakabanatzeko'.

Jaitsi zen Jauna, gizonak egiten ari ziren herria eta dorrea
ikustera, eta honela mintzatu zen:

- "Horra!, guztiak herri bat dira, hizkuntza bakarra dute, eta
hori hasiera besterik ez da. Orain ez dute izango nahi guztia egin
ezinik. Jaitsi nadin, beraz, eta nahas dezadan hien hizkuntza,
inork uler ez dezan bere lagunarena".

Lur guztian zehar sakabanatu zituen Jaunak; eta utzi zuten
herri-egitea. Horregatik Babel ezarri zioten izen, han nahastu bait
zuen Jaunak mundu guztiaren hizkuntza, eta handik sakabanatu
zituen lur guztian zehar.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren Liburutik 28,16-20

Aldi hartan hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek aurrez agindu zien mendira. Hura ikusi zutenean, ahuspez agur egin zioten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden. Eta Jesusek, hurbildurik, honela hitzegin zien:

- "Aginpide oso-osoa eman zait Neri zeru-lurretan. Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik; bataia itzazue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, eta erakutsi haiei, Nik agindu dizuedan guztia betetzen. Begira, Ni zuekin nauzue egun oro, munduaren azken egunera arte".

Oparigaien otoitza

Opari hau, Jauna, apalik eskaintzen dizugu,
Zure Semearen zerura igotzea ospatzen dugun egun honetan;
misteriozko hartueman honen bidez, egizu,
Berarekin batean zerurako biztu gaitzezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

(Prefazioa 25 or.)

Jaunartzeko antifona

Begira, Ni zuekin nauzue egunero, munduaren azken egunera arte. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
lur honetan bertan ematen dizkiguzu zeruko ondasunak;
egizu, geure indar guztiz ahalegin gaitzezela
Kristorekin bizi izaten,
Berarengan eman diguzunez gero
zure jainkotasunean Zeurekin bat egitea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

EGUBERRI ONDORENGO II IGANDEA**Sarrerako antifona**

Dena isil-isilik zegoela eta gaua bide-erdira iritsia, zure hitz ahalguztiduna etorri zen, Jauna, zeru-goieneko bere errege-aulkitik.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zugan sinesten dutenen argia,
bete ezazu zure aintzaz mundua,
eta argi dizizari horrek eraman ditzala
herrialde guztiak Zu ezagutzera.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Siraken liburutik 24,1-4.12-16

Jakinduriak bere burua goresten du,
bere herriaren erdian aintzaz betetzen da.
Goi-goikoaren batzarrean bere ahoa irekitzen du,
eta Haren indardunen aurrean aintzaz betetzen da.
Bere herriaren erdian goratua izango da,
eta santuen batzar osoak ospe emango dio;
aukeratuen taldeek gorespenak emango dizkiote
eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean.
Orduan, guztien egileak agindu zidan,
ni sortu ninduenak, etxola eraiki zidan,
eta esan: "Jakobenean bizi zaitez,
eta Israel izan bedi zure ondare".
Hasieran, gizaldiak baino lehenagotik sortu ninduen,
eta inoiz ere ez dut amairik izango.
Etxola santuan, Haren aurrean egin dut serbitzu,
eta Sionen ipini dit bizitoki;
Hiri santuan eman dit atsedean,
eta Jerusalemen dago nere agintaritzan.
Izen haundiko herrian bota ditut sustraiak,
Jaunaren ondarean, Haren lurrean.

ERANTZUN-SALMOA 147**HITZA HARAGI EGIN ZAIGU,
GUREAN HAREN BIZILEKU.**

Jerusalem, ospa ezazu Jauna,
Sion, goretsazu zure Jainkoa.
Zure ateen sarrailak indartu baititu,
zure seme-alabak zure barnean bedeinkatu ditu.

Zure mugetan bakea ezarri baitu,
gari-mamiz ase zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere mintzoa,
eta Haren hitza bizkor eta arin doa.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 1,3-6.11-12

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez,
zeruan Kristogan bedeinkatu gaituena.
Harengan aukeratu bait gintuen,
mundua sortu baino lehen,
bere aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitezen.
Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez;
bere Seme maitearengan
hain ugari eman digun graziaren aintzak
Bera gorespenez bete dezan.

Horregatik, Jesus Jaunagan duzuen sinestea, eta santu guztienganako daukazuen maitasuna entzunda, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, nire otoitzetan zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezaizuela jakinduriazko eta goi-argizko espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezazuen, nolakoa den Haren deiaren itxaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak.

ERANTZUN-SALMOA 46**LUR OSOA,
EGIOZU IRRINTZI JAINKOARI.**

Herri guztiok, txalo jo ezazue,
Jainkoari irrintzi egiozue.
Goi-goiko Jauna, izan ere, izugarri,
lurbira osoan errege haundi.

Oihu alaien artean igo da Jainkoa,
turuta-soinuz Jauna.
Eresi Jainkoari, eresi,
eresi gure erregeri, eresi.

San Paulo Apostoluak Efesotarrei 1,17-23

Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezaizuela jakinduriazko eta goi-argizko Espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezazuen nolakoa den Haren deiaren itxaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak; nolakoa Haren ahalmenaren haundia, sinesten duginontzat.

Ahalmen eta indar guzti hori Kristorengan agertu du, Berau hilen artetik biztuaraztean eta zeruan bere eskuin aldean eseraraztean: agintaritzaz, nagusitza, ahalmen eta jauntasun guztien ginetik, eta nahiz oraingo gizaldian, nahiz gerokoan, aipa daitezkeen izen guztien ginetik eseraraztean. 'Gauza guztiak oinpean jarri zizkion' eta Bera, guztien ginetik, buru ezarri dio Elizari. Eliza, berriz, Haren gorputza da, guztietan guztia betetzen duenaren betea.

ALELUIA Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik
-dio Jaunak-
Ni zuekin nauzue eguneroko,
munduaren azken-egunerarte. **ALELUIA!**

JAUNAREN IGOKUNDEA

Sarrerako antifona

Galilearrok, zertan zaudete hor, zerura begira? Zerura igo den Jesus hori berriz etorriko da, joaten ikusi duzuen bezala..Aleluia.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztiduna,
zure Seme Jesu Kristoren zerura igotzea
garaipen gertatu da guretzat,
eta Haren gorputzeko atal garenok ba dugu itxaropen,
gure buru denak iritsi duen bizia iritsiko dugula guk ere;
iguzu, misterio honek pozez eta esker onez bete gaitzala.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetarik 1,1-11

Teofilo maite: Nire lehenengo liburuan idatzi nuen, Jesusek hasieratik egin eta erakutsi zuen guztia, Espiritu Santuak eraginda aukeratutako apostoluei aginduak eman ondoren, zeruetara igo zen arte. Jesus, bere nekaldiaren ondoren, agertu zitzairen bere apostoluei, bizirik zegoela argi erakutsiz; eta berrogei egunez azaltzen zitzaizela, Jaungoikoaren erreinuaz hitz egin zien.

Berarekin jaten ari ziren batean, honela esan zien: “Ez zaitzela atera Jerusalendik. Zaudete han, Aitak hitzeman eta zuek Niri entzundako agintzariaren zain. Joanek urez bataiatu zuen; zuek, ordea, Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak hemendik egun gutxi barru”.

Bildurik zeudenek galdetu zioten: ‘Jauna, orain eraikiko al duzu berritik Israelgo erreinua?’ Eta Jesusek: “Ez dagokizue zuei, Aitak bere esku dauzkan uneak eta garaiak jakitea. Espiritu Santua etorriko zaizuenean, hartuko duzue indar nire aitorle izateko, Jerusalem, Judea guztian, Samarian eta lurraren azken mugaraino”.

Hori esanik, igo egin zen, haiek begira zeudela; eta hodei batek gorde zuen begien aurretik. Zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizon aurkeztu zitzaizkien, eta esan zieten: “Galilearrok, zertan zaudete hor, zerura begira? Zuek utzi eta zerura igo den Jesus hori berriz etorriko da, joaten ikusi duzuen bezala”.

ALELUIA Aintza Zuri, Kristo, hots egina izan baitzara atzerri; aintza Zuri, Kristo, sinestua izan baitzara munduan. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 1,1-18

Hasieran ba zen Hitza;
eta Hitza Jaungoikoarekin zen;
eta Jaungoiko zen Hitza.
Hitz hau hasieran Jaungoikoarekin zen.
Dena Hitzaren bidez egina da;
eta egindakoetan ez da ezer Hura gabe eginik.
Harengan zen bizia.
Eta bizia gizonen argia zen.
Argiak ilunbetan argi egiten du;
baina ilunak Hura ez zuen onartu.

[Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.]

Hitza zen, mundura etorritako gizon oro
argitzen duen egiatzko argia.

Munduan zegoen;
eta mundua Haren bidez egina da;
baina munduak ez zuen ezagutu.

Bereetara etorri zen,
eta bereek ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, berriz,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien,
Haren izenean sinesten badute.

Hauek ez dira odoletik sortu,
ez haragiaren nahieratik,
ezta gizonaren nahieratik ere;
Jaungoikoarengandik baizik.
Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua;
eta geuk ikusi dugu Haren aintza,
Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza,
graziaz eta egiaz bete.

[Joanek Hartaz egiten zuen aitormen, oihuka esanez: - 'Hau zen, nik esan nizuen Hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagokoa bait zen'. Eta Haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok. Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jaungoikoa ez du inork ikusi; Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak eman digu Haren berri.]

Oparigaien otoitza

Santu egizkizu, Jauna, zure Seme maitearen jaiotzaz,
orain eskaintzen ditugun dohain hauek,
Berak erakusten bait digu egiaren bidea,
eta Berak agintzen zeruetako erreinuko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 9-11 or.)

Jaunartzeko antifona

Onartu zuten guztiei, Jaungoikoaren seme-alaba izateko
eskubidea eman zien.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, apalik eskatzen dizugu,
sakramentu honen indarrez
gure bekatuak garbi daitezela
eta gure asmo zuzenak bete.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Oparigaien otoitza

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure otoitz eta eskaintzak;
zure errukiak garbi gaitzala,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospa ditzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20-24 or.)

Jaunartzeko antifona

Maite banauzue, beteko dituzue nere aginduak —dio Jaunak—.
Eta eskatuko diot Nik Aitari, eta emango dizue beste laguntzaile bat, beti
zuekin egon dadin. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren Biztueran;
ugari itzazu guregan Bazko-misterioaren fruituak
eta isuri gure bihotzetara janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Ahuspeztu bedi lur osoa zure aurrean eresi eginez,
zure izenari eresi eginez.
Zatozte eta ikus Jainkoaren lanak,
harritzeko dira-eta gizakiengatik egin dituenak.

San Pedro Apostoluaren epistolatik 1 Pe 3,15-18

Senide maiteok: Gora ezazue Jauna, Kristo, zuen bihotzetan, eta prest egon beti zuen itxaropenaren arrazoi-bidea emateko, eskatzen dizueten guztiei; baina era onean eta begirunez, barrera garbi duzuela. Horrela, zuen kontra esaten dutena, lotsagarri gerta dakien, zuen kristau jokabide ona itsusten dutenei. Hobe da, Jaungoikoak hala nahi badu, ongi eginez nekeak izatea, gaizki eginez baino.

Kristok ere heriotzea jasan zuen bekatuengatik behin betiko –Zintzoak, zintzo ez direnengatik–, gu Jaungoikoarengana eramateko. Heriotzea jasan zuen bere gorputzean, baina bizia hartu zuen berriro Espirituarengatik.

ALELUIA Ni maite nauenak,
beteko du nere hitza -dio Jaunak-;
nere Aitak maiteko du,
eta harengana etorriko gara. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 14,15-21

Aldi hartan honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- “Maite banauzue, beteko dituzue nere aginduak. Eta eskatuko diot Nik Aitari, eta emango dizue beste laguntzaile bat, beti zuekin egon dadin: egiaren Espiritua; munduak ez dezake har, ez bait du ez ikusten, ez ezagutzen; zuek bai, ezagutzen duzue, zuekin bizi bait da, eta zuen artean bait dago.

Ez zaituztet umezurtz utziko, etorriko natzaizue; laister munduak ez nau ikusiko; zuek bai, ikusiko nauzue eta biziko zarete, Ni bizi bait naiz. Egun hartan ezagutuko duzue, Ni Aitarengan nagoela, eta zuek Neregan eta Ni zuengan. Nere aginduak hartu eta betetzen dituena, hori da Ni maite nauena; eta Ni maite nauena, maiteko du nere Aitak, eta Nik ere maiteko dut eta agertuko natzaio”.

JAUNAREN AGERKUNDEA

Sarrerako antifona

Horra non datorren diren guztien Jauna, bere eskuetan erregetza, ahalmena eta agintea dituela.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, egun honetan
izar baten bidez agertu zenien atzerri
zure Seme bakarra;
sinesmenaz ezagutzen zaitugunok
eraman gaitzazu zure aintzaren ederra ikustera.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Isaias Profetaren liburutik 60,1-6

Jaiki zaitez, argitu, Jerusalem,
badator zure argia;
zure gainean ageri da Jaunaren aintza.
Begira, lainoak estalirik dauka lurra,
eta ilunpeak inguraturik dauzka herriak.
Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da,
eta Haren aintza agertuko zure gainean.
Zure argitara etorriko dira herriak,
zure egunsentira erregeak.
Jaso itzazu begiak zure inguruan, eta ikus:
guzti horiek elkartu dira eta zugana datoz;
zure semeak urrutitik datoz,
besoetan dakartzate zure alabak.
Hori ikustean gainezka poztuko zara;
harrituko zaizu bihotza eta zabalduko,
itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira,
eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute.
Gamelu-taldeek estaliko zaituzte,
Madiango eta Efako dromedarioek.
Sabatik datoz guztiak,
urra eta intzentsua dakartzatela,
eta Jaunari gora ta gora diotela.

**IKUSI DUTE LUR MUGA DENEK
GURE JAINKOAGANDIKO GARAIPENA.**

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeri,
zure zuzentasuna errege-semeari.
Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
eta zure gizagaixoak zuzenbidez.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
bakea ugari, ilargia itzali artean.
Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
Ibaitik lehor-mugaraino.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 3,2-3a.5-6

Senideok: Entzunik duzue, Jainkoaren grazia zuen artean zabalteko eginkizuna eman zaidala. Goi-agerpenez ezaguterazi baitzait niri Kristoren misterioa: lehenengo denboretan gizonei jakin arazi ez zitzaien misterioa, orain Espirituaren bitartez Haren apostolu santuei eta profetei agertu izan zaien bezala: Jesu Kristorengan ondare beraren kide direla, alegia, atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinordekide.

ALELUIA Haren izarra ikusi dugu sortaldean,
eta hemen gatoz Jauna gurtzera. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 2,1-12

Herodes erregearen egunetan jaio zen Jesus Judako Belenen. Eta orduan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalem, galdezka:

- 'Non da jaio berri den judutarren erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta hemen gatoz Bera gurtzera'.

Hori entzunik, larritu zen Herodes eta Jerusalem guztia harekin batera. Eta apaiz nagusiak eta idazlariak bildu, eta Kristo non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun:

Sarrerako antifona

Poz-irrintzika berri eman ezazue eta zabaldu; iragarri lurtzeraino. Esan: Berrerosi du Jaunak bere herria. Aleluia.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik biztu den gure Jauna goresteko
ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna,
beti geure egintzetan bete dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetatik 8,5-8.14-17

Egun haietan, Felipe Samariako herrira jaitsi zen, eta Kristoren berri eman zien; guztiek arretaz eta gogo batez hartzen zuten, Felipek esaten zuena; entzuten bait zituzten eta beren begiz ikusten, hark egiten zituen mirariak: etsaidun askorengandik espiritu lohiak ateratzen ziren deiadarka, eta elbarri eta herren asko sendatzen zituen. Horregatik poz handia izan zen herri hartan.

Jerusalem-en zeuden apostoluak, Samariak Jaungoikoaren hitza onartu zuela entzun zutenean, Pedro eta Joan bidali zituzten haiengana. Eta biok iritsi zirenean, haien alde otoitza egin zuten, Espiritu Santua har zezaten; oraindik ez bait zen haietako inorengana jaitsia; Jesus Jaunaren izenean bataiatuak bakarrik zeuden. Orduan eskuak ezartzen zizkieten, eta Espiritu Santua hartzen zuten.

**LUR OSOA,
EGIOZU IRRINTZI JAINKOARI.**

Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari,
egin eresi Haren izen ederrari,
eman gorespen eder Berari.
Esan Jainkoari: 'Zuk eginak bai direla harrigarri'.

- “Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ez doa inor Aitarengana, nere bitartez ez bada. Ni ezagutuko baninduzue, nere Aita ere ezagutuko zenukete; oraindik ezagutzen duzue, eta ikusten”.

Felipek orduan:

- ‘Jauna, erakus iezaiguzu Aita, eta nahikoa dugu’.

Eta Jesusek:

- “Hainbeste denboran zuekin egon, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du. Nola diozu ‘erakus iezaiguzu Aita’? Ez al duzu sinesten Ni Aitarengan nagoela eta Aita Neregan dagoela? Esaten dizuedana, ez dizuet Nik neurez esaten. Neregan dagoen Aitak, Berak egiten ditu bere egintzak. Sinets iezaidazue; Ni Aitarengan nago eta Aita Neregan. Sinets, bestela, Haren egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Neregan sinesten duenak, Nik egiten ditudan lanak egingo ditu hark ere, eta haundiagoak ere bai; Ni Aitarengana bait noa”.

Oparigaien otoitza

Jainko Jauna,
opari honetako hartueman miragarriari esker,
zeure jainkotasunean parte ematen diguzu;
egizu, sinesten dugun egia egintzetan aitortuz dezagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20-24 or.)

Jaunartzeko antifona

Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta zuek aihenak —dio Jaunak;
Nigan dagoenak, eta Ni harengan, fruitu asko ematen du. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

- ‘Judako Belenen. Horrela dauka profetak idatzirik: *Eta zu, Belen, Judako bazter hori, ez zara inolaz ere Judako herri nagusietan txikiena; zuregandik aterako bait da agintari bat, eta nire herri Israelen artzain izango da*’.

Orduan Herodesek, Mago haiei isilka dei egin zien, izarra noiz agertu zitzaizen jakiteko ahal bezain ondo; eta Belena bidali zituen, esanez:

- ‘Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri; eta aurkitzen duzuenean esaidazue niri, neronek ere joan eta gur dezadan’.

Haiek, erregeri entzun ondoren, joan egin ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaizen, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusitakoan, berealdiko poza hartu zuten. Eta etxean sarturik, haurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin; eta ahuspez jarririk, gurtu egin zuten. Eta, beren kuxkak irekita, erregaliak eman zizkioten: urrea, intzentsua eta mirra.

Eta Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik joan ziren beren lurraldera.

Oparigaien otoitza

Begi onez begira, Jauna, zure Elizaren dohain hauei;
beroietan ez dizugu urre, intzentsu eta mirrarik eskaintzen,
baizik Jesu Kristo gure Jauna,
opari egina eta janari ematen zaiguna.
Errege bizi bait da ... AMEN.

(Prefazioa 12 or.)

Jaunartzeko antifona

Haren izarra ikusi dugu sortaldean,
eta hemen gatoz dohainekin Jauna gurtzera.

Jaunartze ondorengo otoitza

Etor bedi gure biderra, Jauna,
nonahi eta beti zeruetako argia,
sakramentu honetan hartu duguna
fede garbiz har dezagun eta maitasun zintzoz bete.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

JAUNAREN BATAIOA

(urtarrilaren 6 ondorengo igandea)

Sarrerako antifona

Jauna bataiatua izan zenean, zeruak zabaldu ziren eta Espiritua jaitsi zen Haren gainera; eta Aitaren hitza entzun zen: “Hau da nere Semea, nere Maitea; Honengan dut nere atsegina”.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa;
Kristo Jordango uretan bataiatua izan zenean
eta Espiritu Santua Haren gainera jaitsi zenean,
goraki aitortu zenuen Bera dela zure Seme maitea;
emaiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik
jaio diren zure semetzakoei,
zure nahia betetzen irautea.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Isaias Profetaren liburutik 42,1-4.6-7

Honela mintzo da Jauna:
“Hona Nik eusten diodan nire serbitzaria,
atsegin zaidan nire aukeratua.
Honengan ipini dut neure espiritua:
berak ekarriko die zuzenbide atzerriei.
Ez da deiadarka ariko, ez du oihuka hitz egingo,
ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa.
Kainabera pitzatua ez du hautsiko.
doi-doi piztua dagoen metxa ez du itzaliko.
Zuzenbide ekarriko du;
ez du etsiko, ez da hautsiko,
zuzenbidea lurrean ezarri arte,
uharteek itxaron duten Haren legea jarri arte.
Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut,
eskutik hartu zaitut;
herri baten elkargo izateko;
atzerrien argi izateko aukeratu zaitut,
itsuen begiak zabal ditzazun,
giltzapetuak espetxetik atera,
eta kartzelako ilunpetan daudenak aska ditzazun”.

Zuzena bait da Jaunaren hitza,
leiala Harek egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
Haren graziaz lurra dago bete.

San Pedro Apostoluaren epistolarik 1 Pe 2,4-9

Senide maiteok: Jaunarengana hurbiltzen zaretelarik -harri bizia bait da, gizonek zapuztua, baina Jaungoikoaren begietarako aukeratua eta ederretsia-, zuek ere, harri bizi bezala, Espirituaren etxegintzan parte hartzen duzue, eta apaizgo santu bat izango zarete, Jesu Kristoren bitartez Jaungoikoak onartuko dituen espiritu-opariak eskaintzeko. Liburu Santuan bait dago:

*‘Hona Nik ipini Sionen giltzarri aukeratu eta bikaina;
eta honengan sinesten duenik ez da lotsatuko’.*

Beraz, zuentzat -fededunontzat- aintzagarri da: sinesgabeentzat, ordea:

*‘etxegileek baztertutako harria berori gertatu da giltzarria
eta irristagarri eta gaizpide-harkaitz’.*

Sinesten ez dutelako egiten dute oztopo hitz horretan, horretarako jarriak izan bait ziren. Zuek, ordea, jatorri hautatua zarete, errege-apaizgo, enda santu, Jainkoak aukeratutako herri, ilunpetatik atera eta argi zoragarrira dei egin dizuenaren egintza harrigarriak oihuka ditzazuen.

ALELUIA Ni naiz bidea, egia eta bizia -dio Jaunak-;
ez dijoa inor Aitarengana,
nere bitartez ez bada. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 14,1-12

Aldi hartan honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- “Ez izan bihotz-larririk. Sinets ezazue Jaungoikoarengan, eta sinets Niregan ere. Nire Aitaren etxean bizi toki asko da; hala ez balitz, esango al nizuen Nik, zuentzako tokia eratzera noala? Joan eta tokia eratu ondoren, etorriko naiz berriro, eta Nerekin hartuko zaituztet, Ni nagoen toki berean zuek ere egon zaitzetzen. Ba dakizue Ni noan tokirako bidea”.

Tomasek orduan:

- ‘Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?’
Eta Jesusek:

PAZKO ALDIKO V IGANDEA**Sarrerako antifona**

Kanta Jaunari kantu berri, egin bait ditu hainbat harrigarri; agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna. Aleluia.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, Zuk gaituzu salbatzen
eta zure seme-alabatzat hartzen;
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak;
eta Kristorengan sinesten dugunoi
emaiguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetarik 6,1-7

Egun haietan, ikasleak ugaritzen ari zirela-eta, marmarra sortu zen grezi hizkuntzakoan artean heber hizkuntzakoan aurka: haien alargunak bazterrera uzten omen zituzten eguneroko serbitzuan. Apostoluek ikasle-taldeari batzarrera deitu eta esan zieten:

- 'Ez da bidezko, guk Jaungoikoaren hitza uztea, mahaiak serbitzatzeko. Aukera itzazue, beraz, zuen artean izen oneko zazpi gizon jakinduri espirituz beteak, eta lan hori beren gain utziko diegu; gu, berriz, otoitzean eta hitzaren serbitzuan ariko gara erabat'.

Batzarreak ongi iritzi zion asmo honi, eta hauek aukeratu zituzten: Esteban, sinismenez eta Espiritu Santuaz betetako gizona, Felipe, Prokoro, Nikanor, Simon, Parmenas eta Nikolas Antiokiako judutar berria. Apostoluen aurrera eraman zituzten; eta haiek, otoitz eginez, eskuak ezarri zizkieten.

Jaungoikoaren hitza gero eta gehiago zabaltzen ari zen; ikasle-taldea ugaritu zen Jerusalem-en, eta apaiz asko ere sinestudun egin zen.

ERANTZUN-SALMOA 32**ZU ZAITUT, JAUNA, ONDASUNA.**

Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan,
zuzenak direnei dagokie Hura gorestea.
Ospa ezazue Jauna kitaraz,
egiozue soinu hamar hariko salteriaz.

ERANTZUN-SALMOA 28**JAUNA DA GURE SALBATZAILEA,
GURE INDARRA ETA BAKEA.**

Eman, Jainkoaren seme-alabok, Jaunari,
eman ospe eta indar Jaunari.
Eman ospe Jaunari bere izenaren ederrez,
jauretsi Jauna apainduria deunez.

Horra Jaunaren mintzoa ur gainean:
Jauna ur ugarien gainean.
Jaunaren mintzoa indartsu,
Jaunaren mintzoa ospetsu.

Apostoluen Eginetarik 10,34-38

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen:

- 'Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo semeei bere hitza, eta guztien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen berri ona eman zien.

Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin baitzegoen'.

ALEUIA Zerua zabaldu zen eta Aitaren ahotsa entzun zen:
"Hau da nere Semea, nere Maitea.
Entzun iezaiozue". **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 3,13-17

Egun haietan, Jesus Galileatik Jordana etorri zen eta Joanengana agertu, honek bataia zezan. Joanek, berriz, ez zion utzi nahi, eta honela esaten zion:

- 'Ni naiz Zuk bataiatu beharrekoa, eta Zu al zatoz niregana?'

Jesusek erantzun zion:

- "Utzi oraingo; horrela bete behar dugu Jaungoikoak nahi duen guztia".

Orduan Joanek utzi egin zion. Jesus, bataioa harturik, atera zen berehala uretatik; zerua zabaldu zen, eta Jaungoikoaren Espiritua ikusi zuen uso-irudian jaisten eta bere gainera etortzen.

Eta zeruko mintzo batek honela esaten zuen:

- "Hau da nire Semea, nire Maitea; Honengan dut nire atsegina".

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, gure dohain hauek,
zure Seme maitea agertu digun egun honetan;
eta iguzu, zure serbitzarien eskaintza hau
munduko bekatua garbitu zuenaren opari egin dadila.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da , bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri.
Seinale miragarriz ezaguterazi duzu gaur
Jordan ibaiko Bataio berria;
zerutik jaitsitako hitzak jakin erazi du
zure Hitza gizonen artean dagoela;
eta Espiritu Santuak, uso itxuran agertuz, adierazi digu
Jesus, zure serbitzaria, dela Mesias,
behartsuei berri ona ekartzera bidalia.
Horregatik, zeruko talde guztiekin,
lurrean beti eta beti goersten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz haundi Horri,
etengabe kantatuz:

Jaunartzeko antifona

Aitormen hau egin zuen Joanek: 'Nik ikusi dut eta aitortu ere aitortzen dut: Hau dela Jaungoikoaren Semea'.

Jaunartze ondorengo otoitza

Dohain santu hauez aserik, Jauna,
zure errukiari dei egiten diogu:
egin gaitzazu zure Semearen hitzaren entzule zintzo,
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 10,1-10

Aldi hartan honela esan zien Jesusek farisearrei:

- "Egi-egiaz diotsuet: Artegira, atetik sartu beharrean, beste nonbaitetik sartzten dena, lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzten dena da ardi en artzaina. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; bakoitzari bere izenez deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Bere ardi guztiak atera ondoren, haien aurretik joaten da eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen bait dute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; ihes egingo diote, arrotzen deia ez bait dute ezagutzen".

Jesusek parabola hau esan zien, baina haiek ez zioten antzeman zer esan nahi zien. Beraz, berriro honela esan zien Jesusek:

- "Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardi en atea. Lehen etorri ziren guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; eta ardiek ez zieten entzun. Ni naiz atea. Niregandik sartzten dena, salbatuko da; sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez dator, ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten etorria naiz".

Oparigaien otoitza

Bazko-sakramentu honek, Jauna,
gure erospena berritzen du;
har ezazu gure esker ona, eta iguzu,
opari hau beti poz-iturri izan dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20-24 or.)

Jaunartzeko antifona

Biztu da Artzain ona, bere bizia ardiengatik eman zuena eta bere artaldeagatik hil nahi izan zuena. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Artzain ona zaren Jainko Jauna,
zaindu ezazu maitasunez zeure artaldea;
eta eraman betiko larre gurietara
zeure Semearen odolaz salbatu dituzun ardiak.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Atsedenezko iturrira narama,
eta birbizten dit barrena.
Banarama bidezior zuzenetik,
bere izenagatik.

Ibar ilunetan banabil ere, ez nago gaitz-beldur,
Zu nerekin bait zaude:
zure zigorra eta makila,
hauek dira nere poza.

San Pedro Apostoluaren epistolatik 1 Pe 2,20b-25

Senide maiteok: On egiteagatik, nekeak eramanpenez jasaten badituzue, gauza ederra egiten duzue Jaungoikoaren begietan. Horretara deituak izan bait zarete.

Izan ere,

*Kristok berak ere nekeak jasan zituen zuengatik,
bere urratsei jarraitzeko eredia zuei utzirik:
ez zuen egin bekaturik,
ez zuten aurkitu Haren ahotan gezurrik.
Gaizkiesaka zerabiltenean,
ez zien gaizki esanez erantzuten;
ez zien zemairik egiten nekaldian,
bere burua utzirik epaile zuzenaren eskuetan.
Gure bekatuak bere bizkarrean
habe gainera zituen eraman;
gu bekatuak hilik, santutasunerako bizi gaitezen;
Haren zauriek sendatu gaituzte.
Ardi galduak bezala zenbiltzaten;
baina orain zuen artzain
eta gotzaiarengana bihurtu zarete.*

ALELUIA Ni naiz Artzain Ona, -dio Jaunak-;
ezagutzen ditut nire ardiak,
eta nireek ezagutzen naute Ni. **ALELUIA!**

GARIZUMAKO I IGANDEA

Sarrerako antifona

Deituko nau, eta Nik hari entzungo; askatuko dut eta ospetsu egingo, aseko dut egunen luzetasunez.

Kolekta otoitza

Jainko Ahalguztiduna,
Garizumako elizkizunek eta penitentziek
egiazko bihotz-berritzera eraman gaitzate,
Kristoren misterioa hobeki ezagutu eta bizi dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin errege bizi bait da
gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Genesis liburutik 2,7-9;3,1-7

Jaungoiko Jaunak gizona egin zuen lurreko hautsez, eta bizi-arnasa hats egin zion aurpegira; eta gizona bizidun gertatu zen.

Gero, Jaungoiko Jaunak baratze bat landatu zuen Eden-en, sortalderuntz; eta han ipini zuen Berak egindako gizona. Eta Jaungoiko Jaunak, mota guztietako zuhaitzak sortarazi zituen lurretik, begientzat eder eta ahoarentzat gozo; eta baratzearen erdian, biziaren zuhaitza jarri zuen, eta onaren eta txarraren jakinduri-zuhaitza.

Sugea zen, Jaungoiko Jaunak egindako piztietan maltzurrena; eta honela esan zion emakumeari: 'Baratzeko zuhaitzetatik ez jateko esan omen dizue Jaungoikoak'.

Eta emakumeak sugeari: 'Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jaten dugu; baina baratze-erdian dagoen zuhaitzaren fruituaz, honela esan digu Jaungoikoak: "Hortatik ez jan, ez ukitu hori, hil ez zaitezten".

Eta sugeak emakumeari: 'Ez zarete hilko, ez! Badaki, bai, Jaungoikoak, zuek hortatik jan orduko, zuen begiak irekiko direla, eta Jaungoikoa aina izango zaretela, onaren eta txarraren jakitun'.

Orduan emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera irixteko on zela ikusirik, haren aleetatik hartu eta jan egin zuen; eta senarrari ere eman zion, eta harek jan egin zuen. Ireki zitzaizkien begiak, eta ohartu ziren larru-gorri zeudela; eta piku-osto batzuk josirik, soineko jantzi zituzten.

**ERRUKI, JAUNA,
BEKATU EGIN DUGU TA.**

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun haundiaz,
suntsi ezazu nire makurra zure amaigabeko errukiaz.
Garbi nazazu nire hobenetik,
ikuz nazazu nire gaiztakeriatik.

Nire bihurrikeria ezagutzen baitut,
nire hobena beti begien aurrean baitut.
Zuri egin dizut bekatu, Zuri bakarrik
zure begietan oker dena egin dut nik.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 5,12-19

Senideok: Gizon batengatik bekatua mundura sartu zen bezala, eta bekatuarengatik heriotzea; eta horrela, heriotzea gizon guzietara zabaldu zen, guztiek egin zutela bekatu...

(Legea baino lehen, munduan bekatua izanik ere, ez zitzaion inori bekatuik ezartzen, Legea ez zegoelako. Baina, hala ere, Adanengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotzea, Adanen hutsegiteagatik antzeko bekatuik egin ez zutenen gain ere; eta Adan, etortzeko zenaren irudi da.

Graziarekin ez da bekatuarekin bezala gertatu. Izan ere, baten bekatuaz guztiak hil badira, askoz ugariago zabaldu da guztientzat Jaungoikoaren grazia eta dohaia, gizon bakarrari esker: Jesu Kristori esker, alegia. Jainkoak ematen duen graziarekin ere ez da gizon bakarraren bekatuaren ondorioekin bezala gertatu: bati emandako epaiak ondamendi osoa ekarri zuen; graziak, berriz, barkamena hainbeste bekatuaren aurrean).

Gizon bakarraren bekatuarengatik nagusitu zen heriotzea. Zenbatez gehiago biziko dira orain eta nagusituko, Jesu Kristo bakarrarengatik, grazia, dohaia eta zuzentasuna oparo hartzen dituztenak.

Beraz, baten bekatuak gizon guztiei hondamena ekarri zien bezala, berdin baten zuzentasunak ekarriko die gizon guztiei bizirako zuzentasuna. Eta baten menpetasun-ezagatik guztiak bekatari gertatu ziren bezala, berdin baten menpetasunagatik iritsiko dute guziek zuzentasuna.

Sarrerako antifona

Jaunaren graziaz beterik dago lurra, Haren hitzak egin ditu zeruak. Aleluia.

Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
eraman gaitzazu zeruko atseginen jabe izatera,
fededunen artalde apala iritsi dadin,
beronen artzain den Kristo iritsi den lekuraino.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean errege bizi bait
gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Apostoluen Eginetatik 2,14.36-41

Pentekostes egunean, Pedrok, hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa indartuz, honela hitzegi zuen:

- 'Israel-etxe guziak jakin beza ziur, zuek gurutziltzatu zenuten Jesu hau, Jaungoikoak Jaun eta Kristo egin duela'.

Hitz hauek bihotza ukitu zieten, eta honela esan zieten Pedrori eta beste apostoluei:

- 'Senideok, zer egin behar dugu?'

Pedrok erantzun:

- 'Bihotz-berri zaitzete eta bataiatu guztiok Jesu Kristoren izenean, zuen bekatuen barkamenerako, eta Espiritu Santua hartuko duzue. Izan ere, zuentzat da agintzaria, eta zuen seme-alabentzat, eta Jaunak, gure Jaungoikoak, dei ditzakeen guztientzat, urrutikoak badira ere'.

Hitz hauekin eta beste hitz askorekin behartzen zituen eta arrenka eskatzen zien, esanez:

- 'Salba itzazue zeuen buruak gizaldi galdu honengandik'.

Haren hitza onartu zutenak bataiatu egin ziren. Eta egun hartan hiruren bat mila lagun bildu zitzaizkien.

ERANTZUN-SALMOA 22

**JAUNA DUT ARTZAIN,
EZ NAIZ EZEREN BEHARREAN.**

Jauna dut artzain ez naiz ezeren beharrean:
larre gurietan etzan erazten nau.

Oparigaien otoitza

Onar , Jauna, zure Elizak pozik ekarritako eskaintzak,
eta, horrelako poza eman diozunez gero,
emaiozu fruitutzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20-24 or.)

Jaunartzeko antifona

Ogia zatitzean ezagutu zuten ikasleek Jesus Jauna. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Begira, Jauna,
sakramentuen bidez berriztatu duzun zure herriari;
eta, bizitza hilezkorrerako egin gaituzenez gero,
emaiguzu biztuerara iristea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

EBANJELIOA

Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,
Jaungoikoaren ahotik ateratzen den
hitz guztitik baizik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 4,1-11

Aldi hartan, Jesus, Espirituak eramanda, basamortura joan zen, deabruak tentaldian jar zezan.

Berrogei egun eta berrogei gau baraurik egon ondoren, azkenean gosetu egin zen. Etorri zitzaion tentatzailea eta esan zion:

- 'Jaungoikoaren Seme baldin bazara, esazu, harri hauek ogi bihur daitezela'.

Baina Jesusek erantzun zion:

- "Idatzirik dago: *'Gizona ez da ogiz bakarrik bizi, Jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik'*".

Orduan deabruak hiri santura eramanean eta jauretxearen gailurrean ipini zuen, eta esan zion:

- 'Jaungoikoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua goitik behera; idatzirik dago-eta: *"Bere aingeruei die aginduko, onik zu ateratzeko"*; eta *"eramango zaituzte eskuetan, oina oztopa ez dakizun harrietan"*.

Jesusek erantzun zion:

- "Beste hau ere idatzirik dago: *'Ez tenta Jauna, zure Jaungoikoa'*".

Orduan deabruak mendi haundi batetara eramanean zuen eta mundu zabaleko erreinu guztiak eta haien edertasuna erakutsiz, esan zion:

- 'Guzti hori zeuretzat emango dizut, ahuspez gurtzen banauzu'.

Orduan Jesusek erantzun:

- "Alde hemendik, Satanas! Idatzirik dago-eta: *'Jauna, zure Jaungoikoa, duzu gurtuko, eta Bera bakarrik serbitzatuko'*".

Orduan deabruak utzi zuen, eta aingeruak hurbildu zitzaizkion serbitzatzera.

Oparigaien otoitza

Opari honekin hasten dugu, Jauna,
bazko-misterioaren prestakizuna;
egizu, gure bihotza izan dadila
eskaintza honen betekoa.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, berrogei egunez jan edanak utzirik,
santu egin bait zuen barauzko penitentzia;
eta tentatzailearen maltzurkeriak baztertuz,
okerrerako gure joera nola azpiratu erakutsi zigun,
pazko misterioa bihotz garbiz ospa dezagun,
eta betiko Bazkora hel gaitezen.

Horregatik, aingeru eta santuekin batean,
beti eta beti (esaten) abesten dizugu goratarre hau:

Jaunartzeko antifona

Bere hegalez babestuko zaitu Jaunak, Haren hegalpera joango zara
ihesi.

Jaunartze ondorengo otoitza

Hartu dugun ogi honek, Jauna,
sinismena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
erakus iezaiguzu egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

- "Zer da, bidean dakarkizuen hizketa hori?"

Eta goibeldurik gelditu ziren. Kleofas zeritzan bietako batek
hitza hartuz, esan zion:

- 'Zu bakarrik al zaitugu horren arrotz Jerusalem-en, egun
hauetan han gertatu direnak ez jakiteko?'

Jesusek erantzun:

- "Zer, bada?"

Eta haiek:

- 'Nazaretoko Jesusi gertatua. Profeta bait zen, egitez eta
hitzez gizon ahaltsua, Jaungoikoaren eta herri guztiaren aurrean;
nola apaiz nagusiek eta gure agintariek heriotzerako eman eta
gurutzean josi zuten. Guk, berriz, Israel askatuko zuena Bera zela
uste genuen; baina hirugarren eguna da, hori gertatu zela. Gure
arteko emakume batzuek, berriz, harrituta utzi gaituzte: goizean
goiz hilobira joan, eta Jesusen gorputzik aurkitu gabe itzuli ziren,
eta bizi dela zioten aingeruak ikusi omen zituzten. Joan ziren
guretar batzuk ere hilobira, eta emakumeek esan bezala aurkitu
zuten: Bera, ordea, ez zuten ikusi'.

Orduan Jesusek:

- "Bai zentzugabeak zaretela! Eta profeten hitzak sinesteko
motelak! Ez al zuen, bada, Mesiasen hori jasan behar, bere aintzan
sartzeko?"

Eta Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu
Santuan Hartaz idatzitako guztia agertu zien. Zihoazen herrira iritsi
zirenean, Berak aurrera zihoalako egin zuen. Baina haiek,
geldierazi nahiez, honela zioten:

- 'Zaude gurekin; berandu da eta eguna iluntzera doa'.

Eta sartu egin zen haiekin egoteko. Haiekin mahaian
zegoela, ogia hartu, bedeinkapen-otoitza egin, zatitu eta eman zien.
Orduan ireki zitzaizkien begiak eta ezagutu zuten. Bera, ordea, itzali
egin zitzaaien. Orduan honela esan zioten elkarri:

- 'Ez al genuen sutan gure bihotza, bidean hitzegiten
zigunean, eta Liburu Santuak adierazten zizkigunean?'

Eta berehala altxa eta Jerusalem-a itzuli ziren. Han aurkitu
zituzten Hamaikak eta haien lagunak, esaten:

- 'Biztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio'.

Haiek adierazi zuten bidean gertatu zitzaiena, eta nola
ezagutu zuten ogia zatitzean.

ERANTZUN-SALMOA 15**ZU ZAITUT, JAUNA, ONDASUNA**

Zaindu nazazu, Jauna,
babes bila bait nator Zugana.
Honela diot Jaunari: 'Zu zaitut nere jabe'.
Jauna da nere ondare eta edontzia;
Zuk daukazu eskuetan nere zoria.

Onesten dut Jauna, aholku eman didalako,
gaugez ere nere bihotzak ohar erazten nauelako.
Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
eskuinean daukadala, ez naiteke dardara.

San Pedro Apostoluaren epistolatik 1 Pe 1,17-21

Senide maiteok: Zuek Aita esaten diozuenak bakoitzaren egintzen neurrian eta bereizkuntzarik gabe epaitzen duenez gero, joka ezazue zintzo bizitza honetan. Badakizue zuen gurasoengandik hartutako biziera hutsaletik, ez zaretela gauza ustelkorrez erosiak izan –ez urrez, ez zilarrez-, baizik-eta Bildots errugabe eta kutsugabe den Kristoren odol ederrez: mundua mundu den baino lehendik ezagutua izan zena eta azken aldian zuengatik agertua. Haren bidez sinesten duzue zuek, Hura hilen artetik bizitu eta goratu zuen Jaungoikoarengan, eta horrela zuen sinesmena eta itxaropena Jaungoikoarengan jarri duzue.

ALELUIA Jesus Jauna, ager iezaizkiguzu Liburu Santuak;
sutu gure bihotzak, hitzegiten diguzunean. **ALELUIA!**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 24,13-35

Jesusen bi ikasle, Jerusalem-dik bi orduko bidean dagoen Emaus izeneko herri txikira zihoazen. Eta gertakizun guztietaz elkarrekin hizketan ari ziren. Elkarrekin hizketan eta eztabaidan ari zirelarik, Jesus berbera hurbildu zitzairen, eta haiekin batean zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Hark esan zien:

GARIZUMAKO II IGANDEA**Sarrerako antifona**

Zuk esana bihotzean dut entzuten: 'Bila ezazue nere aurpegia'. Zure aurpegi-bila nabilkizu, Jauna, ez neri ezkuta aurpegi hori.

Kolekta otoitza

Jainko Aita guztiz santua,
zure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zure hitzaren janaria,
gure sinesmen-begiak argiturik,
pozez ikus dezagun zure aintza.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Genesis Liburutik**Gn 12,1-4a**

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Abran-i:
- "Zoaz zure lurraldetik, zure aberritik eta zure aitaren etxetik, Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri haundi egingo zaitut, eta izen haundia emango dizut, eta zure izena bedeinkapen-izen gertatuko da.

Bedeinkatuko ditut, zu bedeinkatzen zaituztenak,
eta madarikatuko, zu madarikatzen zaituztenak;
zuregan bedeinkatuak izango dira
lurreko enda guztiak".

Hala joan zen Abran, Jaunak esan bezala.

ERANTZUN-SALMOA**32****AGERTU ZURE ERRUKIA.
BEDEINKA, JAUNA, ZURE HERRIA.**

Zuzena da Jaunaren hitza,
leiala Harek egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
Haren graziaz lurra dago bete.

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
Haren maitasuna itxaroten dutenengana;
haiek bait ditu heriotzetik aterako,
eta gosetean aseko.

San Paulo Apostoluak Timoteori 2 Tm 1,8b-10

Anaia maite: Eraman itzazu nekeak nirekin batean berri onaren alde, Jaungoikoaren indarrez. Berak salbatu gaitu, eta dei egin digu bizi santura; ez gure egiteengatik, baizik-eta bere erabakiarengatik, eta gizaldi guztiak baino lehen Jesu Kristorengan eman zaigun graziarengatik.

Grazia hau agertua izan da, orain, Jesu Kristo gure Salbatzailea azaldu denean; Honek hondatu du heriotzea, eta argitara atera bizi ustelezina, berri onaren bidez.

EBANJELIOA

Hodei dizdiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:
 “Hau da nere Semea, nere Aukeratua.
 Entzun iezaiozue”.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 17,1-9

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan, eta mendi goi batetara igo zen. Hiruen aurrean antzaldatu egin zen; aurpegia eguzkia bezain dizdizari zeukan, eta soinekoak argia bezain zuri. Eta Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedro mintzatu zen orduan, eta honela esan zion Jesusi:

- ‘Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, egingo ditut hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasentzat’.

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen:

- “Hau da nere Semea, nere Maitea; Honengan dut nere atsegina. Entzuiozue”.

Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzairen Jesus, ukitu zituen eta esan zien:

- “Jaiki zaitezte; ez izan beldurrik”.

Begiak jasorik, Jesus bera besterik ez zuten ikusi.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek honela agindu zien:

- “Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik-eta Gizonaren Semea hilen artetik biztu arte”.

PAZKO ALDIKO III IGANDEA**Sarrerako antifona**

Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari, egin eresi Haren izen ederrari, eman gorespen eder Berari. Aleluia.

Kolekta otoitza

Poztu dadila beti, Jauna,
 biziberritu eta gaztetu duzun zeure herria;
 iguzu, zure seme-ordekotza berriturik pozez gaudenok,
 uste sendoenaz itxaron dezagula biztuera-eguna.
 Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetatik 2,14.22b-28

Pentekoste egunean, Pedrok, hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa indartuz, honela hitzegin zuen:

- ‘Judutar eta Jerusalem-en bizi zareten guztiok, entzun eta jarri erne zuen belarriak nere hitzetara: Nazaretoko Jesusez mintzo natzaizue; Jaungoikoak sinesgarri egin zizuen gizon hori; Haren bidez egin bait zituen, zuek dakizkizuen miragarriak, harrigarriak eta ezaugarriak. Jainkoak erabakia eta aurrez jakina zeukan bezala, zuen eskuetara emana izan zen gizon hau, eta zuek hil egin zenuten, jentilen eskuz gurutzean josiz; baina Jaungoikoak biztu egin zuen, heriotzaren lokarriak askaturik. Hura ezin bait zitekeen heriotzaren menpean egon.

Izan ere, honela dio Dabidek Harengatik:

*“Begi aurrean ikusten nuen beti Jauna;
 eskuinean daukadala, ez naiteke dardara:
 horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
 eta haragi honek ere itxaropenean du atsedena.
 Ez bait duzu nere bizia Leizera egotziko,
 ezta zure zintzoa ustelak hartzen utziko.
 Bizirako bidea erakutsiko didazu,
 zure aurrean alaitasunez beteko nauzu”.*

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, zure herriaren eskaintzak;
sinesmenak eta Bataioak biziberriturik,
betiereko zoriona iritsi dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20-24 or.)

Jaunartzeko antifona

Ekatzu esku hori eta uki ezazu iltze-zuloa, eta ez izan sinesgogor,
sinestedun baizik. Aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
iguzu, Pazko-sakramentuetan hartu dugun graziak
iraun dezala beti gure bihotzetan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Oparigaien otoitza

Eskaintza honek, Jauna,
gure bekatuetatik garbi gaitzala,
eta zure zerbitzarien gorputz-arimak santu egin,
bazko-jaiak ospatzeko gai izan gaitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ikasleei bere heriotza alde aurretik aitatuta,
bere ditzira agertu zien mendi santuaren gainean;
garbi jakin zezaten,
Legea eta Profetak aitorle izanik,
nekaldiaren bidez sartu behar zuela piztueran.

Horregatik, zeruko talde guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz haundi Horri,
etengabe (esanez) kantatuz:

Jaunartzeko antifona

Hau da nere Semea. nere Maitea;
Honengan dut nere atsegina. Entzun iezaiozue.

Jaunartze ondorengo otoitza

Eukaristia honetan
zure Semearen gorputza hartu dugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

GARIZUMAKO III IGANDEA

Sarrerako antifona

Nik begiok Jaunagana beti, Hark ateratzen bait dizkit oinak saretik. Begira neri, Jauna, eta nitaz erruki, bakarrik bait nago eta errukarri.

Kolekta otoitza

Errukiaren Aita eta on guztien iturri zaren Jauna,
baraua, otoitza eta limosna
ipintzen dizkiguzu gure bekatuen sendagarri;
begira bihotz onez
bere ahuleria aitortzen duen zure herriari,
eta bizkor gaitzazu, zure erruki haundiz,
bekatuaren zamapean aurkitzen garenek.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Exodo liburutik

17,3-7

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marmarka ari zen:

- 'Zertarako atera gaituzu Egiptotik? Egarriz hiltzeko gu eta gure seme-alabak eta gure abereak?'

Moisesek Jaunari hotsegin zion eta esan zion:

- 'Zer egin behar dut herri honekin? Harrika emango didate laister'.

Jaunak Moisesi:

- "Jar zaitetz herriaren aurrean, eta eraman itzazu zerorrekin Israelgo zahar batzuk; hartu eskuan, ibaia jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Ni zure aurrean egongo naiz, Horeb-mendiko harkaitz-gainean. Zuk harkaitza jo, eta ura sortuko da handik, eta edango du herriak".

Hala egin zuen Moisesek, Israelgo zaharren aurrean. Eta toki hari Masa eta Meriba ezarri zion izen, Israeldarren hango haserreagatik eta han tentatu zutelako Jauna, esanez: 'Gure artean al dago Jauna, bai ala ez?'.
119

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 20,19-31

Astearen lehenengo eguneko ilunabarrean, etxe batetan bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, judutarren beldurrez. Sartu zen Jesus, eta, haien erdian zutik, honela esan zien:

- "Bakea zuekin".

Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Eta ikasleak pozez beterik gelditu ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriz ere:

- "Bakea zuekin. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik ere bidaltzen zaituztet zuek".

Eta hori esanez, haizeman zuen haien gainera, eta esan zien:

- "Har ezazue Espiritu Santua: zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatuak gelditzen zaizkie; eta lotzen dizkiezuenei, lotuak gelditzen zaizkie".

Tomas, ordea, Hamabietako bat, Bizkia zeritzana, ez zegoen besteekin batean Jesus etorri zenean. Beste ikasleek esan zioten: 'Jauna ikusi dugu'

Tomasek, ordea:

- 'Haren eskuetan iltzezuloak ikusten ez baditut, nire behatza Haren iltzezuloetan sartzen ez badut, eta nire eskua Haren saihetsean, ez dut sinetsiko'.

Handik zortzi egunera, berriz ere barruan zeuden ikasleak, eta Tomas haiekin. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela, eta haien erdian zutik honela esan zien:

- "Bakea zuekin".

Gero Tomasi:

- "Ekatzu behatz hori, hona hemen nire eskuak; ekatzu esku hori, eta sar ezazu nire saihetsean; eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik".

Tomasek erantzun zion:

- 'Ene Jauna eta ene Jaungoikoa!'

Eta Jesuek:

- "Ikusi nauzulako zinetsi al duzu? Zorionekoak, ikusi gabe sinesten dutenak".

Beste ezaugarri asko ere egin zituen Jesusek bere ikasleen aurrean; baina ez daude idatzirik liburu honetan; idatzirik daudenak, honetarako daude idatzirik: sinets dezazuen Jesus Mesias dela – Jaungoikoaren Semea–, eta hori sinetsirik, Haren izenean bizia izan dezazuen.

Gogor bultzatu ninduten erortzeko,
han zegoen Jauna ni laguntzeko.
Nire indar eta nire kemen Jauna,
Hura gertatu da nire salbamena.
Poz eta garaipen-oihuak
zintzoen etxolan.

San Pedro Apostoluaren epistolatik 1 Pe 1,3-9

Bedeinkatua Jaungoikoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Bere erruki handiaz,
itxaropen bizirako sortu baikaitu berriro,
Jesu Kristoren hilen artetiko piztueraren bidez,
ustelik, lohirik eta zimelik gabea den ondarerako;
eta hau zuentzat zeruetan jasota dago.
Jainkoaren indarrak iraun erazten dizue sinesmenean,
azken aldian agertzekoa den salbamenerako.

Poztu zaitezte horretan, oraingoan zenbait estuasunetan
alditxo batez nahigabetuak izan behar baduzue ere. Horrela agertu
da zuen sinesmena –sutan garbitzen den urre galkorra baino askoz
bikainagoa–, eta Jesu Kristo agertzen denean, iritsiko du saria,
aintza eta goralpena. Jesu Kristo ikusi ez duzelarik ere, maite
duzue; ikusi gabe, Beragan sinesten duzue, eta esan ezin halako
poz handiz alaitzen zarete; eta horrela zuen sinesmenaren helburua
iristen duzue: zeuron salbamena.

ALELUIA Ikusi nauzulako sinestu al duzu? –dio Jaunak–;
zoriekoak, ikusi gabe sinesten dutenak. **ALELUIA!**

ERANTZUN-SALMOA 94

ENTZUNGO AL DUZUE GAUR JAUNAREN MINTZOA: “EZ GOGORTU ZUEN BIHOTZA”.

Zatozte, pozez oihu dagiogun Jaunari,
txalo dagiogun salbamen dugun Harkaitzari.
Hurbil gakizkion aurrera esker-kantuekin,
jai dagiogun txalo eta eresiekin.

Zatozte, ahuspez jaures dezagun,
egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion.
Bera baita gure Jainkoa,
gu, berriz, Haren larreko herria,
Haren zaipeko artaldea.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 5,1-2.5-8

Senideok: Fedearen bidez zuzentasuna iritsi dugunez gero,
bakean gaude Jaungoikoarekin, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
Berari esker zabaldu zaigu, sinesmenaren bidez, bizi garen grazia
honetarako sarrera, eta harroturik gabiltza Jainko- seme-alaben
aintzaren itxaropenez.

Itxaropenak ez du huts egiten; Jaungoikoaren maitasuna
gure bihotzetara isuria baitago, eman zaigun Espiritu Santuaren
bitartez.

Izan ere, oraindik indargabe geundela, Kristo, bere orduan,
gaiztoen alde hil zen. Nekez hil daiteke norbait gizon zuzen baten
alde; gizon on baten alde, baliteke norbaitek hil nahi izatea. Baina,
honetan erakusten du Jaungoikoak guretzat duen maitasuna: gu
bekatari ginelarik, Kristo gure alde hil baitzen.

EBANJELIOA

Jauna, Zu zara egiaz munduaren Salbatzailea;
emaidazu ur bizia, egarri ez nadin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 4,5-42

Aldi hartan, Sikar deritzan Samariako hiri batetara iritsi zen
Jesus, Jakobek bere seme Joseri emandako soro ondora. Han
zegoen Jakoben iturria. Jesus, bidean nekatuta, iturri ondoan
eserita zegoen. Eguerdi ingurua zen. Samariako emakume bat
etorri zen ura ateratzera, eta Jesussek esan zion:

- “Emaidazu edateko”.

(Ikasleak hirira joanak ziren, jatekoak erostera). Eta emakume samariarrak:

- 'Nola zuk, judutar izanik, eskatzen didazu edatekoa, emakume samariarra naizen honi?' (Judutarrek ez bait dute harremanik samariarrekin).

Jesusek erantzun:

- "Bazeneki Jaungoikoaren dohaia zer den, eta 'emaidazu edateko' esaten dizuna nor den, zeuk eskatuko zenioke, eta Hark ur bizia emango lizuke".

Emakumeak orduan:

- 'Jauna, ez daukazu ezer ura ateratzeko, eta ur-zuloa sakona da; nondik atera behar duzu Zuk ur bizi hori? Gure aita Jakob baino haundiagoa ote zaitugu Zu? Hark emana dugu ur-zulo hau; eta hemendik edaten zuten hark eta haren seme eta abereek'.

Jesusek erantzun:

- "Ur hortatik edaten duena, berriz ere egarritu egiten da. Nik ematen diodan uretik edaten duena, ordea, ez da gehiago egarrituko sekulan; Nik emango diodan ura, betiko bizitzaraino darion iturri bihurtuko da harengan".

Eta emakumeak:

- 'Jauna, emaidazu ur hori, egarri ez nadin, eta ur-bila hona etorri beharrik izan ez dezadan'.

[Eta Jesusek: "Zoaz, deitu zure senarrari, eta etorri hona".

Emakumeak erantzun zion: 'Ez dut senarrik'.

Eta Jesusek berari: "Ongi esan duzu, ez duzula senarrik; bost izan dituzu eta orain zeurekin daukazuna, ez duzu senarra; hori egia esan duzu".

Emakumeak:]

-'Jauna, ikusten dudanez profeta zara Zu. Gure gurasoek mendi honetan gurtu zuten Jainkoa; eta zuek Jerusalem gurtu behar dela diozue'.

Jesusek:

- "Sinetsiezaidazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalem, Aita gurtuko ez duzuen. Zuek, ez dakizuen gurtzen duzue; guk, dakiguna gurtzen dugu; salbarena judutarrengatik bait dator. Baina ba dator ordua, eta iritsi ere ba da, egiazko gurtzaileek Aita espirituz eta egiaz gurtuko dutena. Izan ere, Aitak honelako gurtzaileak nahi ditu. Jaungoikoa, espirtu da; eta Hura gurtzen dutenek, espirtuz eta egiaz gurtu behar dute".

BAZKO-ALDIKO II IGANDEA

Sarrerako antifona

Ume jaiio-berriak bezala, irrika ezazue egiazko esne garbia, haren bitartez osasuntsu hazi zaitezten salbamenerako. Aleluia.

Kolekta otoitza

Betiereko errukiaren Jainko Jauna,
Bazko-jaietan berritu egiten duzu zeure herriaren fedea;
handi ezazu guregan Zuk emandako grazia;
hobeki ikus dezagun, nolako Bataioak garbitu gaituen,
nolako Espirituak biziberritu eta nolako Odolak erosi.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Apostoluen Eginetatik

2,42-47

Senideek zintzo irauten zuten apostoluen erakutsietan eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzean eta otoitzean.

Jende guztia harrituta zegoen, apostoluen bidez egiten ziren hainbeste mirari eta ezaugarriekin. Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren; eta zeukaten guztia, guztientzat zuten; ondasunak eta gauzak saldu egiten zituzten, eta haiekin hartutakoa denen artean zabaltzen zuten, bakoitzaren beharrari zegokionez.

Guztiak bihotz batez igotzen ziren egunero jauretxera; beren etxeetan egiten zuten ogiaren zatitzea eta pozik eta bihotz xaloz jaten zuten elkaturik, Jaungoikoa goretsiz. Herriak begi onez ikusten zituen, eta egunero Jaunak haien artera biltzen zituen salbatzen ari zirenak.

ERANTZUN-SALMOA

117

ESKERRAK JAUNARI, HAREN MAITASUNA BETIKOA BAIT DA.

Israel etxeak hau esan beza:

'Haren maitasuna betikoa'.

Aaron etxeak hau esan beza:

'Haren maitasuna betikoa'.

Esan bezate Jaunaren beldur direnek:

'Haren maitasuna betikoa'.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 20,1-9

Astearen lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, oraindik ilun zegoela; eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Lasterka batean, Simon Pedrorengana eta Jesusek maite zuen beste ikasle harengana joan, eta esan zien:

- 'Hilobitik eraman egin dute Jauna, eta ez dakigu non jarri duten'.

Atera ziren Pedro eta beste ikaslea, eta hilobira abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka; baina beste ikasle hark, Pedro baino bizkorrago ibilita, aurea hartu zion, eta lehenago iritsi zen hilobira. Begiratu zuen eta lurrean oihalak ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen atzetik Pedro ere, sartu zen hilobian eta ikusi zituen oihalak lurrean; buru gainean edukitako zapia, ordea, ez zegoen oihalekin batera, alde batetan bildua baizik. Orduan, sartu zen hilobian lehendabizi iritsitako ikasle hura ere; ikusi zuen, eta sinetsi; ordurarte ez bait zuten ulertu Liburu Santuak dioena: *'Biztu egin behar zuela hilen artetik'*.

Oparigaien otoitza

Pazko-pozetan eskaintzen dizugu, Jauna, opari hau:
beronek sortzen du eta janaritzen
harrigarriro zure Eliza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20 or.)

Jaunartzeko antifona

Opari eskainia izan da Kristo, gure Bazko-bildotsa; ospa dezagun, beraz, Pazko-jaia, egiaren eta zintzotasunaren ogi-hilekin. Aleluia

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko Aita,
zaindu ezazu zure Eliza maitasun haundiz,
pazko-sakramentuez berriturik,
piztueraren argira iritsi dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Emakumeak orduan:

- 'Badakit, bai, Mesias, Kristo deritzana, etortzekoa dela; Hura datorrigunean, Hark adieraziko digu guztia'.

Eta Jesusek:

- "Neu nauzu, zurekin hizketan ari naizen haxe".

[Une hartan etorri ziren ikasleak, eta harritu ziren, emakume batekin hizketan ari zelako. Hala ere ez zion inork esan: 'Zer galdetzen diozu?' edo 'zertaz ari zarete?']

Orduan emakumea, bere urrontzia han utzi eta hirira joan zen, eta jendeari esaten zion: 'Zatozte eta ikus, nik egindako guztia esan didan gizona. Mesias ote dugu?'

Hiritik atera eta Harengana zihoazen. Bitartean, ikasleak arrenka ari zitzaizkion: 'Maisu, jan ezazu!'

Hark, berriz, honela esan zien: "Ba dut Nik jateko, zuek ez dakizuen janaria".

Ikasleek honela zioten elkarriz: 'Inork ekarri ote dio, bada, jatekorik?'

Eta Jesusek: "Hau dut Nik janari: bidali nauen Haren nahia egitea eta Haren lana burutzea. Ez al zarete esaten ari: Oraindik lau hilabete, gari-ebakitzerako? Horra, bada, Nik esan: Jaso zuen begiak, eta ikus gari-soroak, igitaitzeko hori-hori. Eta dagoeneko ari da igitaria lan-saria hartzen eta betiko bizitzarako uzta biltzen; ereilea eta igitaria, biak batera poz daitezten. Hala ere, egia da harako esaera hura: *'Batek erein, eta bestek bildu'*. Zeuek landu ez duzuen igitaitzera bidali zaituztet: bestek lan egin, eta zuek haien lanean sartu zarete".

Hiri hartako samariar asko Harengan sinesten hasi zen. [emakumearen hitzarengatik; 'egin dudan guztia esan dit' aitortu bait zuen]. Samariarrek, Harengana etorri zirenean, haiekin gelditzeko eskatzen zioten. Eta han gelditu zen bi egun. Eta Beraren hitzarengatik gero eta gehiagok sinetsi zuen. Eta emakumeari esaten zioten:

- 'Orain ez dugu, zuk esan duzunagatik sinesten; geuk entzun diogu, eta badakigu Hau dela egiaz munduaren Salbatzailea'.

Oparigaien otoitza

Opari honek, Jauna, iritsi diezaigula
eskatzen dizugun barkamena,
eta geure zordunei barkatzera eraman gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak,
Samariako emakumeari edateko ura eskatu zioneko,
sortua zuen haren bihotzean sinesmenaren dohaina.
Eta hain egarri haundiz nahi bait zuen Jaunak
emakume hark sinestea,
jainko-maitasunaren sua biztu zion bihotzean.

Horregatik, guk ere eskerrak ematen dizkizugu
eta zure aintza goresten dugu,
aingeruekin batean (esanez) kantatuz:

Jaunartzeko antifona

Nik ematen diodan uretik edaten duena -dio Jaunak-, Nik
emango diodan ura betiko bizitzaraino darion iturri bihurtuko da harengan.

Jaunartze ondorengo otoitza

Betiko salbamenaren agiria dugu, Jauna,
hartu dugun oparia;
egizu, orain sakramentuz ematen zaiguna
bete betean iritsi dezagula geroko bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

ERANTZUN-SALMOA

117

**HAU EGUNA, HAU, JAUNAK EGINA,
GURE POZA TA GURE ATSEGINA.**

Eskerrak Jaunari, ona baita,
Haren maitasuna betikoa baita.
Israel etxeak hau esan beza:
'Haren maitasuna betikoa'.

'Jaunaren eskuinak nau altxatu,
Jaunaren eskuina bizkor da jokatu'.
Hil ez, baina bizi naiz egingo,
Jaunaren eginak nik oihu egingo.

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

3,1-4

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabilzate goi-
ondasunen bila, han baitago Kristo, Jaungoikoaren eskuin-aldean
jarririk. Irrika itzazue goiko ondasunak, eta ez lurkekoak. Hil
baitzarete; eta zuen bizia Kristorekin Jaungoikoagan ezkutaturik
dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko
zarete aintzaz Harekin batean.

(Beste irakurgai hau ere egin daiteke)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

5,6b-8

Senideok: Ez al dakizue, legami-apur batek ore guztia
harrotzen duela? Bazter ezazue legami zaharra, ore berri izan
zaitezten, ogi hila zaretenez gero. Opari eskainia izan bait da Kristo,
gure Bazko-bildotsa. Ospa dezagun, beraz, Bazko-jai, ez legami
zaharrarekin –ez ustelkeriazko eta gaiztakeriazko legamiarekin–,
egiaren eta zintzotasunaren ogi hilekin baizik.

ALELUIA Opari eskainia izan da Kristo, gure pazko-bildotsa.
Ospa dezagun, beraz, Jaunagan. **ALELUIA!**

JAUNAREN BIZTUERAKO BAZKO-IGANDEA

Eguneko Eukaristia

Sarrerako antifona

Piztu naiz eta oraindik ere Zurekin nago; eskua gainean ezarri didazu, guztiz harrigarria zait zure jakitea. Aleluia.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna,
egun honetan heriotza garaitu duen zure Semearen bidez,
betiereko biziaren ateak zabaldu dizkiguzu;
iguzu, gure Jaunaren piztuera ospatzen dugunok,
Espiritu Santuak berriturik,
geure piztuerako itxaropenean bizi gaitzela.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Apostoluen Eginetatik**10,34a.37-43**

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen: badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio-ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin baitzegoen.

Gu gara, Harek juduen lurretan eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Haiek, habe batetik zintzilakatu eta hil egin zuten. Baina, hirugarren egunean Jaungoikoak piztu egin zuen, eta agertzea eman zion; ez ordea, herri guztiari, Jaunak lehendik aukeratutako testigui baizik: guri, Hura hilen artetik piztu ondoren, Harekin jan eta edan genuenoi.

Eta agindu zigun, herriari erakus geniezaiola eta aitortu, Bera dela Jaungoikoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak egiten diote aitormen: Harengan sinesten duten guztiak hartzen dutela, Beraren izenean, bekatuen barkamena.

GARIZUMAKO IV IGANDEA**Sarrerako antifona**

Poztu zaitezte Jerusalemekin, maite duzuen guztiok egin jai harekin; alaitu eta poztu harekin, dolu egin zenutenak harengatik, asetzeraino edoskiko bait duzue haren bularren gozoa.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, zure Hitza gizon eginik,
miragarriri adiskidetu zenituen
gizon-emakume guztiak Zeurekin;
egizu, kristau herria,
maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila bazko-jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Samuelen liburutik**1 Sm 16,1b.6-7.10-13a**

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Samuel-i: "Bete adarra olioaz, eta zoaz! Belengo Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeetan bat begiz jo bait dut nere erregetarako".

Iritxi zenean, Eliab ikusita, honela esan zuen bere baitan: 'Ez ote da hau Jaunaren gantzutua?' Baina Jaunak esan zion Samuel-i: "Ez begiratu horren itxura eta luzeari, alde batera utzia daukat-eta. Jaungoikoak ez dio begiratzen, gizonak begiratzen diotenari. Gizonak gorputz-itxurari begiratzen diote; Jaungoikoak, bihotzari".

Bere zazpi semeak sarrarazi zituen Jeseke Samuelengana; baina honek esan: 'Jaunak ez du hoietakorik inor aukeratu'. Orduan Samuelek galdetu zion Jese-ri: 'Ez al da beste semerik?' Eta harek erantzun: 'Bai, txikiena; ardi-zain dabil'. Eta Samuelek Jese-ri: 'Bidal ezazu norbait haren bila; ez gara jaten hasiko, hura etorri arte'. Ekarrarazi zuen, beraz, eta etorri zen: hile-gorri zen, begi-eder, ikusgarria mutila. Eta Jaunak esan zion Samueli: "Jaiki zaitez eta gantzutu ezazu; hori da".

Hartu zuen, beraz, Samuelek olio-adarra, eta gantzutu zuen bere anaien erdian. Egun hartatik, Jaunaren espiritua Dabid-en jabe egin zen.

ERANTZUN-SALMOA 22**JAUNA DUT ARTZAIN,
EZ NAIZ EZEREN BEHARREAN.**

Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean:
larre gurietan etzan erazten nau.
Atsedenezko iturrira narama,
eta birbizten dit barrena.
Banarama bidezior zuzenetatik,
bere izenagatik.

Ibar ilunetan banabil ere, ez nago gaitz-beldur,
Zu nerekin bait zaude:
zure zigorra eta makila
hauek dira nere poza.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei 5,8-14

Senideok: Lehen, bai, ilunpe zineten; orain, ordea, kristau bezala, argi zarete. Zabiltzate, beraz, argiaren seme-alaba bezala: on izate, zuzentasun eta egia guztia argiaren fruitu baita. Aztertu, Jaunari zer zaion atsegin. Ez izan harremanik ilunpeko egintza usteletan, sala itzazue baizik. Izan ere, ezkutuan egiten dutena, esateko ere lotsagarri da. Argiak guzti horiek salatzen dituenean, agerian uzten ditu. Eta agerian dagoen guztia, argitasunez jazten da. Horregatik, esaten da: *Esna zaitez, lo zauden hori! Jaiki zaitez hilen artetik, eta Kristok argituko zaitu.*

EBANJELIOA

Ni naiz munduaren argia -dio Jaunak-;
Nere ondoren datorrenak izango du bizirako argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 9,1-41

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoalarik, gizon bat ikusi zuen, jaiotzez itsua. [Eta ikasleek galdetu zioten: 'Maisu, nork egin du bekatu: honek ala honen gurasoek, hau itsu jaiotzeko?']

Eta Jesusek erantzun: "Ez honek, ez honen gurasoek; baizik-eta Jaungoikoaren egintzak horrengan ager daitezen gertatu da hori. Egun-argi dela egin behar ditut, bidali nauenaren egintzak; ba dator gaua, eta orduan inork ez ditzake egin. Munduan nagoen bitartean, munduaren argia naiz". Hau esan da,] bota zuen listua lurrera, eta listuz lohia eginik, lohiaz igurtzi zizkion begiak itsuari; eta esan zion:

G./ Sinesten al duzue Jainko Aita ahalguztiduna, zero-lurren egilea?

E./ Bai, sinesten dut.

G./ Sinesten al duzue Haren Seme bakar
Jesu Kristo gure Jauna,
Maria Birjinagandik jaioa,
oinazetan hila eta hobiratua,
hilen artetik biztua
eta Aitaren eskuin aldean jarririk dagoena?

E./ Bai, sinesten dut.

G./ Sinesten al duzue Espiritu Santua,
Eliza santu eta katolikua,
santuen elkartasuna, bekatuaren barkamena,
hilen biztuera eta betiko bizitza?

E./ Bai, sinesten dut.

Jaungoiko Ahalguztidunak,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak,
uraren eta Espiritu Santuaren bitartez
jaiotza eta bekatuen barkamena eman digunak,
Berak gorde gaitzala, Kristo gure Jaunarengan,
betiko bizitarako. AMEN.

Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, eskaintza honekin batera, zeure herriaren otoitzak, bazko-misterioetan hasi duguna, zure indarrez betiko bizitarako sendogarri izan dakigun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 20 or.)

Jaunartze antifona

Opari eskainia izan da Kristo, gure pazko-bildotsa; ospa dezagun, beraz, Pazko-jai, egiaren eta zintzotasunaren ogi hilekin, aleluia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isur iezaiguzu, Jauna, zure maitasun-espirtua, Pazko-sakramentuez ase gaituzunok zure maitasunean bat egin gaitzazun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Bataioaren aginduak berritzea (Hirugarren era)

Senide maiteok: Bazko-misterioaren bidez, Kristorekin hil eta hobiratuak izan gara, Berarekin bizi berrian bizi gaituzen. Horregatik, Garizumako ekitaldiari azkena ematerakoan, berri ditzagun Bataio santuan agindutakoak, eta, Satanasi eta haren egiteei uko eginez, Eliza santu katolikua jarraitzaile zintzo izango garela hitzeman dezagun.

G./ Uko egiten al diozue Satanasi, (hau da:

*Jainkoa ukatzea den bekatuari;
munduan bekatuaren ezaugarri den gaitzari;
egiaren itsukeria den hutsegiteari;
maitasunaren aurkakoa den indarkeriari;
maitasunik-eza agertzen duen berekoikeriari?)*

E./ Bai, uko egiten diot.

G./ Uko egiten al diezue haren egintza guztiei, (hau da:

*zuen gorroto eta bekaizkeriei;
zuen alferkeria eta axolagabekeriei;
zuen beldurkeria eta fidakaizkeriei;
zuen ilunaldi eta sinesgaizkeriei;
zuen zuzentasun-ezari eta norkeriei;
zuen materialismo eta atseginkeriei;
zuen sinesmenik, itxaropenik eta maitasunik ezari?)*

E./ Bai, uko egiten diet.

G./ Uko egiten al diezue haren lilurakeria guztiei, (hau da:

*zeuen buruak besteenak baino hobetzat edukitzeari;
besteak baino gehiago zaretela uste izateari;
zeuengan uste gehiegi edukitzeari;
oso onak zaretela eta ez daukazuela
Jaunarengana bihurtu beharrik uste izateari;
Jaungoikoarengana joan beharrear, gauzetan eta erakundeetan gelditzeari?)*

E./ Bai, uko egiten diet.

- "Zoaz eta garbi zaitetz Siloeko ur-askan". (Siloek, 'Bidalia' esan nahi du).

Joan zen itsua, garbitu eta ikusten zuela itzuli zen. Auzokoek eta eskean ikusten zutenek esaten zuten:

- 'Ez al da hau, hor eserita eskean egoten zena?'

Batzuek zioten: 'Bai, bera da'.

Beste batzuek: 'Ez, haren antzeko bat da'.

Berak, berriz, zioen:

- 'Huraxe naiz'

[Orduan esan zioten: 'Nola ireki zaizkizu, bada, begiak?'

Eta hark erantzun: 'Jesus esaten dioten gizon horrek, lohia egin zuen, igurtzi zizkidan begiak, eta esan zidan: "Zoaz Siloera eta garbi zaitetz". Orduan joan nintzen, garbitu, eta ikusten hasi nintzen.

Galdetu zioten: 'Non da Hori?'

Erantzun zien: 'Ez dakit'.]

Farisearren aurrera eraman zuten itsu izana. (Larunbata zen, Jesusek lohia egin eta begiak ireki zizkion eguna). Farisearek ere galdetu zioten nola argitu ziztaizkion begiak. Hark erantzun zien:

- 'Lohia jarri zidan begietan, garbitu nituen, eta ikusten dut'.

Farisear batzuek zioten: 'Gizon hori ez dator Jaungoikoarengandik; ez du larunbata jai egiten'.

Beste batzuk, berriz: 'Bekatarri batek nola egin dezake horrelako ezaugarririk'.

Eta ez zetozen bat. Berriz galdetu zioten itsuari:

- 'Zuk zer dela deritzazu, begiak ireki dizkizun Hori?'

Eta hark: 'Profeta dela'.

[Hala ere, judutarrek ez zuten sinetsi nahi, gizon hura itsu izan eta argitu zenik, gurasoei deitu eta galdetu zieten arte:

- 'Hau al da, itsu jaio zela diozuen zuen semea? Nolatan ikusten du, bada, orain?'

Gurasoek erantzun zieten: 'Guk ba dakigu, gure semea dela eta itsu jaio zela. Baina orain nola ikusten duen ez dakigu, eta begiak nork ireki dizkion, hori ere guk ez dakigu. Galde berari; ez da haurra; eman dezala berak bere berri'.

Judutarren beldurrez hitzegiten zuten gurasoek honela; ordurako bat eginda bait zeuden judutarrak, Jesus Kristotzat aitortzen zuten guztiak sinagogatik botatzeko. Horregatik esan zuten gurasoek: 'Ez da haurra; galde iezaiozue berari'. Bigarren aldiz deitu zioten itsu izanari, eta esan zioten:

- 'Aitor ezazu Jaungoikoaren aurrean. Guk ba dakigu, gizon hori bekatarri dela'.

Eta hark: 'Bekatarri den ala ez, nik ez dakit. Hauxe dakit nik: lehen itsu nintzela, eta orain ikusten dudala'.

Haiek berriro: 'Zer egin dizu? Nola ireki zizkizun begiak?'

Hark erantzun zien: 'Esan dizuet lehen ere, eta ez didazue sinetsi. Zertarako entzun nahi duzue berriro? Zuek ere Haren ikasle izan nahi al duzue?'

Orduan gaizki-esaka ekin zioten: 'Zu izango zara Horren ikasle; gu Moisesen ikasle gara. Ba dakigu Jaungoikoak Moisesi hitzegin ziola; baina Hau ez dakigu nongoa den'.

Hark orduan: 'Hori da, bada, harrigarria: zuek ez dakizuela nongoa den, eta Hark niri begiak ireki dizkidala. Ba dakigu, Jaungoikoak ez diela bekatariei entzuten; baizik-eta jainkozale denari eta Haren nahia egiten duenari. Egundaino ez da entzun, itsu jaiotako bati inork begiak argitu dizkionik. Honek, Jaungoikoagandik ez balitz, ezingo luke ezer egin'.]

Erantzun zioten: 'Bekatu huts zara jaiotzetik, eta zu guri erakusten?'

Eta kanpora bota zuten. Entzun zuen Jesusek bota egin zutela eta, aurkitu zuenean, galdetu zion:

- "Sinesten al duzu zuk Gizonaren Semea?"

Hark erantzun:

- 'Nor da Bera, sinets dezadan?'

Jesusek orduan:

- "Ikusten duzuna, zurekin hizketan ari dena, Bera da".

Hark orduan: 'Sinesten dut, Jauna'.

Eta aurrean ahuspeztu zitzaion.

[Jesusek orduan esan zuen: "Epai baterako etorria naiz Ni mundu honetara, ikusten ez dutenek ikus dezaten, eta ikusten dutenak itsu geldi daitezen".

Harekin zeuden farisear batzuek entzun zuten hori, eta esan zioten: 'Beraz, itsuak gara gu ere?'

Jesusek erantzun zien: "Itsuak bazinate, ez zenukete bekaturik. Baina *'ikusten dugu'* bait diozue, zuen bekatuak irauten du".]

Oparigaien otoitza

Jauna, pozik egiten dizugu
betiko sendagarri dugun eskaintza,
eta apalik eskatzen:
opari hau begirunez ospa dezagula
eta munduaren salbamenerako eskaini.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Bataio-ura bedeinkatzea

Jauna, gauza harrigarriak egiten dituzu sakramentuetan
zeure indar ezkutua,
eta era askotan erabili izan duzu ura
Bataioko grazia guri adierazteko.
Jauna, munduaren hasieratik
zure Espiritua ba zebilen ur gainean,
ordutik har zezan urak santutzeko indarra.
Jauna, uholde haundiko uren bidez erakutsi zenigun,
bizi berria ematen digun Bataio bera izango zela
bekatuaren heriotza eta santutasunaren jaiotza.
Jauna, Abrahamen ondorengoak, Itsaso Gorrian zehar,
oinik busti gabe eraman zenituen,
Faraonen menpetik ateratako herria
bataiatuen irudi izan zedin.
Jauna, zure Semea Jordan-ibaian Joanek bataiatu zuenean,
Espiritu Santuaz gantzutua izan zen;
gurutzean zegoela,
bere saihestetik ura eta odola isuri zituen;
eta biztu ondoren, honela agindu zien ikasleei.
"Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik,
eta bataia itzazue
Aitarenean, eta Semearenean, eta Espiritu Santuarenean".
Orain, beraz, Jauna,
begira iezaiozu zure Elizari,
eta sortu berarengan bataio-iturria,
ur honek har beza Espiritu Santuarengandik
zure Seme bakarraren grazia;
zure antzeko egina izan den gizona,
Bataioaren bidez zikin guztitik garbituta,
uretik eta Espiritutik bizitza berrira jaio dadin.
Jauna, zure Semearen bidez,
jaiotsi bedi ur guzti honetara
Espiritu Santuarenean indarra,
Bataioan Kristorekin hil eta hobiratuak,
Berarekin biztu daitezzen bizirako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Gregorio santua,	otoitz gure alde.
Agustin santua,	“
Atanasio santua,	“
Basilio santua,	“
Martin santua,	“
Benito santua,	“
Frantzisko eta Domingo santuak,	“
Joan Maria Vianney santua,	“
Sienako Katalina santua,	“
Avilako Teresa santua,	“
Armentiako Prudentzio santua,	“
Loiolako Inazio santua,	“
Xabierko Frantzisko santua,	“
Mikel Garikoitz santua,	“
Balentin Berriotxo santua,	“
Jainkoaren santu guztiak,	otoitz gure alde.
Ager zakizkigu errukior,	gorde gaitzazu, Jauna.
Gaitz guztietatik,	“
Bekatu guztitik,	“
Betiko heriotzatik ,	“
Zure gizon egiteagatik,	“
Zure Heriotza eta Biztueragatik,	“
Espiritu Santuaren etorreragatik,	“
Guri, bekatariei,	entzun iezaiguzu.
Bataio-iturri hau,	
zure seme-alabak sortzeko	
zeure graziaz santu egin diezazula	“
Jesus, Jainko biziaren Seme	“

Jainko ahalguztidun betierekoa,
ager zaitez indartsu
zure erruki handiaren sakramentu honetan;
bidal ezazu zure seme-ordeko egiten gaituen Espiritua,
bataio-iturri honetatik jaioko diren zure seme-alabetara,
gure egintza apalez egingo dugunak,
zure graziaren indarrez, fruitu ugaria ekar dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, gizon egin zeneko misterioaren bidez,
sinesmenaren argira eraman du
ilunpetan zebilen gizona.
Eta jaiotza berriko uraren bidez
Jainkoaren seme-alaba egin gaitu
bekatuaren menpean sortuak geranok.

Horregatik, zeruko eta lurrekoek
kantu berria abesten dizute;
eta guk ere, aingeru guztiekin batean,
beti eta beti (esaten) abesten dizugu:

Jaunartzeko antifona

Jaunak igurtzi zizkidan begiak; orduan joan, garbitu eta ikusten
hasi nintzen, eta Jainkoarengan sinesten.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko Jauna, Zuk argitzen dituzu
mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
argitu zure graziaren ditziraz gure gogo-bihotzak,
benetan ezagutu
eta maitasun haundienaz maita zaitzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

GARIZUMAKO V IGANDEA

Sarrerako antifona

Egidazu auzi, Jainko, zaindu nere auzia bihotz gabeko jendeagandik, begira nazazu gizon maltzur eta makurragandik; Jainko, nere babesa bait zara Zu.

Kolekta otoitza

Jainko gure Jauna,
zure Semeak, mundua maite zuelako
eta mundua salbatzeagatik,
heriotzara eraman zuen bere burua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

Ezekiel Profetaren liburitik

37,12-14

Honela mintzo da Jauna:

-“Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zuen hilobietatik eta eramango zaituztet berriro Israelgo lurrera. Eta Nik zuen hilobiak irekitzean, eta zuen hobietatik ateratzean, ene herri, orduan ezagutuko duzue, Ni naizela Jauna. Nere espiritua emango dizuet Nik eta zuek bizi-berrituko zarete; eta zeuron lurrean ezarriko zaituztet, eta ezagutuko duzue, Nik, Jaun honek, esan eta egin egiten dudala”

ERANTZUN-SALMOA

129

JAUNAGAN DAGO ERRUKIA, HARENGAN ASKATASUN UGARIA.

Barnenetik Zuri dagizut oihu, Jauna,
entzun, Jauna, nere mintzoa.
Beude erne zure belarriak,
nere oihu-eskarira.

Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna,
nor dagoke zutik, Jauna?
Baina barkamena Zugar daukazu,
Zu begirunez serbi zaitzagun.

Aingeruaren aurpegiak tximista zirudien, eta soinekoek elur zuria; zaintzaileak beldurrez dardarka eta hilda bezala gelditu ziren. Aingerua honela mintzatu zitzaizen emakumeei:

- “Zuek ez izan beldurrik! Ba dakit Jesus gurutziltzatuaren bila zatoztela; ez dago hemen; biztu da, Berak esan zuen bezala. Zatozte eta ikus, ehortzirik zegoen lekua. Zoazte azkar Haren ikasleengana, eta esaezue: ‘Biztu da hilen artetik, eta hor doakizue aurretik Galileara. Han ikusiko duzue’. Horra Nik esan”.

Hilobitik arin-arin aldegin, eta bihotz-ikaraz eta pozaren pozez lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Halako batean, bidera atera zitzaizen Jesus, eta esan zien:

- “Poztu zaitezte”.

Haiak hurbildu ziren eta ahuspez oinak besarkatu zizkioten.

Orduan Jesusek esan zien:

- “Ez izan beldurrik! Zoazte eta esan nire senideei, Galileara joateko; han ikusiko naute”.

III. BATAIOAREN LITURGIA

Senide maiteok: Eska diezaiozun Jaungoiko Jaunari santu egin dezala ur hau, ur honetatik bizi berrira jaioko direnak, Kristorengan semeordeko egin daitezen.

Santuen litaniak

Erruki, Jauna.	Erruki, Jauna.
Kristo, erruki.	Kristo, erruki.
Erruki, Jauna.	Erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Ama, Maria santua,	otoitz gure alde.
Mikel Santua,	otoitz gure alde.
Jaungoikoaren aingeru santuak,	“
Joan Bataiatzaile santua,	“
Jose santua,	“
Pedro eta Paulo santuak,	“
Andres santua,	“
Joan santua,	“
Maria Magdalena santua,	“
Esteban santua,	“
Antiokiako Inazio santua,	“
Lorentzo santua,	“
Perpetua eta Felizitas santuak,	“
Ines santua,	“

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 6,3-11

Senideok: Bataioz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, Haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez Berarekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitzen.

Izan ere, gure izatea Berarekin bat eginik baldin badago Harena bezalako heriotzan, berdin egongo da Harena bezalako piztueran ere. Ezagutu dezagun, gure aintzinako gizona Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatzuko izaera hau ezereztua geldi zedin eta, horrela, gu geurok bekatuaren murrontzatik askatuak izan gaitzen. Norbait hiltzen denean, bekatutik askatua gelditzen baita.

Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere Berarekin biziko garela; izan ere, badakigu Kristo hilen artetik piztu zenez gero, ez dela berriro hilko; Heriotzak ez du Harengan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen; eta Haren bizitza, Jaungoikoarentzat bizitza da. Horrela, bada, zuek ere eduki itzazue zeuron buruak bekatuarentzat hilak bezala eta Jaungoikoarentzat biziak, Kristo Jesus gure Jaunagan.

**ALELUIA, ALELUIA,
ALELUIA, ALELUIA!**

Eskerrak Jaunari, ona baita,
Haren maitasuna betikoa bait da.
Israel etxeak hau esan beza:
“Haren maitasuna betikoa”.

Jaunaren eskuinak nau altxatu,
Jaunaren eskuina bizkor da jokatu.
Hil ez, baino bizi naiz egingo,
Jaunaren eginak nik oihu egingo.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 28,1-10

Larunbat biharamunean, astearen lehenengo eguna argitzean, Maria Magdalena eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. Eta, halako batean, lurrikara haundi bat izan zen; Jaunaren aingeru bat zerutik etorri bait zen eta, hurbildurik, harria bere lekutik irauli zuen eta gainean eseri zen.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,8-11

Senideok: Haragiaren menpean aurkitzen direnak, ezin izan gogoko Jaungoikoari.

Zuek, ordea, ez zarete haragiaren menpean aurkitzen, Espirituaren menpean baizik, Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan badago, ordea, gorputza hila dago, bekatuarengatik; espiritua, berriz, bizirik zuzentasunagatik. Jesus hilen artetik biztu zuenaren Espiritua zuengan bizi bada, Jesus hilen artetik biztu zuenak, bizieraziko ditu zuen gorputz hilkorak ere, zuengan bizi den bere Espirituaren bitartez.

EBANJELIOA

Ni naiz biztuera eta bizia -dio Jaunak-;
Nigan sinesten duena, ez da inoiz hilko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 11,1-45

Aldi hartan, [Ba zen gaiso bat Lazaro izenekoa, betaniarra, Mariaren eta honen ahizpa Martaren herrikoa; (Maria hau zen, Jesus gantzu usaigozodunetz igurtzi zuena, eta oinak bere ile-adatsez txukatu zizkiona. Honen anaia Lazaro zen gaiso zegoena).]

Lazaroren bi ahizpek albiste hau bidali zioten Jesusi: ‘Jauna, Zuk maite duzuna gaiso dago’.

Jesusek, hori aditzean, esan zuen:

- “Gaitz hau ez da hiltzeko gaitz; Jaungoikoaren aintzarako baizik, gaitz honen bidez Jaungoikoaren Semea goretsia izan dadin”.

Maiteak zituen Jesusek Marta, honen ahizpa eta Lazaro. Hau gaiso zegoela entzunda ere, beste bi egunez lehen zegoen lekuan jarraitu zuen. Eta egun haien buruan honela esan zien bere ikasleei: “Goazen berriz ere Judeara”.

[Ikasleek esan zioten: ‘Maisu, orain berriki harrikatu nahi zintuzten judutarrek, eta hara joan behar al duzu berriro?’

Eta Jesusek: “Ez al ditu egunak hamabi ordu? Egunez dabilena ez da behaztopatzen, ikusten bait du mundu honetako argia; gaez dabilenak, ordea, behaztopa egiten du, ez bait du argirik”.

Eta jarraitu zuen: “Gure adiskide Lazaro lo dago; esnatzera noakio”.

Ikasleek esan zioten: ‘Jauna, lo badago, esnatuko da’.

(Jesusek heriotzea esan nahi zuen; haiek, ordea, loa esan nahi zuela uste zuten). Orduan Jesusek garbi esan zien: “Lazaro hil egin da eta, zuengatik, pozten naiz han ez ginelako, zuek sinets dezazuen. Goazen hara”.

Tomasek, Bizkia zeritzanak, honela esan zien beste ikasle-lagunei: ‘Goazen gu ere, eta hil gaitzen Berarekin batera’.]

Etorri zen, bada, Jesus, eta Lazaro lau egun haietan hilobian zegoela aurkitu zuen.

[Jerusalendik Betaniara orduerditsuko bidea besterik ez dago. Judutar asko etorri zitzairen Martari eta Mariari, anaiarengatik samin-agurra egitera.]

Jesus zetorrela jakin zuenean, Marta bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi:

- 'Jauna, Zu hemen gertatu bazina, nere anaia ez zen hilko. Hala ere ba dakit, Zuk Jaungoikoari eska-hala guztia, Jaungoikoak emango dizula'.

Jesusek erantzun zion: "Biztuko da zure anaia".

Eta Martak: 'Badakit biztuko dela biztuerakoan, azken egunean'.

Eta Jesusek: "Ni naiz biztuera eta bizia; Niregan sinesten duena, hilik ere, biziko da; eta Niregan sinetsiz bizi dena, ez da inoiz hilko. Sinesten al duzu hori?"

Eta Martak: 'Bai, Jauna, sinesten dut nik, Zu zarela Mesias, Jaungoikoaren Semea, mundu honetara etortzekoa zena'.

[Eta hau esanda, bere ahizpa Mariari deitzera joan zen, eta honela esan zion isilka: 'Maisua hor dago, eta dei egiten dizu'.

Hori entzutean, Maria berehala jaiki eta Jesusengana joan zen. Oraindik ez zen Jesus herrian sartu; Martak topatu zuen lekuan zegoen.

Etxean Mariari nahigabea laguntzen zeuden judutarrek, bat-batean jaikita joaten ikusi zutenean, jarraitu egin zioten, hilobira zihoalakoan negar egitera. Maria, Lazaroren arreba, Jesus zegoen tokira iristean, Hura ikusi zueneko, oinetara erori zitzaion ahuspez, eta esan zion: 'Jauna, Zu hemen gertatu bazina, nire anaia ez zen hilko'.]

Jesusek, [Maria eta harekin etorritako judutarrak negarrez ikusi zituenean,] barru-barrutik kupiturik, galdetu zuen: "Non sartu duzue?"

Mariak erantzun zion: 'Jauna, zatoz eta ikus'.

Eta Jesusek negarrari eman zion. Judutarrek, orduan, honela zioten: 'Begira zein maitea zuen!'

Haietako batzuek, berriz, zioten: 'Itsuari begiak ireki zizkion Honek, ez al zezakeen egin hau hil ez zedila?'

Jesus, berriro barrutik antsika, hilobira hurbildu zen. Haitzulo bat zen, eta harlosa bat gainean. Jesusek esan zuen: "Ken harlosa hori!"

Hildakoaren arreba Martak esan zion: 'Jauna, usaia dario; lau egun baditu'.

Eta Jesusek erantzun: "Ez al dizut esan, sinesten baduzu, ikusiko duzula Jaungoikoaren aintza?"

BASAUNTZA ITURRIEN IRRIKA BEZALA, HALA DAUKAT, JAINKO, GOGOIA IRRIKAZ ZUGANA.

Nere gogoia Jainkoaz, Jainko biziagaz egarri da, noiz noake Jainkoaren aurpegia ikustera. Urtzen zait barnean gogoia hau oroitzu: nola joaten nintzen Jainkoaren etxera, irrirtzika ta goraka, jendetzaren aurrean, jaitarrekin batera.

Bidal zure argia ta zure egia, hauek eraman nazate, zure mendi santura, zure jauretjolara, sar nazate. Eta sartuko naiz Jainkoaren aldarera, poz eta atsegin dudana Jainkoagana, kitaraz goretsiko zaitut Jauna, ene Jainkoa.

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna, indar alda-ezina eta argi ilundu-ezina, begira iezaiozu bihotz onez Eliza osoaren misterio harrigarriari eta, betidanik nahi izan duzun bezala, buka ezazu bakean gizon-emakume guztien salbamen-egintza; mundu guztiak ezagutu dezala gauza miragarri hau: erorita zegoena altxatua izan dela, zaharra berritua eta dena lehengo neurrian ezarria, diren guztien hasiera den zure Seme eta gure Jaun Jesu Kristori esker. Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

AINTZA

Kolekta otoitza

Jainko Jauna, gau santu hau Kristo hilen artetik biztuaren ditziraz argitzen duzu; gorde ezazu zeure Elizako seme-alabetan Zuk emandako seme-bihotza; gorputz-arimaz berriztaturik, bete-betea zure serbitzari izan gaitezen. Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

7.- Ezekiel profetaren liburutik 36,16-17a.18-28

Jaunaren hitza etorri zitzaidan, eta honela esan zidan: “Gizonaren seme! Israel-etxeak, bere lurtean bizi zelarik, lohitu egin zuen lurra bere bizitzaz eta egitez. Orduan haien gainera isuri nuen nere haserre, lurralde hartan odola isuri zuelako, eta sasi-jainkoekin zikindu zutelako. Atzerrietan barreiatu nituen, lurraldeetan sakabanatuak ibili ziren. Beren bizitzaren eta egiteen arauera epaitu nituen. Joan ziren herrietan, nire izen santua itsusitu egin zuten; honela esaten zuten haietaz: ‘Jaunaren herria dira horiek, eta Haren lurra utzi egin behar izan dute’. Baina erruki izan nion, joan zen herrietan Israel etxeak itsusitu zuen nire izen santuari. Esaiozu, beraz, Israel herriari: Honela mintzo da Jauna:

Ez naiz zuegatik ari, Israel etxe;
 baizik eta joan zareten herrietan
 zuek itsusitu zenuten nire izen santuagatik.
 Santu agertuko dut Nik neure izen haundia,
 atzerrietan lohitua izan dena,
 lohitu egin baituzue haien artean;
 eta zuek zigortzean,
 haien begientzat santu azaltzen naizenean,
 -dio diren guztien Jaunak-,
 herri haiek ezagutuko dute,
 Ni naizela Jauna.
 Nik hartuko zaituztet atzerrietatik,
 lur guztietatik bilduko,
 eta zuen lurraldera ekarriko.
 Ur garbiz ziprztinduko zaituztet,
 eta garbituko zarete zikin guztiatik;
 garbituko zaituztet zuen sasijainkoetatik.
 Bihotz berria emango dizuet
 eta barnean arnasa berria ezarriko dizuet.
 Kenduko dut zuen haragitik harrizko bihotza,
 jarriko dizuet haragizko bihotza.
 Nire arnasa zuen barnean ipiniko dut
 eta nire legebidean ibilaraziko zaituztet,
 nire aginduak zaindu ditzazuen eta bete.
 Nik zuen arbasoei emandako lurtean biziko zarete:
 nire herri zarete zuek izango eta Ni zuen Jainko.

Kendu zuten, bada, harria. Orduan, Jesusek begiak zerura jasorik, honela hitzegin zuen: “Aita, eskerrak Zuri, entzun didazulako. Nik ba dakit, beti entzuten didazula; baina inguruan dauzkadan hauengatik esaten dizut, Zuk bidali nauzula sinets dezaten”.

Hau esanda, oiheu egin zuen ozenki: “Lazaro, atera zaitez kanpora!”

Atera zen hilda zegoena, esku-oinak odol-zapiz lotuak zituela, eta aurpegia hil-oihalez estalia. Jesusek esan zien: “Aska ezazue eta utzi ibiltzen”.

Egin zuena ikusita, Mariaren eta Martaren etxera etorritako judutar askok sinetsi zuten Jesusengan.

Oparigaien otoitza

Entzun iezaiguzu, Jainko ahalguztiduna,
 eta egizu, opari honek garbi gaitzala
 kristau sinesmenaz argitu gaituzunok.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
 nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Egiazko gizona da, izan ere,
 Lazaro adiskidearengatik negar egin zuena;
 eta betiko Jainkoa,
 hildakoa hobitik atera zuena.

Berak, gizon-emakume guztietaz errukiturik,
 bizi berrira eramaten gaitu,
 salbameneko sakramentuen bidez.

Beronen bitartez,
 zure haunditasuna aitortzen dute aingeruek,
 beti pozez elkarturik zure aurrean.
 Onar ezazu, Jauna,
 haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere
 geure kantu-hotsak:

Jaunartzeko antifona

Nigan sinestuz bizi dena ez da inoiz hilko –dio Jaunak.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
 iguzu,
 orain Kristoren gorputz-odolekin bat egin dugunez gero,
 beti Haren gorputzeko atal izan gaitzela.
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

deitzen ditu, eta 'hemen gaituzu' erantzuten diote,
 eta pozik ditziraten dute beren Egilearentzat.
 Hau da gure Jaungoikoa;
 ez da besterik, hau bezalakorik.
 Berak aztertu ditu jakintzaren bide guztiak;
 eta bere seme Jakobi erakutsi dizkio,
 bere maite Israeli.
 Gero lurrean agertu zen,
 eta gizonen artean bizi izan zen.
 Bera da Jaungoikoaren aginduen liburua,
 betiko irauten duen legea;
 hura gordetzen dutenak, biziko dira,
 eta bazterrera uzten dutenak, hil egingo.
 Itzul zaitez, Jakob, onar ezazu;
 zabilta haren argiaren ditziratan.
 Ez utzi besteei zure aintzarik,
 ezta jende arrotzari ere zure duintasunik.
 Zorionekoak gu, Israel,
 Jaungoikoari atsegin zaiona dakigunok.

**ZUK DAUZKAZU, JAUNA,
 BETIKO BIZIAREN HITZAK.**

Jaunaren legea bikain, barrena birbizteko,
 Jaunak hotsegina sendo, ezikasiak eskolatzeko.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren asegarri,
 Jaunaren aginduak garbi, begien argi.

Jaunaren beldurra garbi, iraungarri betiko,
 Jaunaren erabakiak egiazko, guztiak orobat bidezko.
 Urrea baino, urre araztua baino maitagarriago,
 eztiորrazia baino gozoago.

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna,
 zure Eliza beti haundiago egiten diharduzu,
 gizon-emakume guztiak bertara deituz;
 zaindu itzazu, zeure babespean,
 Bataioko uraz garbitu dituzunak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Egin dezagun otoitz

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 munduaren itxaropen bakarra,
 profeten ahoz, alde zurretik erakutsi dituzu,
 orain betetzen diren misterioak;
 piztu zure herriaren asmo onak,
 zure graziaz gabe,
 fededunak ez bait dezake onbidean aurrera egin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

6.- Baruk profetaren liburutik 3,9-15.32-4,4

Adi itzazu, Israel, bizi-aginduak;
 entzun, zuzentasuna ikasteko.
 Zergatik, Israel,
 zergatik zaude oraindik etsaien herrian?
 Zergatik atzerrian zahartzen ari zara?
 Zergatik zaude gorputz hilekin kutsaturik,
 hilen artean jausten diren lerroan hartua?
 Utzi egin baituzu jakinduriaren iturria.
 Jainko-bideetan ibili bazina,
 bakean bizi zintezkeen betiko.
 Ikas non dagoen zuhurtasuna,
 non indarra eta adimena;
 jakin dezazun era berean
 non aurkitzen den bizi luzea,
 begietako argia eta bakea.
 Baina nork aurkitu du haren bizilekua?
 Nor sartu da haren ondasundegian?
 Baina gauza guztiak dakizkienak,
 ezagutzen du jakinduria,
 eta aztertzen eta sakontzen du.
 Lurra betirako sendo ezarri zuenak,
 eta lauoineko bizidunez bete zuenak;
 agintzen dio argiari eta berehala badihoa;
 deitzen du eta esana egiten dio ikaraz.
 Berdin izarrek ere, beren zelata-tokietatik
 argia pozik ematen dutenek,

JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA**Monizioa**

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan, bihotzak prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurbil dugu Bazko-jaiak. Eliza guztiarekin batean bildu gara gaur, Jaunaren bazko-misterioari hasiera emateko. Misterio hori, Jesu Kristoren nekaldia eta biztuera dira. Misterio hori betetzeko sartu zen Jesus Jauna Jerusalemgo iri santuan. Beraz, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroipena ospa dezagun fedez eta maitasunez, eta jarrai diezaiozun eta lagundu gure Jaunari, Haren gurutzear bat eginda, Haren biztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 bedeinka itzazu + erramu-adar hauek;
 eta egizu, Kristo gure Erregeri
 goraka eta kantari jarraitzen diogunok
 Haren bidez betiereko Jerusalem iritxi gaitzela.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Prozesioko EBANJELIOA**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,1-11**

Jerusalem-era hurbildu eta Oliomendi ondoan dagoen Betfage herrira iritsi zirenean, Jesusek bere bi ikasle bidali zituen, esanez:

- "Zoazte aurreko auzo horretara, eta berehala aurkituko duzue asto bat lotua, bere umearekin; askatu eta ekariezaidazue. Inork ezer esaten badizue, erantzun: 'Jaunak behar ditu, eta berehala itzuliko dizkizu'".

Hau guztia gertatu zen profetak esana bete zedin: Esaiozue Siongo alabari: "*Horra non datorkizun zeure erregea, apal-apal, asto gainean eseria, asto zamari baten umearen gainean*".

Joan ziren ikasleak eta egin zuten Jesusek agindu ziena; ekarri zituzten astoa eta astakumea, eta beren estalkiz txalmatu zituztenean, gainean jarri zen Jesus. Jendetzak bere soingainekoak bidean zabaltzen zizkion; beste batzuek zuhaitz-adarrak ebaki eta bidean botatzen zituzten; eta aurretik eta ondoren zihozazenek honela zioten oihuka:

- 'Hosanna Dabiden Semeari! Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena! Hosanna Goi-goikoari!'

Jesu Jerusalem-en sartu zelarik, herri guztiak harriturik galdetzen zuen:

- 'Nor dugu Hau?'
- Berarekin zetorren jendeak, berriz, honela zioen:
- 'Hau Jesus profeta da, Galileako nazaretarra'.

Sarrerako antifona

Bazko-festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalem sartzean, bidera atera zitzaizkion haurtoak, palma-adarrak eskuetan zituztela eta pozez oihuka: Hosanna zeru goienetan! Bedeinkatua Zu, erruki haundiz gugana zatozen Horri!

Kolekta otoitza

Jainko Ahalguztidun betierekoa
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea gizon egitea
eta gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
iguzu, arren,
Haren nekaldiko irakaspenak gogoan har ditzagula,
Harekin batera biztu gaitzen.
Zure Seme Jesu kristo... AMEN.

Isaias Profetaren liburutik 50,4-7

Ikasi baten mingaina eman dit nere Jaunak,
hitz bizkorgarria eman diezaiedan nekatuei;
belarria esnatzen dit goizero,
ikasiek bezala entzun dezadan.
Jaunak belarria ireki dit,
eta nik ez diot gogorrik egin;
ez dut atzera egin.
Bizkarra ipini diet, jotzen nindutenei;
masaila, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei;
ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei.
Nere Jauna nuen laguntzaile;
horregatik ez nintzen lotsatu;
horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala;
eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Dabidi agindu nion agintzaria.
Berau egin nuen neure testigu herrien aurrean,
jabe eta nagusi herridentzat.
Ezagutzen ez duzun herriari dei egingo diozu,
eta ezagutzen ez zintuen herria
laisterka etorriko zaizu:
Jaunagatik, zure Jaungoikoagatik,
zu goratzen zaituen Isrelgo Santuagatik.
Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen artean;
hots egiozue, hurbil dagoen artean.
Gizon bihurriak utzi beza bere bidea,
eta gaiztoak bere asmoak;
itzul bedi Jaunarengana, eta errukituko zaio;
gure Jaungoikoarengana, guztiz errukior baita.
Nire asmoak ez dira zuen asmo;
zuen bideak ez dira nire bide –dio Jaunak-.
Lurretik zerua bezain urruti daude
nire bideak zuen bideetatik,
nire asmoak zuen asmoetatik.
Euria eta elurra zerutik jaisten dira,
eta ez dira berriro hara itzultzen,
lurra ase, ernaldu eta lehertarazi gabe,
ereileari hazia eman ziezaion, eta jaleari ogia;
hala izango da nire ahotik ateratako hitza:
ez da Nigana hutsik itzuliko;
baizik egingo du Nik nahi nuena,
eta beteko Nik agindutakoa.

ATERAKO DITUZUE URAK POZETAN, SALBAMENAREN ITURRIETAN.

Hara, Jainkoa da nere salbatzaile;
badut uste on eta ez naiz beldur.
Jauna bait da nere indar eta kemen,
Bera izan da nere salbamen.

'Aterako dituzue urak pozetan,
salbamenaren iturrietan.
Eskerrak Jaunari, Haren izena oihu egizue.
Ez guterazi herrietan Haren eginen bikainak,
iragar ezazue Haren izen garaia'.

**GORETSIKO ZAITUT, JAUNA,
ONIK ATERA NAUZULAKO.**

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.
Jauna, Leizetik nere bizia atera duzu,
zulora dihoazenengandik bizirik gorde nauzu.

Eresi egiozue, zintzoak, Jaunari,
eman eskerrak Haren izen santuari.
Une baterako da Haren haserrea,
bizi guztirako Haren on izatea.
Negarra dator arratsaldean,
baina poza goizean.

Egin dezagun otoitz

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure izenaren aintzarako, ugari itzazu
gure fede-gurasoei agindu zenizkien ondorengoak
eta gehitu zure seme-alabatzat aukeratuen taldea;
zure Elizak ikus dezan
oraintxedanik betetzen ari dela
aintzinako arbasoek sinestu eta itxaron zutena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

5.- Isaias profetaren liburutik 55,1-33

Honela mintzo da Jauna:
"Egarri zareten guztiok, zatozte uretara;
dirurik ez duzuenok ere, bai;
zatozte, erosi garia eta jan ordaindu gabe,
ardoa eta esnea hutsean.
Zergatik eralgi dirua, janari ez den gauzetan?
Eta zuen lan-saria, asetzen ez duten gauzetan?
Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue;
janari gozoen atsegina izango duzue.
Erne belarriak, etorri Nigana;
entzun, eta bizkortuko zarete.
Betiko elkargoa egingo dut zurekin,

ERANTZUN-SALMOA 21

**NIRE JAINKOA, NON ZAUDE ZU?
NOLA ESKUTIK UTZI NAUZU?**

Ikusten nautenak honela ari zaizkit barreka,
ezpain-keinu eta buru-eraginka:
'Jaunagan du usteon, salba beza;
maite badu, onik atera beza'.

Nire jantziak berentzat banatzen dituzte,
nire soinekoa zotz egiten dute.
Zu, ordea, Jauna, ez egon urrun,
Zu, nire indar, zatozkit azkar nere lagun.

San Paulo Apostoluak Filipotarrei 2,6-11

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bereaz hustu egin zen,
morroi izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion.
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurpean eta lurpean,
eta mingain guztiek aitortu dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

EBANJELIOA

Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion.

Jesu Kristoren Nekaldia san Mateoren liburutik 26,14-27,66

K.- Aldi hartan, [Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaiz nagusietara joanda, honela esan zien:

S.- ‘Zer emango didazue, hori eskuratzeko badizuet?’

K.- Haiek hogeitamar zilar-diru agindu zizkioten. Judas, orduz gero, Jesus haiei eskuetara emateko egokiera-bila zebilen.

Ogi Hilan lehenbiziko egunean, etorri ziren ikasleak Jesusengana, eta esan zioten:

S.- ‘Non prestatzea nahi duzu Bazko-afaria?’

K.- Jesusek erantzun zien:

+- “Zoazte herrira holakoarengana, eta esaiozue: Honela dio Maisuak: Hurbil da nere ordua; zure etxean ospatuko dut Bazkoa nere ikasleekin”.

K.- Ikasleek Jesusek esan bezala egin zuten, eta prestatu zuten Bazko-afaria.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus Hamabiekin. Eta jaten ari zirela, honela esan zien:

+- “Benetan diozuet: Zuetako batek saldu egingo nau”.

K.- Ikasleak, atsekabez beterik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

S.- ‘Ni al naiz, Jauna?’

K.- Harek erantzun:

+- “Nerekin aspil berean ogia busti duenak, horrek salduko nau. Gizonaren Semea badijoa, Hartaz idatzirik dagoen bezala; baina zoritxarrekoa, Gizonaren Semea saltzen duena! Gizon horrek hobe zukeen jario ez balitz”.

K.- Orduan, Judasek -salduko zuenak- galdetu zion:

S.- ‘Ni al naiz, Maisu?’

K.- Eta Jesusek:

+- “Zeuk esan duzu”.

K.- Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu, eta bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

+- “Har ezazue, jan: hau nere gorputza da”.

K.- Eta edanontzi bat harturik eta esker-otoitza eginez, eman zien, esanez:

+- “Edan guztiok honetatik: hau nire odola da-eta, itunaren odola, guztientzat bekatuak barkatzeko ixurtzen dena. Hara Nik esan: Ez dut gehiago ardorik edango, ardo berria zuekin nire Aitaren erreinuan edango dudana egunera arte”.

4.- Isaias profetaren liburutik 54,5-14

Zure egileak bere emazte egingo zaitu;

Haren izena, diren guztien Jauna.

Israelgo Santua, zure Salbatzailea,
lur-osoaren Jainko deritza.

Emazte baztertu eta atsekabetuari bezala,

dei egiten dizu Jaunak berriro;

gaztetako emazte baztertuari bezala

-dio zure Jaungoikoak-.

Apur batez baztertu zintudan;

baina maitasun haundiz biltzen zaitut berriro.

Haserre-aldi labur batez gorde nuen nire aurpegia zuregandik;

baina betiko onginahiz maite zaitut

-dio Jaunak, zure Salbatzaileak-.

Noeren egunetan egina egiten dut; orduan zin egin nuen,

uholdeak ez zuela gehiago lurrik estaliko;

horrela zin egin dizut orain,

ez natzaizula berriz haserretuko, ez zaitudala zematuko.

Mendiak tokiz aldaturik ere,

mendixkek koloka eginik ere,

nire errukia ez da zugandik aldenduko,

nire bake-elkargoak ez du kolokarik egingo

-honela dio maite zaituen Jaunak-.

Zorigaiztokoa zu,

ekaitzak joa, atsekabetu hori!

Nik neuk kokatuko ditut

zure harriak malakita-gainean,

eta zure oinarriak zafir-gainean;

errubiz egingo ditut zure gaztelu-gainak,

esmeralda-harriz zure ateak

eta harribitxiz zure harresi guztiak.

Jaunaren ikasle izango dira zure semeak;

eta bakea izango dute.

Zuzentasuna izango duzu oinarri sendo.

Zapaltzetik urruti egongo zara

eta ez duzu beldurrik izango;

ikaratzetik urruti egongo zara,

eta ez zaizu ikararik berriz hurbilduko.

Jaunak honela esan zion Moisesi: “Zabal ezazu eskua itsas-gainera, eta bihur bitez urak egiptoarren eta haien gurdi eta zaldizkoen gainera”. Zabaldu zuen Moisesek eskua itsaso gainera, eta egunsentian itsasoa bere lekura bihurtu zen; egiptoarrek ihes egin nahi izan zutenean, uraren aurrez aurre aurkitu ziren, eta horrela amildu zituen Jaunak egiptoarrak itsaso barruan. Bihurtu ziren urak eta estali zituzten gurdi, zaldizko, eta israeldarren atzetik itsasoan sartu zen Faraonen gudaritalde guztia; ez zen bat bakarrik ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsasoaren erdiz erdi, urak ezker-eskuin harresi zituztela.

Egun hartan atera zuen Jaunak Israel egiptoarren eskuetatik; Israelek egiptoarrak hilak ikusi zituen itsaso bazterrean. Eta Jaunaren esku indartsuak egiptoarren kontra egin zuena ikusiz, Israel Jaunaren beldur izaten hasi zen; eta herriak sinetsi zuen Jaunagan eta Haren serbitzari Moisesengan.

Orduan Moisesek eta israeldarrek abesti bat kantatu zioten Jaunari:

KANTA DAGIOGUN JAUNARI GARAI-GARAI DELAKO.

Kanta dagiogun Jaunari garai-garai delako,
zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako.
Jauna bait da nere indar eta kemen,
Bera izan da nere salbamen.

Hau dut nere Jainko, zabal dut aipatuko,
gurasoen Aita, Bera nik goratuko.
Gudari da Jauna,
Jauna du Berak izena.

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna, gure egunotan ere ikusten dugu zure lehengo mirariak argitsu berritzen dituzula; lehenago, herri bat Faraonen menpetik atereaz erakutsi zenuen zeure indarra; orain, herri guztiak salbatzen dituzu, Bataioko uretan bizi berria emanez; egizu, mundu guztiko herriak iritsi daitezela Abrahamen seme-alaba eta israeldar berri izatera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

K.- Abestu zituzten salmoak, eta Oliamendira atera ziren.

Orduan honela mintzatu zitzaizen Jesus:

+- “Gau honetan zuek guztiok erorbide izango nauzue; idatzirik bait dago: *Joko dut artzaia, eta sakabanatuko dira artaldeko ardiak*. Baina Ni biztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara”.

K.- Orduan Pedrok esan zion:

S.- ‘Beste guztiak erortzen badira ere Zuregatik, ni ez naiz behinere eroriko’.

K.- Jesusek erantzun zion:

+- “Egiaz esaten dizut: Gau honetan bertan, oilarrak jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu”.

K.- Pedrok esan zion:

S.- ‘Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut ukatuko’.

K.- Gauza bera esaten zuten ikasle guztiak.

Orduan, joan zen Jesus bere ikasleekin Getsemani deritzan baratzerara, eta esan zien:

+- “Eseri zaitzete zuek hemen, Ni hara otoitzera noan bitartean”.

K.- Eta Pedro eta Zebedeoren bi semeak Berekin hartuz, nahigabetzen hasi zen eta larritzen. Orduan, esan zien:

+- “Nahigabez hiltzeko zorian nago; geldi zaitzete hemen; eta egon erne Nirekin batean”.

K.- Joan zen aurreraxeago eta, ahuspez erorita, honela egiten zuen otoitz:

+- “Ene Aita, bihoa, ahal bada, kaliza hau Niregandik. Baina ez bedi gerta Nik nahi bezala, Zuk nahi bezala baizik”.

K.- Etorri zen bere ikasleengana, eta lotan aurkitu zituen. Eta honela esan zion Pedrori:

+- “Beraz, ezin egon erne ordubete Nirekin? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitzeten; gogoia bizkorra da; haragia, ordea, makala”.

K.- Joan zen bigarren aldiz, eta berriz ere honela egin zuen otoitz:

+- “Ene Aita, kaliza hau ezin igaro badaiteke Nik edan gabe, egin bedi zure nahia”.

K.- Etorri zen berriz, eta lotan aurkitu zituen; begiak logale bait zituzten. Haiek utzita joan zen berriro, eta hirugarren aldiz lehengo hitzak berak esanez egin zuen otoitz. Gero ikasleengana etorrira, esan zien:

+- “Orain egizue lo, eta hartu atsedean. Hara, iritsi da ordua eta Gizonaren Semea bekatarien esku utzia izango da. Jaiki zaitezte, eta goazen! Hurbil da Ni saltzen nauena”.

K.- Oraindik hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat, eta harekin batean jendetza haundia, apaiz nagusiek eta herriko zaharrek bidalia, ezpatak eta makilak eskuetan zituztela. Saltzaileak ezaupide hau emana zien:

S.- ‘Nik musu ematen diodana, hura da; lotu ezazue’.

K.- Berehala Jesusengana hurbildu, eta esan zion:

S.- ‘Agur, Maisu’.

K.- Eta musu eman zion. Baina Jesusek esan zion:

+- “Adiskide, zertara zatoz?”

K.- Orduan, hurbildu ziren Jesusengana, eskuak erantsi zizkioten eta lotu egin zuten. Jesusekin zegoen batek, eskua luzatuz, ezpata zorrotik atera eta apaiz nagusiaren morroi bat jo zuen, eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

+- “Sar ezazu ezpata bere lekuan; ezpata darabilkiena, ezpatatz hilk da. Zer uste duzu? Nik ezin diodala nire Aitari laguntzarik eskatu? Hark hamabi aingeru-talde eta gehiago ipiniko lituzke nire esku. Baina honela ez litzateke beteko Liburu Santuak gertatu beharra dela dioena”.

K.- Orduan Jesus honela mintzatu zitzaion jendeari:

+- “Lapur batengana bezala etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero esertzen nintzen jauretxean erakusten, eta ez ninduzuen bahitu”.

K.- Guzti hau, Profetek esandakoa bete zedin gertatu zen. Orduan, Hura bakarrik utzita, ikasle guztiek ihes egin zuten.

Jesus hartu zutenek, Kaifasenera, apaiz nagusiaren etxera, eraman zuten, han bait zeuden batzarrean bilduta idazlariak eta herriko zaharrak. Pedrok, urrutitik, apaiz nagusiaren jauregiraino jarraitu zion eta, barrura sarturik morroien artean eseri zen, guzti hura zertan bukatzen ote zen jakin nahiez.

Apaiz nagusiak eta Batzarre osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza baten bila zebiltzan, Hura heriotzera eramateko; baina ez zuten aurkitzen, gezurrezko hainbeste testigu

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna, fededunen Aita, zure semetzako grazia isuriz, zure agintzariaren seme-alabak ugaritzen dituzu lur guztian, eta, bazko-misterioaren bidez, Abraham zure serbitzaria herrialde guztien aita egin duzu, Zeuk agindu bezala; egizu, arren, zure herriak behar bezala jarrai diezaiola zure deiari. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

3.- Exodo liburutik

14,15-15,1a

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: “Zer ari zara, Niri oihuka? Esan israeldarrei, abia daitezela. Jaso zuk zure makila, zabaldu zure eskua itsaso gainean, erdibi egizu itsasoa, israeldarrak itsaso barruan sar daitezten, oinik busti gabe. Nik egiptoarren bihotzak gogortuko ditut, ondotik jarrai diezaizueten, eta aintzaz beteko naiz Faraonen bizkar eta haren gudaritalde, gurdi eta gudarien bizkar. Ikusiko dute egiptoarrek, Ni naizela Jauna, aintzaz beteko naizenean Faraonen bizkar eta haren gudaritalde, gurdi eta gudarien bizkar”.

Abiatu zen, Israelgo gudari-taldearen aurretik zihoan Jaunaren aingerua, eta gero atzera itzuli zen. Lainozko pilarea ere aurretik atzera itzuli zen eta atzekaldean jarri, israeldarren eta egiptoarren oihal-txabolategien erdian. Iluna zen lainoa, eta borroka hasi ezinik igaro zuten gau guztia.

Moisesek zabaldu zuen eskua itsaso gainean, eta Jaunak gau guztian haize indartsua bidali zuen itsaso gainera; lehortu zen itsasoa, eta urak erdibi egin ziren. Israeldarrak itsasoan barrena sartu ziren, oinik busti gabe, bitartean urak ezker-eskuin harresi zitzaizkiela. Egiptoarrek atzetik jarraitu zieten, eta itsas-barrura sartu ziren Faraonen zaldi eta gurdiak beren gudariek.

Egunguentian Jaunak su eta lainozko pilaretik begiratu zion egiptoarren gudaritaldeari, eta zeharo ikaratu zuen gudaritalde guztia. Gurdien kurpilak kolokatu zituen; eta doi-doi ibil zitezkeen. Egiptoarrek oihuka hasi ziren: ‘Goazen ihes Israelengandik, Jaungoikoa beren alde dute eta, egiptoarren aurka’.

2.- Genesis liburutik**22,1-18.**

Egun haietan, Jaungoikoak, Abraham aztertu nahi izan zuen eta honela esan zion: “Abraham”. Abrahamek: ‘Hemen nauzu’. Eta Jaungoikoak berari: “Har ezazu Isaak, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera, eta eskainiiezaidazu erre-opari, Nik esango dizudan mendi-gainean”.

Aurrera jarraituz, iritsi ziren Jaungoikoak esandako lekura; hartu zuen Abrahamek ezpata bere semea hiltzeko; baina Jaungoikoaren aingeruak hots egin zion zerutik: “Abraham, Abraham!”. Eta Abrahamek erantzun: ‘Hemen nauzu’; eta aingeruak: “Ez luza eskurik zure semearen gainera; ez egin ezer. Ikusi dut Jaungoikoaren beldur zarela, ez baitidazu zure seme bakarra ere ukatu”.

Abrahamek begiak jaso, eta ahari bat ikusi zuen han atzean, adarretatik sastraka artean lotua; joan zen, bada, Abraham, eta aharia hartu eta huraxe eskaini zuen erre-opari semearen ordean.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: “Hala Ni Jainkoa! –dio Jaunak-, horrela egin duzulako, zure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut; eta zure ondorengoak, zeruko izarrak eta itsas-bazterrean dagoen hondarra bezain ugari egingo ditut; eta zure ondorengoak, beren etsaien hiri-ateen jabe egingo dira; eta lurreko herri guztiak bedeinkatuak izango dira zure ondorengoetan, nire esana egin duzulako”.

**ZAINDU NAZAZU, JAUNA,
BABES BILA BAIT NATOR ZUGANA.**

Jauna da nere ondare eta edontzia;
Zuk daukazu eskuetan nere zoria.
Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
eskuinean daukadala, ez naiteke dardara.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
haragi honek ere bakean du atsedena.
Ez bait duzu nere bizia Leizera egotziko,
ez eta zure zintzoa ustelak hartzen utziko.

etorrita ere. Etorri ziren azkenik bi testigu, eta honela mintzatu ziren:

S.- ‘Honek esan zuen: “Jainkoaren jauretxea xeha dezaket, eta hiru egun barru berriro eraiki”’.

K.- Zutitu zen orduan apaiz nagusia, eta esan zion:

S.- ‘Ez al diozu ezer erantzun behar? Zer da, horiek Zuretzat dioten hori?’

K.- Baina Jesus isilik zegoen. Orduan apaiz nagusiak esan zion:

S.- ‘Jaungoiko biziaren izenean diotsut; esaiguzu: Zu al zara Mesias, Jaungoikoaren Semea?’

K.- Eta Jesusek:

✚.- “Zerorrek esan duzu. Gehiago diotsut: Oraintxetik ikusiko duzue *Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuin aldean jartzen, eta zeruko hodei gainean etortzen*”.

K.- Orduan apaiz nagusiak urratu zituen soinekoak, esanez:

S.- ‘Birao esan du! Bai al dugu beste testiguren beharrik?’

Entzun duzue biraoa. Zer deritzazue?’

K.- Eta guztiek orduan:

S.- ‘Heriotzea merezi du’.

K.- Eta orduan aurpegira txistua botatzen hasi zitzaizkion, eta ukabilka; beste batzuek, berriz, masailekoak emanaz, honela esaten zioten:

S.- ‘Egizak profetarena, Mesias; asmazak; nork jo hau?’

K.- Pedro atarian zegoen eserita; etorri zen neskame bat, eta esan zion:

S.- ‘Zu ere Galileako horrekin ibiltzen zinen’.

K.- Pedrok guztien aurrean ukatu zuen:

S.- ‘Ez dakit zer diozun’.

K.- Kanpoko atera zihoala ikusi zuen beste neskame batek, eta honela esan zien ingurukoei:

S.- ‘Hau Nazareteko Jesusekin ibiltzen zen’.

K.- Hark, zin eginez, berriz ere ukatu zuen:

S.- ‘Nik ez dut ezagutzen gizon hori!’

K.- Handik laster, etorri zitzaizkion inguruan zeudenak, eta esan zioten:

S.- ‘Inondik ere, zu horietakoa zara; hizkeran ezagun duzu’.

K.- Orduan Pedrok, madarikatuz eta zin eginez, honela zioen:

S.- ‘Nik ez dut ezagutzen gizon hori!’

K.- Eta berehala jo zuen oilarrak. Pedrori Jesusek esana gogoratu zitzaion: *“Oilarrak jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu”*. Eta kanpora aterata, negarrari eman zion saminki.

Eguna argitu zuenean, apaiz nagusi guztiak eta herriko zaharrak batzarrean bildu ziren Jesusen aurka, heriotzera eramateko. Eta, loturik, Pilato agintariarengana eraman zuten, eta haren esku utzi.

Orduan, Jesus galdua zela ikusirik, damutu zitzaion Judas saltzaileari, eta hogeitamar diruak apaiz nagusi eta herriko zaharrei itzuliz, honela esan zien:

S.- ‘Bekatu egin dut, errugabe hau hiltzeko salduz’.

K.- Baina haiek erantzun zioten:

S.- ‘Eta guri zer? Hor ikusi zuk’.

K.- Diruak jauretxean bota zituen, eta atera zen handik; eta, joanda, bere burua urkatu zuen.

Apaizek, dirua hartuta, esan zuten:

S.- ‘Ez da zilegi hau atabakara botatzea, odol-saria da-eta’.

K.- Eta, elkarrekin mintzatu ondoren, Eltzegilearen Soroa erosi zuten, atzerritarren hilerritarako. Horregatik, gaur oraindik, soro hari Odol-soro deritza. Honela bete zen, Jeremias profetak idatzitakoa: *Hogeitamar zilar-diru hartu zituzten, Israelgo semeek salgai zegoenari jarritako balioa; eta haiekin Eltzegilearen Soroa erosi zuten, niri Jaunak agindu zidan bezala.*]

Jesus agintariarengana eraman zuten; eta agintariak honela galdetu zion:

S.- ‘Zu judutarren errege al zara?’

K.- Jesusek erantzun:

✚.- “Zerorrek diozu”.

K.- Eta apaiz nagusiak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ari izanik ere, Jesusek ez zuen hitzik erantzuten. Orduan Pilatok esan zion:

S.- ‘Ez al duzu entzuten zenbat salakuntza egiten duten zuretzat?’

K.- Jesusek galdera bakar bati ere ez bait zion erantzunik ematen, agintaria zeharo harrituta zegoen.

Preso bat askatzeko ohitura zuen agintariak Festaburuan, herriak berak nahi zuena. Espetxean ba zeukan garai hartan hots haundiko preso bat, Barrabas zeritzana. Herria bildu zenean, Pilatok galdetu zien:

S.- ‘Nor nahi duzue askatzea? Barrabas, ala Jesus, Mesias diotena?’

1.- Genesis liburutik

1,1-2,3

Hasieran Jaungoikoak zero-lurrak egin zituen. Eta Jaungoikoak esan zuen: “Egin dezagun gizakia gure antz eta irudiko; eta izan bedi, itsasoko arrainen, zeruko hegaztien, etxeko abereen eta lurreko narratzien jaun”.

Eta egin zuen Jaungoikoak gizakia bere irudiko;

Jaungoikoaren irudiko egin zuen:

gizaseme eta emakume egin zituen.

Eta bedeinkatu zituen Jaungoikoak, eta honela esan zien:

“Hazi zaitezte eta ugaritu; bete ezazue lurra, eta izan zaitezte beraren jaun; menpera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabilzan bizidun guztiak”.

Eta Jaungoikoak esan zuen. “Begira, zuentzat ematen dizkizuet, luraren azalean hazia sortzen duten belar guztiak; eta hazia sortzen duten aledun zuhaitz guztiak zuen janari izango dira; eta belarra ematen diet janari, lurreko pizti guztiei, eta lurreko narrazti guztiei eta arnasadun guztiei”.

Eta hala egin zen. Eta ikusi zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia; eta oso ona aurkitu zuen.

BIDAL EZAZU, JAUNA, ZURE ARNASA ETA BERRIERAZI LUR-AZALA.

Ene arima, goretsazu Jauna!
gutziz haundi zaitut, Jauna, ene Jainkoa!
Haundi eta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia.

Bai ugari direla, Jauna, Zuk eginak,
zuhurtasunez eginak zeharo,
lurra zure sorkariz betea dago!
Ene arima, goretsazu Jauna!

Egin dezagun otoi

Gizona harrigarriro egin eta harrigarriago salbatu duzun Jainko Jauna, iguzu, bekatuaren atseginkeriei gogor egin diezaiegula zentzu onez, betiko pozetara iristea merezi dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Hau gau santua,
gaiztakeriak uxatu eta hobenak garbitzen dituena,
eroriei errugabetasuna eta minduei poza ekartzen diena.

Hau, bai, benetan, gau zoriontsua,
zerua lurrarekin,
gizona Jainkoarekin bat egiten denekoa!

Gau pozgarri honetan, har ezazu, Aita on Horrek,
arratseko gorespen-opari hau:
Eliza santuak egiten bait dizu,
bere serbitzarien eskuz,
argizari honen eskaintza ederrean.

Zure izenaren aintzarako
bedeinkatua dugun argizari honek, Jauna,
pizturik iraun dezala,
gau honetako iluna urratzeko;
eta Zuretzat usain gozo bihurturik,
izarren argiarekin elkar dadila.
Pizturik aurki dezala goizeko izarrak:
iluntzerik ezagutzen ez duen Artizarrak,
zure Seme Jesu Kristo gure Jaunak,
hilen artetik Bizturik,
gizadia bere bakearen ditziraz argitu zuenak.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

II. HITZAREN LITURGIA

Senide maiteok: Bazko-deia entzunez hasiak gara Jaunaren Biztueraren gau santua ospatzen. Entzun dezagun orain gogoeta-giroan Jaungoikoaren Hitzia. Ikus dezagun, nola lehengo aldietan, gure Jaungoikoak salbatu zuen bere herria, eta nola azkenak diren aldi hauetan, bere Semea bidali digun Salbatzaile. Egin dezagun otoitz, Jaunak gugan bete dezan Bazko-misterioan hasi zuen salbamen-egintza hau.

K.- Bai bait zekien bekaitzez ekarri ziotela. Eta epai-aulkian eseririk zegoela, bere emazteak albiste hau bidali zion:

S.- 'Ez zaitez sar gizon zintzo horrekin; amets ilunak egin ditut bart hori dela-eta'.

K.- Baina apaiz nagusiek eta herriko zaharrek berotu zuten herria, Barrabas askatu eta Jesus hil zezala eskatzeko. Agintariak galdetu zien:

S.- 'Bi hauetatik nor nahi duzue askatzea?'

K.- Herriak erantzun:

S.- 'Barrabas'.

K.- Eta Pilatok:

S.- 'Eta zer egin behar dut, Mesias dioten Jesus honekin?'

K.- Eta herriak:

S.- 'Josi gurutzean!'

K.- Pilatok:

S.- 'Zer oker egin du, bada?'

K.- Herriak, gero eta deiadar haundiagoz:

S.- 'Josi gurutzean!'

K.- Pilatok, dena alferrik zela eta matxinada gainean zuela ikusirik, ura hartu eta, herriaren aurrean eskuak garbituz, esan zien:

S.- 'Errugabe naiz ni odol honetan. Hor ikusi zuek!'

K.- Herri guztiak orduan:

S.- 'Betor gure gain eta gure umeen gain Horren odola!'

K.- Orduan Barrabas askatu zien; eta Jesus, zigortu ondoren, haien esku utzi zuen, gurutzean josteko..

Agintariaren gudariak auzitegira eraman zuten Jesus, eta gudari-talde osoa bildu zuten Haren inguruan; erantzi zizkioten soinekoak, eta estalki gorria jantzi zioten; arantzazko koroa egin zuten gero, eta buruan ezarri zioten, eta kainabera-makila eskuinean. Eta aurrean belaunikaturik, iseka egiten zioten, esanez:

S.- 'Agur, judutarren errege!'

K.- Gero listua botatzen hasi zitzaizkion; eta kainabera kenduta, harekin buruan jotzen zuten. Isekak bukatutakoan, kendu zioten estalkia, bere soinekoak jantzi, eta gurutzean jostera eraman zuten.

Ateratzean, Simon izeneko zirenear gizon bat topatu zuten, eta gurutzea eramatera behartu. Golgota -hau da: Buruhezurtegi- deritzan lekura iritsi zirenean, behazunez nahastutako ardoa eman zioten edateko. Jesusek txastatu zuen, baina ez zuen edan nahi izan.

Gurutzean josi zutenean, txotx egin zuten, Haren jantziak zer norentzat, eta lurtean eserita Hura zaintzen gelditu ziren. Buru gainean idazkun bat epini zioten, hoben-ageri bezala: **HAU JESUS DA, JUDUTARREN ERREGA**. Harekin batean bi gaizkile josi zituzten gurutzean; bata eskuinetan, eta bestea ezkerretan.

Handik igarotzen zirenek iseka egiten zioten, buruari eraginez, eta esanez:

S.- 'Jauretzea xehatu, eta hiru egun barru berriro eraikitzen huen Horrek, salbazak heure burua! Jaungoikoaren Seme baldin bahaiz, jaitsi hadi gurutzetik!'

K.- Era berean apaiz nagusiek, idazlariek, eta herriko zaharrek ere burla egiten zioten, esanez:

S.- 'Besteak, bai, salbatu Horrek; eta bere burua ezin salbatu! Israelgo errege, noski! Jaitsi dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diogu. Jaungoikoarengan izan du bere uste ona; Jaungoikoak egiaz maite badu, aska dezala orain; ez zuen, bada, Jaungoikoaren Seme zela esaten?'

K.- Harekin gurutzean josirik zeuden bi gaizkileek ere, berdin iseka egiten zioten.

Eguerditik arratsalde-erdira arte, lurralde hura guztia ilunbetan gelditu zen. Eta arratsalde-erdi aldera, Jesusek oihu haundi bat egin zuen:

+- "Eli, Eli, lema sabaktani".

K.- Hau da:

+- "Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?"

K.- Inguruan zeuden batzuek, hori entzutean, honela zioten:

S.- 'Eliasi deika ari da Hau'.

K.- Haietako batek, lasterka joan, eta ozpinetan bustitako belaki bat hartu zuen eta, kainabera-muturrean lotuta, edateko eman zion. Besteek honela zioten:

S.- 'Utzi iezaiok; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik salbatzera.

Jaungoiko ikustezin Aita ahalguztiduna eta Haren Seme bakar Jesu Kristo gure Jauna. Beronek ordaindu bait dio gure ordeztu Aita betierekoari Adanen zorra, eta bere odol santuaz kendu digu aintzinako bekatuaren zigorra.

Bazko-jaiak ditugu: jai hauetan eskaintzen da egiazko Bildotsa, bere odolaz fededunen etxeetako ateak sagaratzen dituena.

Gau honetan, Jauna, atera zenituen Zuk Ejiptotik israeldarrak, gure guraso zaharrak, eta Itsaso Gorrian zehar, oinik busti gabe, lehorrez eraman.

Hauxe da, izan ere, harako gaua, zutabe antzeko laino argitsu baten diztirak bekatuaren ilunpeak uxatu zituena.

Hauxe da, bai, gaua: lur zabalean Kristorengan sinesten dutenak lurteko makurkeria eta bekatuen ilunpeetatik atera, graziara bihurtu eta santutasunera erakartzen dituen gaua.

Hauxe da gaua, Kristo, heriotzaren kateak hautsirik, hilen artetik garaile atera zenekoa.

Bai harrigarria zure guganako errukia! Bai neurrigabea zure maitasun samurra! Serbitzaria erosteko, Semea ematea!

Beharrezkoa, benetan, Adanen bekatua, Kristoren heriotzaz barkatua! Hau erru zorionekoa, horrelako Erosle bikaina lortu diguna!

JAUNAREN BIZTUERAKO BAZKO IGANDEA BAZKO GAU-BEILA

I. ARGIAREN LITURGIA

Senide maiteok: Gau santu honetan, Kristo gure Jauna hilen artetik biztu denez gero, Eliza santuak dei egiten die mundu zabalean dauden bere seme-alabei, elkaturik, erne eta otoitzean egoteko. Horrela Jaunaren hitza entzunez eta Haren sakramentuak hartuz bere Bazkoa elkartean ospatzen badugu, izango dugu itxaropen, Harekin batean menperatuko dugula heriotza eta Berarekin biziko garela, beti eta beti Jaungoikoagan.

Bedeinkapen otoitza

Jaungoiko gure Jauna,
zure Semea da munduaren argia,
eta Beraren bitartez eman diguzu zure fededunoi
zure argiaren ditzira;
bedeinka + ezazu su berri hau,
eta iguzu, Bazko-jai hauetan zeruko gauzetarako suturik,
arima garbiz betiko argiaren jaietara iritsi gaitzela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Pazko-deia

Poztu bedi, poztu oraintxe, zeruko aingeru-taldea;
poztu bitez zerutar guztiak,
eta, Kristo Berpiztuaren garaipena ospatzeko,
entzun bedi salbamenaren irrintzi pozgarria.

Alai bedi lurra ere, horrelako argi-errainuz argiturik,
eta, betiereko Erregearen ditziraz beterik,
ikus beza nola izan diren uxatuak lurbira guztiko ilunpeak.

Poztu bedi, baita Eliza ama ere,
horrenbesteko argi-ditziraz apaindurik;
eta herriaren oihu-hotsez dardar jar bedi eliz barru hau.

(Jauna zuekin...etab.)

Egoki da, bai, eta zuzen
bihotzez eta gogoz oihuka goratzea

K.- Eta Jesusek beste deiadar haundi bat eginez, azken
arnasa eman zuen

(Hemen, belaunikaturik jarri eta egonalditxo bat egiten da)

Orduan jauretxeko oihala erdibi egin zen, goitik
beheraino; lurrikara izan zen, harriak erdibitu, hilobiak ireki eta
hildako santuen gorputz asko biztu ziren. Hauek, Jesus biztu
ondoren, beren hilobietatik atera, eta hiri santura etorri ziren, eta
askori agertu zitzaizkion.

Jesus zaintzen zegoen gudari-ehuntariak eta bere
mutilak, lurrikara eta gertatu zena ikusi zutenean, ikaratu ziren, eta
honela zioten:

S.- 'Hau, benetan, Jainkoaren Semea zen'.

[K.- Ba zeuden han, urrutitik begira, emakume asko,
Galileatik Jesusi jarraituz etorriak, Hura serbitzatu nahiez; haien
artean, Maria Magdalena, Santiagoren eta Joseren ama Maria, eta
Zebedeoren semeen ama.

Ilunabarrean, Jose zeritzan Arimateako gizon aberats bat
etorri zen; bera ere Jesusen ikasleetakoa. Hark, Pilatorengana joan
eta Jesusen gorputza eskatu zion. Eta Pilatok emateko agindu zien.
Hartu zuen Josek Jesusen gorputza eta, izara garbi batetan bildu
ondoren, beretzat harkaitz biziari zulatutako hilobi berriari ipini zuen;
ezarri zuen hilobiko sarreran harri biribil haundi bat, eta joan egin
zen. Maria Magdalena eta beste Maria han zeuden hilobiaren
aurrez aurre eserita.

Biharamon goizean, Prestaera-eguna igaro ondoren,
apaiz nagusiak eta farisearrak elkarrekin joan ziren Pilatorengana,
esanez:

S.- 'Jauna, oroitu gara, gezur-saltzaile Hark, oraindik bizi
zela, nola esan zuen: "Hirugarren egunean biztuko naiz". Agindu
ezazu, beraz, hilobia zaintzeko hirugarren egunera arte, Haren
ikasleak etorrita gorputza ostu ez dezaten, eta herriari esan: Biztu
da hilen artetik. Azken gezurra lehenbizikoa baino okerragoa izango
bait litzateke'.

K.- Pilatok erantzun:

S.- 'Hor dituzue zaintzaileak; zoazte zeuek, eta zaindu
dakizuen eran':

K.- Joan ziren haiek, seilatu zuten harria, eta zaintzaileen
esku jarri zuten hilobia.]

Oparigaien otoitza

Jainko Jauna,
zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laister zure barkamena;
eta ospakizun honetan gaurkotzen dugun
Jesu Kristoren opari bakar honen bidez,
emaiguzu zure errukia,
gure bekatuek nerezi ez badute ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, bekatugabea izanik,
bekatariengatik onartu zuen nekaldia,
eta errugabea izan arren,
errudun bezala izan zen epaitua.

Bere heriotzaz garbitu ditu gure bekatuak,
eta bere biztueraz irabazi digu santu izatea.

Horregatik, guk ere,
aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna, poz betean kantari:

Jaunartzeko antifona

Ene Aita, kaliza hau ezin igaro badaiteke Nik edan gabe, egin bedi
zure nahia.

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure misterio santuez indarberriturik,
otoitzka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
itxaroten ditugu gure sinesmenak agintzen dizkigunak;
egizu, beraz, Haren biztueraz iritsi ditzagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

X.- Atsekabetuen alde

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari:
garbi dezala mundua oker guztietatik, senda ditzala gaisoak, ogia eman
diezaiaela gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, kateak hautsi,
erbesterratuak herriratu, bidez dabiltzanak etxeratu eta hil-zorian daudenak
salba ditzala.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
atsekatuena poza, nekatuen indarra,
iritsi bitez Zuregana
edozein estualdietan Zuri deiez daudenen eskariak,
beren beharretan
zure errukiaren laguntza aurki dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

II. GURUTZEA GURTZEA

V.- Hona hemen Gurutze-habea,
munduaren osasuna zintzilik euki zuena!

E.- Zatozte, gurtu dezagun.

III. JAUNARTZEA**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure Seme Jesu Kristoren Heriotzaz eta Piztueraz
berritu gaituzu;
zaindu ezazu guran zure errukiaren lana,
misterio honetan parte harturik,
beti zure serbitzari izan gaitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, zure Semearen Heriotza ospatu dugu
eta Beraren Biztuera santuaren zain gaude;
bidal iezaiguzu zure bedeinkapen ugaria,
etor bekigu zure barkamena,
emaiguzu zure poza, sendotu gure sinesmena
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

VII.- Kristorengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen-bidean sar daitezten.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
emaiezu Kristorengan sinesten ez dutenei,
zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
egia osoa ezagutzera iristea;
guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea,
eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

VIII.- Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz, Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde: beren kontzientziari jarraituz Jainkoarengana iritsi daitezten.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
beti zure bila ibil daitezten
eta, Zu aurkiturik, Zuregan atsedean izan dezaten;
egizu, mundu honetako neke eta estualdietan,
denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinesteden testigantza,
horrela pozik aitor dezaten
Zu zarela egiazko Jainko bakarra
eta gizon-emakume guztien Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

IX.- Herri agintarien alde

Egin dezagun otoitz, herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak guztien gogo-bihotzak bere nahiaren erara erabil ditzan, denen bake eta askatasunerako.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure eskuetan dauzkazu gizon-emakumeen bihotzak
eta herrien eskubideak;
begira begi onez herrietako agintariei,
Zuk emanik, mundu guztian izan daitezten
bakea, aurrerapena eta erlijio-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

OSTEGUN SANTUA

JAUNAREN AFARIKO ARRATSALDEKO MEZA

Sarrerako antifona

Jainkoak libra gaitzala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzan izan ezik; gurutze horretan dago gure salbamina, bizia eta biztuera; berak salbatu eta askatu gaitu.

Kolekta otoitza

Jainko Jauna,
zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren opari berria utzi zion Elizari;
Haren maitasun-agiri den
Afari santua ospatzera bildu gaituzu gaur hemen;
egizu, misterio haundi hau ospatzeak
maitasunez eta bizi berriz bete gaitzala.
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

Exodo liburitik

12,1-8.11-14

Egun haietan, Jaunak honela esan zien Moisesi eta Aaroni Ejipto aldean: "Hil hau izango duzue hilik haundiena; urtearen lehenengo hila izango duzue. Esaiozue Israel herri osoari: 'Hil honen hamarrean, guztiok bildots bana hartuko duzue, familia bakoitzak eta etxe bakoitzak berea. Eta bildotsa jateko familikoak aski ez badira, deitu auzoari eta bildu behar adina lagun; bakoitzak bere zatia jango du, guztia bukatzeraino.

Bildotsa, akatsik gabea izango da, aharikoa, urtekoa, nahiz arkume, nahiz antxume. Bizirik edukiko duzue hilaren hamalau arte, eta Israeldar guztiak ilunabarrean hilko dute. Odola hartu, eta igurtziko dituzue, jan duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua. Gau hartan, sutan errea jango duzue haragia, eta ogi legami-gabea eta barazki garratzak.

Eta era honetan jango duzue: gerria lotuta, oinetakoak jantzita, makila eskuan; ahal duzuen laisterrenik jango duzue, Bazkoa baita, hau da: Jaunaren Igarotzea. Gau hartan Ni Ejiptoko lurraldetik igaroko naiz, eta Ejipto-lurraldeko lehen-ume guztiak hilko ditut, bai gizonetan, bai abereetan, eta Ejiptoko jainkoei berena emango diet. Hala Ni Jauna! Zaudeten etxeetan, odola izango da zuen ezaugarri.

Odola ikustean, aurrera igaroko naiz, eta ez da zuenean herio-
zigorrik izango, Nik Ejiptoko lurraldea jotzean. Egun hau oroigarri
izango duzue eta jai handi egingo diozue Jaunari zuen
belaunaldietan; betiko jai-egun egingo duzue”.

ERANTZUN-SALMOA 115

ESKER ONEZKO KALIZAK KRISTOREN ODOLEAN ELKARTZEN GAITU.

Zer bihurtuko diot Jaunari,
eman dizkidan guztiengatik?
Salbamen edontzia dut hartuko,
eta Jaunaren izena deituko.

Jaunaren begietan balio haundikoa
Haren zintzoen herioa.
Zure morroi nauzu ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen semea,
askatu dituzu nire kateak.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 11,23-26

Senideok: Jaunagandik harturik daukat nik, neronek zuei
eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saltzekoa zen gauean, ogia
hartu eta, esker-otoitza eginda, zatitu zuela eta esan: “Hau nere
gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri”.

Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez:
“Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen
bakoitzean, nire oroigarri”. Beraz, ogi honetatik jaten, eta kaliza
honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza adierazten
duzue, Bera etorri arte.

EBANJELIOA

Agindu berri bat ematen dizuet –dio Jaunak-:
Maita ezazue elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala.

IV.- Kristaugaien alde

Egin dezagun otoitz kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak berauen
gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren ateak zabal diezaizkien, hauek ere,
Bataio-uren bidez bekatu guztien barkamena harturik, Jesu Kristo gure
Jaunaren gorputza izan daitezten.

Jainko ahalguztidun betierekoa
seme-alaba berriz ugaritzen duzu beti zure Eliza;
sendo ezazu kristaugaien sinesmena eta jakinduria,
Bataio-iturrian berriro jaiota
zure semetzakoen artean sar daitezten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

V.- Kristauen batasunaren alde

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten dutenen senide guztien
alde: egia jarrai diezaizkien beren bizitzan eta gure Jaun eta Jaungoikoak
bere Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzala.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure seme-alaba sakabanatuak bildu egiten dituzu,
eta bildutakoak zaindu;
begira bihotz onez zure Semearen artaldeko ardiei,
Bataio berak santu egin dituenak
egiazko sinesmenak eta maitasunaren lokarriak
bat egin ditzan zure Eliza bakarrean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

VI.- Judutarren alde

Egin dezagun otoitz judutarren alde, gure Jaunak profeten bidez
lehenengo hitzegin zion herriaren alde: aurrera egin dezaten beti Haren izen
santuaren maitasunean eta Harekiko elkargoa zintzo gordetzen.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Abrahani eta haren ondorengoei
eman zenizkien zure agintzariak;
behinola zure herri aukeratua izan zena
erospen osora iritsi dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

I.- Eliza santuaren alde

Egin dezagun otoitz, senide maiteok, Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta laguntza eman diezaizkiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Kristorengan herrialde guztiei agertu diezu
zure haunditasuna;
zaindu ezazu zure errukiaren lana,
mundu guztian zabaldurik dagoen zure Elizak
sinesmenean sendo iraun eta zure izena aitortu dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

II.- Aita santuaren alde

Egin dezagun otoitz I. gure Aita Santuaren alde: gotzain-mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen dezan.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuk darabilzkizu diren guztiak;
onartu gure otoitzak
eta maitasunez gorde ezazu Aita Santua,
Zuk zuzentzen duzun kristau herriak,
artzain onen ardurapean,
aurrera egin dezan bere sinesmenean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

III.- Edozein mailatako eliz-serbitzari eta kristau guztien alde

Egin dezagun otoitz I. gure Gotzainaren alde, beste gotzain, apaiz, diakono eta eliz serbitzari guztien alde, baita fededun guztien alde ere.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure Espirituaz santu egiten duzu eta erabiltzen
Elizaren gorputz osoa:
entzun eliz serbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak.
Zure graziari esker, bakoitza bere eginkizun berezian
zure serbitzari zintzo izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburutik 13,1-15

Bazko-jai aurrean, ikusi zuen Jesusek etorri zitzaizkion mundu honetatik bere Aitarengana joateko ordua, eta munduan zeuden beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituen.

Afaltzen ari ziren. Ordurako etsaiak buruan sartua zion Simon Iskarioteren seme Judasi Jesusen saldukeria egitea. Jesusek jakirik Aitak gauza guztiak eskura eman zizkiola, Jaungoikoarengandik zetorrela eta Jaungoikoarengana zihoala, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapi bat harturik, bere gerrian lotu zuen; gero ontzi bat urez bete, eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaion, eta gerrian zeukan eskuzapiak lehortzen.

Pedroarengana iritsi zenean, honek esan zion:

- 'Jauna, Zuk neri oinak garbitu?'

Eta Jesusek:

- "Zuk ez dakizu orain, Ni egiten ari naizena; geroago ulertuko duzu".

Pedrok:

- 'Zuk ez didazu neri behinere oinik garbituko'.

Eta Jesusek:

- "Garbitzen ez bazaitut, ez duzu zerikusirik Nirekin".

Simon Pedrok orduan:

- 'Jauna, ez oinak bakarrik, baita eskuak eta burua ere'.

Jesusek erantzun zion:

- "Garbitua hartu duenak, ez du oinak besterik garbitu beharrik, erabat garbi bait dago. Zuek ere garbi zaudete, baina ez guztiok".

Bai bait zekien nork salduko zuen, horregatik esan zuen. "Ez zaudete garbi guztiok".

Oinak garbitu zizkienean, soinganekoa hartu eta, berriro mahaiaren eseririk, esan zien:

- "Bai al dakizue zer egiten dizuedan? Zuek Maisu eta Jaun esaten didazue, eta ongi esana, hala naiz-eta. Maisu eta Jaun izanik, oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkizue; jarraibide eman dizuet, Nik zuei egiten dizuedana, zuek ere egiten dezazuen.

Oparigaien otoitza

Egizu, Jauna,
zintzo hurbil gaitzezela sakramentu honetara,
gure erospena egiten bait da
opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa Eukaristiaren I 37 or.)

Jaunartze antifona

Hau nere gorputza da, zuentzat ematen dena; kaliza hau itun berria da nere odoletan –dio Jaunak-; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nere oroigarri.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiguna,
hemen ospatu dugun zure Semearen Afarian
berriztatu gaituzu;
egizu, egunen batez,
Haren erreinuko mahaian ase gaitzezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

Gero Jesusek, dena bete zela ezaguturik, Liburu Santua bete zedin, honela esan zuen:

✚.- “Egarri naiz”.

K.- Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Eta ozpinetan bustitako belaki bat kainabera-muturrean loturik, ezpainetara eman zioten. Ozpina hartu ondoren, honela esan zuen Jesusek:

✚.- “Bete da dena”.

K.- Eta, burua makurturik, azken arnasa eman zuen.

(*Hemen, belaunikaturik jarri eta egonalditxo bat egiten da*)

Judutarrek orduan, Prestaera-eguna zelako, gorputzak larunbatez gurutzean geldi ez zitezen –larunbat hura egun handia bait zen-, berna-hezurak hautsi, eta gorputzak handik kentzeko eskatu zioten Pilatori.

Etorri ziren gudariak, eta Jesusekin batean gurutzean jositako lehenengoari eta besteari berna-hezurak hautsi zizkieten; Jesusengana iritsi zirenean, ordea, hila zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik-eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta berehala odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du hori, eta egiazkoa da haren aitormena; berak ba daki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Guzti hori Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: *‘Ez diote hezurrik hautsiko’*. Beste leku batean, hau dio: *‘Ikusiko dute zulatu zutena’*.

Gero, Arimateako Josek –bera ere Jesusen ikaslea bait zen, nahiz ezkutuka, judutarren beldurrez- Jesusen gorputza eramaten uzteko eskatu zion Pilatori; Pilatok eman zion baimena. Harek orduan, joan eta eraman egin zuen Jesusen gorputza.

Etorri zen Nikodemo ere –lehenengo aldiz Jesus ikustera gaez joan zena- mirraz eta aloezko nahaste batetik ehun bat libra zekarrela. Hartu zuten, beraz, Jesusen gorputza eta, usaigozoz gantzuturik, dena oihaletan lotu zuten, judutarren ehortz ohitura den bezala. Jesus gurutzean jositako lekuan, bazen baratze bat, eta baratzean ordurarte inor ehortzi gabeko hilobi berri bat. Eta judutarrentzat Prestaera-eguna zelako, eta hilobia hurbil zegoelako, han bertan ipini zuten Jesus.

S.- ‘Ken hori, ken! Josi gurutzean!’

K.- Eta Pilatok:

S.- ‘Zuen erregea gurutzean josi behar al dut?’

K.- Apaiz nagusiek orduan:

S.- ‘Guk ez dugu Zesar beste erregerik’.

K.- Orduan haien esku utzi zuen Jesus, gurutzean josi zezaten.

Hartu zuten Jesus, eta Hura, gurutzea sorbaldan zeramala, Buru-hezurtegi –eberkeraz, berriz, Golgota- izeneko lekura atera zen. Han josi zuten gurutzean; eta Harekin batean beste bi, bata alde batetik, eta bestea bestetik, eta erdian Jesus. Gurutze-buruan idazkun bat ipintzeko agindu zuen Pilatok; honela zioen idazkiak: JESUS NAZARETARRA, JUDUTARREN ERREGEA.

Judutar asko irakurri zuen idazkuna, iritik hurbil bait zegoen Jesus gurutzean jositako lekua, eta idazkuna hiru hizkuntzatan idatzi bait zuten: eberkeraz, latinez eta grekoz. Judutarren apaiz nagusiek, orduan, honela esan zioten Pilatori:

S.- ‘Ez ipini ‘Judutarren erregea’, baizik ‘Honek esan du: Judutarren erregea naiz’.

K.- Baina Pilatok:

S.- ‘Idatzi dut, eta idatzirik dago’.

K.- Gudariak, Jesus gurutzean josi zutenean, Haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, gudari bakoitzarentzat zati bana; soinekoa, berriz, utzi egin zuten. Joskurarik gabea zen soinekoa, goitik behera erabat eioa. Eta elkarri esan zioten:

S.- ‘Ez dezagun zatitu; baizik txotx egin dezagun, zeini ateratzen zaion’.

K.- Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: *‘Nere jantziak berentzat banatu zituzten, eta nere soinekoa txotx egin zuten’*. Hori egin zuten gudariak.

Jesusen gurutzearen oinean zeuden: bere ama, amaren ahizpa –Kleofasen Maria-, eta Maria Magdalena. Jesusek bere ama ikustean eta, han bertan, Berak hain maite zuen ikaslea, honela esan zion amari:

+- “Andrea, horra hor zure semea!”

K.- Eta gero ikasleari:

+- “Horra hor zure ama!”

K.- Eta orduz gero, ikasleak bere etxean euki zuen Maria.

JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA

Otoitza

Jainko Jauna, Jesu Kristo zure Semeak, bere odola gugatik isuriz sortu zuen Bazko misterioa; gogoan izan zure bihotz ona eta agertu zure errukia; santu egizkizu zure seme-alabak eta zaindu beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

I. HITZAREN LITURGIA

Isaias profetaren liburutik

52,13-53,12

Hara, nere serbitzaria aurrera aterako da; haundia egingo da eta goratua izango. Asko hartaz ikaraturik gelditu baziren ere -hartaraino bait zuen giza itxura galdu, eta gizona zenik ere ez bait zuen irudi-, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertuko zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean; zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza-antzik gabe ikusi genuen eta itxura atseginik gabe, barregarri eta gizonetan azkeneko, oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusit egiten zaienetakoa; gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepradun bezala geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik aldean alde zulatua; gure gaiztakeriengatik txikitua.

Haren gainera erori zen,
guri bakea ematen digun zigorra;
haren zauriek sendatu gaituzte.
Gu denok, ardi galduak ginen,
bakoitza bere bidetik;
eta Jaunak haren gainean ezarri zituen
gu guztion txarkeriak.
Gaizki zerabilkiten,
baina bera makurtu egin zen;
eta ez zuen ahorik ireki.
Harategira daramaten arkumea bezala,
ile-moztaileen aurrean ardia bezala;
isilik egon zen, ahorik ireki gabe.
Zuzengabeko auzitan galdu zuten.
Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna?
Bizidunen lurretik kendu egin zuten;
nire herriaren bekatuengatik hil zuten.
Gaizkileen artean lur eman zioten,
eta bekatariekin haren hilobia;
nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin,
eta haren ahotik gezurrik ez jalki.
Jaunak nekeetan
lehertu nahi izan zuen.
Bere bizia ordain ematen badu,
izango du ondorengo ugari,
luzatuko zaizkio egunak,
beteko da Jaunaren nahia haren bitartez.
Bere oinazeen sari,
ikusiko du argia eta aseko da.
Jasan duenaren bidez, nire serbitzariak
zuzentasuna emango dio askori,
haien hutsegiteak bere gain hartuz.
Horregatik jendetzak emango dizkiot Nik bere parte,
giza-taldeak izango ditu harrapakin;
heriotzara eman bait zuen bere burua,
eta bekataritzat hartu baitzuten.
Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak,
eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

sorbaldan gainean purpurazko soingainekoa jantzi eta, erdian harturik, honela esaten zioten:

S.- 'Agur, judutarren errege!'

K.- Eta masailekoka zerabilkiten. Atera zen Pilato berriz, eta honela esan zien judutarrei:

S.- 'Hemen dakartzuet berriz ere gizon hau, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen'.

K.- Atera zen, bada, Jesus, buruan arantzazko koroia eta sorbaldan purpurazko soingainekoa zuela. Eta Pilatok esan zien:

S.- 'Hemen duzue gizona'.

K.- Apaiz nagusiak eta gudamutilak, Hura ikustean, deadarka hasi ziren:

S.- 'Josi hori! Josi gurutzean!'

K.- Pilatok, ordea:

S.- 'Har ezazue, eta josi zeurok gurutzean; nik ez diot errurik aurkitzen'.

K.- Judutarrek, orduan:

S.- 'Guk badugu Legea; eta gure Legez heriotza merezi du, Jaungoikoaren Seme egin bait du bere burua'.

K.- Pilato, hitz hoiek entzutean, gehiago beldurtu zen, eta berriz ere auzitegira sarturik, honela mintzatu zitzaion Jesusi:

S.- 'Nongoa zara Zu?'

K.- Baina Jesusek ez zion erantzun. Pilatok orduan:

S.- 'Ez al didazu ezer erantzun nahi? Ez al dakizu, badudala nik eskubide Zu askatzeko, eta eskubide Zu gurutzean josteko?'

K.- Jesusek orduan:

+- "Ez zenuke nere gain horrelako eskubiderik izango, goitik eman ez balitzaizu. Horregatik, Ni zure esku utzi nauenak, erru haundiagoa du".

K.- Handik aurrera, Jesus, askatu nahian zebilen Pilato. Baina judutarrak deadarka hasi zitzaizkion.

S.- 'Hau askatzen baduzu, ez zara Zesarren adiskide. Bere burua errege egiten duena, Zesarren aurka dago'.

K.- Pilatok, hitz hoiek entzutean, atera zuen Jesus berriz ere, eta auzi-aulkian eseri erazi zuen, Harri-solairu deitzen zioten lekuan –eberkeraz, berriz, Gábbata-. Pazkoaren prestaera eguna zen, eguerdi inguru. Eta Pilatok honela esan zien judutarrei:

S.- 'Horra zuen erregea'.

K.- Haiak deadarka erantzun zioten:

K.- Eta haiek:

S.- 'Gaizkile ez balitz, ez genizuke ekarriko'.

K.- Eta Pilatok:

S.- 'Eramazue zeurokin, eta epaitu zeuron Legez'.

K.- Judutarrek orduan:

S.- 'Guk ez dugu inor hiltzeko eskubiderik'.

K.- Horrela bete zen, Jesusek alde zurretik esandakoa, nolako heriotzaz hilko zen, alegia. Sartu zen berriz Pilato auzitegira, deitu zion Jesusi eta esan zion:

S.- 'Zu judutarren errege al zara?'

K.- Jesusek erantzun:

+- "Zeure buruz galdetzen al didazu hori, hala besteren batek esan dizu neretzat?".

K.- Pilatok:

S.- 'Judutarra ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaiz nagusiek ekarri zaituzte nigana; zer egin duzu?'

K.- Jesusek orduan:

+- "Nere erregetza ez da mundu hontakoa. Mundu hontakoa balitz nere erregetza, nere zainzaileek gogor egingo lukete, Ni judutarren esku geldri ez nendin. Nere erregetza, ordea, ez da hemengo".

K.- Pilatok:

S.- 'Errege zara, beraz?'

K.- Jesusek erantzun zion:

+- "Zerorrek diozu: errege naiz. Hortarako jaiotzen naiz, eta hortarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nere hitza."

K.- Pilatok orduan:

S.- 'Zer da egia?'

K.- Hori esanda, berriz ere judutarrengana atera, eta esan zien:

S.- 'Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina ohitura da zuen artean Pazkoan gaizkile bat askatzea: Nahi al duzue judutarren erregea askatzea?'

K.- Haiek, berriz, deadarka:

S.- 'Ez hori; Barrabas baizik'.

K.- (Barrabas hau lapurra zen).

Pilatok orduan, Jesus hartu, eta zigorkatzeko agindu zuen.

Eta gudariak arantzazko koroia egin, eta buruan ezarri zioten, eta

ERANTZUN-SALMOA

30

ZURE ESKUETAN DUT BIZIA, ASKA NAZAZU, JAUN HAUNDIA.

Zugana biltzen naiz, Jauna,
ez nadila behinere lotsa:
zeure zuzentasunez onik nazazu atera.
Zure eskuetan uzten dut neure arnasa,
askatuko nauzu, Jauna, Jainko leiala.

Etsai guztiei barregarri natzaie,
auzoei irrigarri, ezagunei izugarri:
kalean ikusi eta alde dagite nigandik.
Hildakoa bezala naute bihotzean ahaztu,
ontzi baztertua bezala naiz gertatu.

Ebertarrei egindako epistolatik 4,14-16;5,7-9

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu, zeruetan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiogun, beraz, sinesmen-aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik gure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbi. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion; eta bere begiruneagatik entzun egin zitzaion. Eta Semea izanik ere, bere neke-artearen, ikasi zuen esaneko izaten; eta bere betera iritsirik, Haren esaneko direnentzat betiko salbamenturri egin zen.

EBANJELIOA

Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion.

Jesu Kristoren Nekaldia San Joanen liburutik 18,1-19,42

K.- Aldi hartan, Jesus Zedrongo erreka beste aldera atera zen bere ikasleekin. Bazen han baratze bat, eta hantxe sartu ziren Bera eta bere ikasleak. Judas saltzaileak ere bazekien leku hura; maiz joaten bait zen hara Jesus bere ikasleekin.

Judas, orduan, apaiz nagusien eta farisearren morroi-talde bat eta zaintzaile batzuk harturik, han sartu zen argiontzi, zuzi eta armekin. Jesusek –ondo bait zekien zer zetorkion gainera- bidera aterata honela esan zien:

+- “Noren bila zatozte?”

K.- Eta haiek:

S.- ‘Nazareteko Jesusen bila’.

K.- Eta Jesusek haiei:

+- “Ni naiz”.

K.- Han zetorren, haiekin batean, Judas saltzailea ere. ‘Ni naiz’ esan zienean, atzeraka-atzeraka lurrera erori ziren. Jesusek galdetu zien berriz ere:

+- “Noren bila zatozte?”

K.- Eta haiek:

S.- ‘Nazareteko Jesusen bila’.

K.- Jesusek erantzun zien:

+- “Esan dizuet Ni naizela. Nere bila bazatozte, utzi iezaiezue hauei joaten”.

K.- Horrela bete zen Berak esandakoa: “Zuk nere ardurapean utzi zenizkidanetatik, ez dut inor galdu”.

Orduan Simon Pedrok, zeramakien ezpata atera eta apaiz nagusiaren morroia jo zuen, eta eskuineko belarria moztu zion. Morroi honek Malko zuen izena. Jesusek orduan honela esan zion Pedrori:

+- “Sar ezazu ezpata bere zorroan. Ez al dut, bada, edan behar Aitak eman didan kaliza?”

K.- Gudari-taldeak, haien agintariak eta judutarren morroiek hartu zuten Jesus eta, loturik, Anasenera eraman zuten lehenengo; Anas hori Kaifasen aitagarreba bait zen, eta Kaifas bera urte hartako apaiz nagusia; eta Kaifas zen, gainera, judutarrei harako kontseju hura eman ziena: ‘Hobe da gizon bakarra hiltzea herriarengatik’.

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik zihoazen.

Beste ikasle hori apaiz nagusiaren ezaguna zen, eta Jesusekin batean apaiz nagusiaren jauregian sartu zen; Pedro, berriz, atarian gelditu zen. Atera zen beste ikasle hori –apaiz nagusiaren ezaguna, alegia-, neskame atezainari hitzegin zion, eta Pedro barrura sar erazi zuen. Neskame atezainak orduan esan zion Pedrori:

S.- ‘Zu ere ez ote zara, gero, gizon horren ikasle?’

K.- Eta Pedrok:

S.- ‘Ni? Ni ez’.

K.- Morroiak eta serbitzariak sua piztu eta berotzen zeuden –hotz bait zen-. Pedro ere hantxe zegoen besteekin batean zutik, berotzen. Apaiz nagusiak, bere ikasleen eta bere erakutsien galdera egin zion Jesusi. Eta Jesusek erantzun:

+- “Nik mundu guztiaren aurrean hitzegin dut; sinagogan eta jauretxean, judutar guztiak biltzen diren lekuan erakutsi dut Nik beti; eta ezkutuka ez dut ezer esan: Zergatik galdetzen didazu Neri? Galde iezaiezu nere entzuleei, zer esan diedan. Berek dakite Nik esandakoa”.

K.- Hori esan bezain laister, han zegoen morroi batek maisaileko bat eman zion, esanez:

S.- ‘Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiar?’

K.- Eta Jesusek:

+- “Gaizki hitzegin badut, esaidazu zertan; baina ongi hitzegin badut, zergatik jotzen nauzu?”

K.- Orduan Anasek Kaifas apaiz nagusiarengana bidali zuen lotuta.

Han zegoen zutik Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S.- ‘Zu ere ez al zara Horren ikasleetakoa?’

K.- Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S.- ‘Ez! Ni ez!’

K.- Apaiz nagusiaren serbitzari batek –Pedrok belarria moztu zionaren ahaide batek- esan zion:

S.- ‘Ez ote zaitut, bada, neronek ikusi Berarekin baratzean?’

K.- Pedrok berriz ere ukatu egin zuen; eta berehala jo zuen oilarrak.

Kaifasen etxetik auzitegira eraman zuten Jesus. Eguna argitzen hasi zuen, eta haiek ez ziren auzitegian sartu, beren buruak ez kutsatzeagatik, Pazko-afaria egin ahal izan zezaten. Atera zen Pilato haiek zeuden lekuraino, eta esan zien:

S.- ‘Zer salakuntza dakartzue gizon honentzat?’